

# Altzako euskarazko kronikak (1921-1936)

Altzako Historia Mintegia

*Artiga bilduma 7*

# ALTZAKO EUSKARAZKO KRONIKAK (1921-1936)

&

**Altzako Historia Mintegia**

**ALTZA**
**2010**

AHM - Altzako Historia Mintegia
Lau Haizeta, 21-3.ezk. 20017 ALTZA
ahm@altza.net
www.altza.net

ISBN:
lege gordailua:

**artiga.** s.f. Labaki, lanberri, luberri.
**artiga.** f. Terreno roturado después de quemar la vegetación salvaje.
**artiga.** f. Novale (terre défrichée).
**Artiga.** XIV. eta XV. mendeetan Altza izendatzeko erabilitako izena.
Nombre con el que también se conocía Altza en los siglos XIV y XV.

*Artiga bilduma:*

1. "Altza: de los cubilares al concejo. Formación y características del régimen jurídico-político altzatarra". David ZAPIRAIN, Juan Carlos MORA.

2. "La vida cotidiana en Altza en los siglos XVII y XVIII". Mª Rosario ROQUERO USSÍA.

3. "Altza herriko familiari buruzko ikerketa etnografikoa". Alex IBAÑEZ, Itxaso MENDILUZE, Urt ZUBIAURRE, Maider AIERDI.

4. "Altza: Historia y Patrimonio". Beatriz HERRERAS MORATINOS.

5. "La vida de Altza a través de sus actas municipales (1843-1900)". Mª Rosario ROQUERO USSÍA.

6. "Altza en la prensa del siglo XIX - Altza XIX. mendeko kroniketan". Altzako Historia Mintegia.

7. "Altzako euskarazko kronikak (1921-1936). Altzako Historia Mintegia.

# Sarrera

Altzaren iraganean arakatuz, oparoa gertatu zaigu prentsan aurkitu duguna. Hala izan zen XIX. mendeko egunkariak hustu genituenean, eta baita oraingoan ere, Altzatik euskaraz idatzitako kroniken bila jardun dugunean.

Euskarazko kazetaritzaren sorrera berantiarra izan zen, eta bizitza laburra, 1936. urteko Gerra Zibilak bortizki eten egin baitzuen bere bidea. Euskal Herrian ez bezala, Altzan euskarazko kronikak abertzaleek soilik idatzi zituzten, jeltzaleek, hain zuzen ere. Haiena ez zen lanbide bat, militantzia kontu bat baizik, eta haien kroniketan agertzen diren izenak eta gertakizunak lotura estua dute elizarekin eta batzokiarekin. Kronistek ezizenez sinatzen zuten eta, tamalez, ez dugu aukera izan haien izen-abizenak jakiteko. Haien artean, ordea, elkar ezagutzen zuten eta kronika askotan kronista bat besteari zuzentzen zitzaion. Euskara euskal identitatearen osagaia zen, baina, oro har, garai hartan euskararen erabilera sinbolikoa zen, jainkoaren eta proiektu politikoaren mesedean. Kroniketan jarraitzen duten eskema eta estiloa beste herrietako kroniken antzekoak dira, protagonisten izenak aldatzen dira soilik.

Bilduma honetan aipatzen diren pertsonak, lekuak eta gaiak asko dira. Aurkibideek lagunduko diote irakurleari bilaketan eta liburuari zukua ateratzen. Garaiko hainbat argazki ere gehitu dugu, kroniketan aipatzen diren zenbait pertsona eta gertakizunei aurpegia eta irudia ipintzeko amoz.

Hemen eskaini dugun dokumentazioa biltzea ezinezkoa izango litzateke Armiarmak sortutako "Euskal Prentsaren Lanak" (www.hemeroketa.com) web orriaren laguntzarik gabe. Hona hemen gure esker ona Armiarmari, bihotz-bihotzez.

"Altzako euskarazko kronikak (1921-1936)" liburu hau Altzako Tokiko Bildumaren web orriaren (www.altza.info) aurkezpen egunean eman dugu argitara. Bertan aurkituko du irakurleak hemen bildutako material hau eta beste asko, bere jakin-minaren, ikerketa txiki eta handiagoen zerbitzura.

Altzako Historia Mintegia

# Kronikak

[1]

*Argia*, 1921-05-22 - 5. zbka.

-Abertzale edo nazionalista jai aundiak dituzte gaur.

[2]

*Argia*, 1921-07-10 - 12. zbka.

-San Marzial'etan jai ederrak izan ziran.
-Gaur bola-apostua Intxaurrondon.

[3]

*Argia*, 1921-10-23 - 27. zbka.

-Etxe merkeko auzo berri bat egin dute emen, orain arte 8 etxe berri, eta aurreko igandean iriki zuten auzo ori; Erregin zarra ta Donosti'ko jaun aundi asko izan ziran jai orretan.

[4]

*Argia*, 1922-01-01 - 37. zbka.

-Egoarri egunez bi pelota partidu jokatu ziran soldaduen alde dirua biltzeko.

[5]

*Argia*, 1922-04-30 - 54. zbka.

-Joan dan asteko gau batean lapurrak sartu ziran Arrillaga andre alargunaren estankoan eta eraman zituzten 70 laurden tabako (2,80'na pesetakoak) 100 puru garesti, 3 zigarro-paperjaka; 40 libra txokolate, 3 kilo lukainka. Bi gazte gelditu zituzten baña ez dakigu ayek izan ziranik.

[6]

*Argia*, 1922-05-28 - 58. zbka.

-Datorren igandean, 28'an, Euzko Gaztediaren urtebetetzea dutela eta jai aundiak egitekoak dira; inguruetako jende asko bilduko omen da.

-Laster ezkontzekoak omen dira Nikolasa Goikoetxea emengo sekretario jaunaren arreba liraña ta Bibiano Elizalde, Martillun'go gizaseme egokia.

[7]

*Argia*, 1922-08-06 - 68. zbka.

-San Marzialetako jai ederrak izan dira 29, 30 ta 31'n.

-Aguzilla bear da erri onetan, gipuzkoarra ta euskeraz dakiena. 2.500 peseta ta etxea emango zaizkio urteko.

[8]

*Argia*, 1922-09-10 - 73. zbka.

-Saturraran'go uda-etxean bi illabete igaro ondoren etorri zaizkigu Zugazti bi anaiak, Casares eta Perez apaiz-gaiak. Agorraren azkenean Seminariora joateko dira.

-Estropada egunak gañean ditugula ezagun da ementxe. Gazte jendean bata eta bestearen alde sutsi mintzatzen da. Txoratuenak pasaitarren alde gaude.

-Labaka'tar Pelix, Zillargiñeneko semea Melila'tik onuntz irten omen da; zauriturik egona da, baña orain osatua. Etorri laisterren.

-Igandean pelota partidu polit bat jokatu zan; Goikoetxea'tar Migel sekretario j. arrika, eta Etxabe'tar Iñazio palaz. Dirua ere jokatu zan. Goikoetxea jk. irabazi zun.

[9]

*Argia*, 1922-10-22 - 79. zbka.

-Emen uda igaro ondoren Madrid'era joan zan negua igarotzera Florentino Gastesi j.

[10]

*Argia*, 1922-12-03 - 85. zbka.

-Jendeak naigabe aundia artu zun Juan Alkiza gaztearen eriotzarekin; 21 urtetan il da bere guraso ta anaiak atsekabe aundian utzirik. 15'ean izan zan lur-ematea eta Errenteri'ko Arrieta'ren langille guziak an ziran. Eusko Gaztediak ere meza atera zion 26'an.

[11]

*Argia*, 1922-12-31 - 89. zbka.

-Ilbeltzaren 14'ean aterako dira subastan 500'na pesetako 600 obligazio; erriak irureun milla peseta bear omen ditu ur berriak ekartzeko eta beste lan batzuetarako; diru ori biltzeko ematen ditu obligazio oriek, euneko bost terdian.

-Donostian il eta emengo kanposantura ekarri dute, Tomas Zuloaga jaunaren gorputza. G.B.

[12]

*Argia*, 1923-01-14 - 91. zbka.

-Illaren 10'ean ezkontzekoak ziran Bibiano Elizalde ta Nikolasa Goikoetxea gazteak; baita ere laister egitekoak Jose Garmendia eta Eujenia Arrieta gk.

-Jose Isasa jk. alabatxoa izan du Miren Arantzazu izena ezarririk.

-Sendatu da Inazio Zubizarreta.

[13]

*Argia*, 1923-02-04 - 94. zbka.

-Kupel langille euskaldunak alkarren arteko Elkarte berri bat egin dute, alkarri obeto laguntzeko. Buru izendatu dute Jose Maria Goikoetxea jauna ta sekretario Joakin Letamendia jauna.

[14]

*Argia*, 1923-04-29 - 106. zbka.

-Ostiralean zortzi, Erreran, Endaya'ko tranbiaren geltoki gañean dagon tabernan ardo geitxo edan ondoren asturiar mariñel batek, galiziar bat tiro batez zauritu zuben.

Zaurituak Adelino Diaz Criado izena du ta besteak Jose Alvarez.

[15]

*Argia*, 1923-05-20 - 109. zbka.

-Emengo abertzaleak, beren batzokia iriki zutela bi urte betetzen diralata, gaur igandez, ara zer pestak egingo dituzten.

Amarretan meza-nagusioa bertako eta inguru-errietako abeslari talde eder batek abestuko du Goikoetxea'rena.

Meza ondoren, lau eskulari onenetakoak partidu eder bat jokatuko dute.

Ordubatian, oturuntza.

Bezpera ondoren "ezpata-dantza".

Eta azkenik erromeri ederra, dultzana eta txistuakin, eta oleskariak.

Orra ba, jai-aldi polita, eta Altza dan bezin leku alai batian gañera. Ezin esango dute euskal-zaleak, ezin jostatu dirala berak nai bezela, gaurko egunean beñepen. Bete-betia ikustia uste degu gure enparantza egokiya.

[16]

*Argia*, 1923-08-05 - 120. zbka.

-Igandean eunen bat altzatar alkarturik, Martutenen egin zan otoruntz bategaz erakutsi zioten gure alkate Otegi'tar Alejandro jaunari beren atsegiña.

Atsegin au Landarbaso'tik oraindik orain ekarri dituzten urak sartu digutela esan liteke. Izan ere gure erriarentzat aurrerapen aundia da ur abek ekartzeakin lortu deguna!

Zorionak alkate jaunari eta zorion au Altza'ko erri guzian zabaldu bedi!

[17]

*Argia*, 1923-08-19 - 122. zbka.

-Juan dan astean bildurrak aidian ibilliak dira "Villa Buenavista" deritxon etxetxoan.

Gau erdian Donostia'n etxe ori lapurrez inguratuta arkitzen zan berria artu zan. Ziotenez bai etxetik ta bai kanpotik tiroka ari ziran.

Gipuzkoa'n geundelakoan Bartzelona aldean ote giñan ere oldoztu (pentsatu) gendun uneren batean.

Baña... poliziakoak ara juan ziranean etzuten an ezertxore arkitu. Etxekoak bildurrak ta besterik ez. Ta gero jakin degunez lapurren batzuek sartuak izan bear zuten etxean, bai, bañan usmatu zituzten bezin laster alde egin omen zuten, etxera arri bat botiaz iñork jarraitu etzitzaien. Tiro guziak beraz...

[18]

*Argia*, 1923-09-16 - 126. zbka.

-Dorronsoro jauna egin dute gure erriko irakasle. Zorionak ta gure seme ta erriaren onerako izan bedi.

-Mirakrutz auzoan jaiak antolatu ditzaten "Artzak Ortziok" bazkunari eun ogerleko eman dizka gure Udalak.

-Molinao auzoan Alkorta'ren oñetako-denda aurrean iru baezpadako lagun ikusi zituen serenoak ta bereganuntz abiatu zanean irurak itzul egin zuten.

Geroxiago bat arrapatu zuten ta onek aitortu dunez Alkorta'ren dendatik zer-edo-zer etxeratzeko asmotan ibilliak ziran... baña serenoa azaldu zanean... poto egin zuten.

[19]

*Argia*, 1923-09-23 - 127. zbka.

-"Artzak Ortziok" bazkunak antolatuta Santa Kutzetan jai politak ikusi ditugu.

Goizean ildakoen aldez meza entzundakoan Niebes-Enea sagardotegian bola konkurtsoa izan zan.

Arratsaldean zinta lasterketa ta dantza, ta abar.

[20]

*Argia*, 1923-10-14 - 130. zbka.

Errera.- Auzo ontan sorgiñak ote dabiltzan gaude. Aspaldi ontan beintzat beribil, tranbe ta onelako traste oiek okerrera jota dabiltza.

Dagonilla'ren 14'an gertatu zanen antzera, gaur zortzi Ategorrietatik irtenda onera zetorren tranbe bat, Zab[?]ino jaunaren (G.b.) oroimenez jasotako kapillatxoa dagon lekura eldu zan bear baño azkarrago, ta an bideak estutxoak iruditu ta edo, abetatik irten eta an juan zan bidezabal guzia igarota beste aldeko petrileraño.

Orrela bear ta orma gañean exerita bezela gelditua izan bear zuen. Ala obe, ba an bera jausi izan balitz, oker gogorragoa edertu (kontatu) bearrean giñake.

[21]

*Argia*, 1923-10-21 - 131. zbka.

-Berriketa aundiak ibilli ziran Udal berritzea izan zanean, lengo Udalak kontu zikiñen batzuek ote zituen edo... Baña guzia gezurra dala ikusi degu gero.

-Etxebeste'tar Inazio jaunaren emazte Lizeaga'tar Josepa andrea il da 67 urtekin. (G.b.) Otoi bere gogo aldez.

[22]

*Argia*, 1923-11-11 - 134. zbka.

-Asteazkenean zortzi "Txingurri" basetxean kupel bat garbitzen ari dala zoraldi batek eman da kupel barrenera erori ta bertan ito zan Arandia'tar Permin 29 urtedun gaztea. Bera ateratzeko egin ziran alegin guziak alperrikakoak izan ziran.

[23]

*Argia*, 1923-11-25 - 136. zbka.

-Atzo zortzi il zan Bides'tar Remiji andre agurgarria, Isturitz-'tar Lorezo'ren ama. Larogeita bat urte ziten. (G.b.)

Astalenean izan ziran bere illetak oste aundiarekin. Ar beza, bere sendiak batez ere bere semeak gure samin agurra.

[24]

*Argia*, 1923-12-02 - 137. zbka.

-Len bezela berriz ere Donostiakin bat egin nai gaituzten susmurrak dabiltza. ¿Gure erriak zer dio?

-Artaza'tar Pelipe'ren emazteak mutiko bat izan du.

-Anabitarte'tar Pedro'renak ere bere lenenego semea izan du. Zorionak bi sendiei.

[25]

*Argia*, 1924-01-13 - 143. zbka.

-Madrid, Bartzelona ta beste uri batzuek ikertu (bisitatu) ondoren, beren ezkon ibilketa amaituaz, Ondarrabi'ra biurtzeko asmoan eman agurtu ditugu Nikolas Duinat jauna ta bere emazte Oyarbide'tar Erramuna. Zorionak.

-Beasain'dar Sotera, Zubillaga'ren alargun agurgarria eriotzak betikotasunera eraman du. Otoi bere gogo aldez. G.B.

-"Beti Aurrera" ta "La Armonia" bazkunak beren urteroko batzarrak egin dituzte, bazkintz artezkari berriak izendatuaz.

[26]

*Argia*, 1924-03-23 - 153. zbka.

-Deun Inazio osategian (klinikan) operazio bat ondoren askoz obeto arkitzen da Galardi'tar Joxepa andere atsegiña. Lenbailen sendatuko al da!

-Mirakrutz'en ume-ikastola bat jartzea nai dute auzo ortako sendiak. Itxura danez ez du Udalak txartzat artu auzotarren nai au.

[27]

*Argia*, 1924-03-30 - 154. zbka.

-Sarriegi'tar Prantzisko'ren emazteak nexka eder bat izan du. Zorionak.

[28]

*Argia*, 1924-04-20 - 157. zbka.

-Goenaga ta Ostolaza'tar Prantziska andre onaren eriotzak erri osoan atsekabea sortu du.

Oso ezaguna zan eta lagun asko zituen errian.

Ostiralean zortzi obiratu zuten eta bai egun ortan eta bai larunbatean bere illetetan jendetza aundia izan zan. G.B.

Bere alargun Basilio jaunari ta gañerako senditar guziari gure agur samiña.

[29]

*Argia*, 1924-05-04 - 159. zbka.

-Gaizki samar egon ondoren onera jo du Araolaza'tar Prantziska, Mas jaunaren emazte gazteak. Zorionak.

-Eneterreaga'tar Inazio, beribil azterramalle edo kamioi kontuakin Parantze, Beljika ta Olanda'ra juatekoa da. Ongi ibilli.

[30]

*Argia*, 1924-06-29 - 167. zbka.

-Asteazkenean zortzi ozte aundiarekin egin zan Garmendia'tar Jose Manuel jaunaren obiratzea.

Ondoren bere illetak egin ziran Deun Marzial elizan. G.B.
Bere sendiari gure agur samina.

[31]

*Argia*, 1924-07-27 - 171. zbka.

-Atzo zortzi ezkondu ziran Uda'ko eliztxoan Anabitarte'tar Jose Inazio Arrieta'tar Maria Anjela'rekin, eta aren arreba Asunzion, donostiar Erauskin'dar Inazio'rekin.

Erretore Meliton Pagola jaunak onetzi zituan bi elkartze abek eta elizkizunak amaitutakoan ezkon-berriak beren sendikoakin Alegi'ko Errotara juan ziran eta an bapo bazkalduak izan bear dute.

Gero, beren ezkon ibilketari asiera eman zioten. Zorionak.

-Galardi'tar Manuel'en emazte Artza'tar Erramuna andreak nexka eder bat izan zuan juan dan astean.

Igandean ugutzatu zuten. Zorionak.

[32]

*Argia*, 1924-08-03 - 172. zbka.

-"Buena Vista" auzoan gaur zortzi egin ziran jaiak. Kankallu ta buruaundiak irten ziran goizean Sizilia'ko eresbatzarekin bazterrak azaldatzera. Meza nagusi aurretik lasterketa ta ondoren par-jaiak egin ziran (sakutan sartuta lasterka, arrautz lasterketa ta abar)

Amabitan zintak eta ordu batean oturuntza.

Lauretan mutiko-neskatotxuak aurrezkua atera zuten.

[33]

*Argia*, 1924-09-07 - 177. zbka.

-Gaxoaldi luze baten ondoren eriotzak bere lanak egin ditu Odriozola'tar Joakina, amazazpi urteko neskatil gazteagan. G.B.

Bere illetak eliz nagusian egin zitzaizkan jende asko izanik.

Bere sendiari gure naigabe agurra.

-Florenzia Duinat, andere liraña, bere gaxotasuna menderatuta osabidean sartu da. Zorionak.

ꝸ

[34]

*Argia*, 1924-11-09 - 186. zbka.

-Eusko Langilleak, Udalak lagunduta urtero eman oi duen "dibujo" erakuskizuna, aurten ere astelenean asi da. Aurrera.

ꝸ

[35]

*Argia*, 1924-11-30 - 189. zbka.

**Beste txori bat**

-El Pueblo Vasco'n bi eskaera irakurri ditugu juan dan astean. "Txori"'k arrazoi du ta guk ere ARGIA bitartez bi eskaerak berritu nai ditugu.

Bat argi ari posteak erdi erorian daudela ta bestea tximisburdi trole edo pertxak errex alde egiten duala "Cuarta Vía" aldera jexten asten diranean.

Oker bat gertatu baño len esana dago.

ꝸ

[36]

*Argia*, 1925-01-04 - 194. zbka.

-Astelenean Irun'go Elgorriaga jaundak duan beribillak Errera auzoan bi aizpa azpian artu zituan. Bat bertan ilda gelditu zan; Felipa, zazpi urtekoa. Bestea Pilar Albiztegi, beatzi urteko, ondo dago.

¡Beti berdin!

ꝸ

[37]

*Argia*, 1925-02-01 - 198. zbka.

-Lengo asteko gau batean amaikak aldera Kasares osagille jauna

etxera zijuala, Duarri jaunaren landolatik sua ta ke asko irteten zirala nabaitu zuan.

Laster bildu ziran su-tokian Altza osoa ta Pasai'ko lagun asko. Pasai'ko bonbak ezertarako etzirala ikusirik Donosti ta Errenderi'ra dei egin zan.

Suak, bere lan kaltegarriari jarraituaz, landolaren aldameneko etxeari eldu zion eta laugarren bizitz aldetik erretzen asi zan Aldai'tar Martzelina andrearen etxea.

Bonberoak iritxi ziranean landola ziaro errea zala ikusiaz etxea gaizkatu naiaz asi ziran eta bai lortu ere.

Laugarren bizitzako bizilagunak eredi guztiak galdu dituzte ta ukulluan zaldi bat ito zan, etxeak su ta urak egindako kalte aundi xamarrak izanik.

Ogei bat milla ogerleko (duro)'ren okerrak bai omen dira.

[38]

*Argia*, 1925-03-01 - 202. zbka.

-Deun Luis'en Bazkunean "Meza Berria" ta abar antzestuaz antzoki jai politak izan dira. Ederki.

-Eiztariak ezer gutxi bota dute aurten eta entzun degunez aserre dira legetan beste tokitakoak baño gaizkiago begiratuak daudelako.

[39]

*Argia*, 1925-06-07 - 216. zbka.

**Axerko**

-Zugazti'tar Anizeto apaizgaia etxera etorria da. Bere lagunak ere etorriak izango dira noski, ez ditugu ikusi baño. Ongi etorri ta luzarorako.

-Goikoetxea'tar Migel idazkari jaunaren iru illabeteko semetxoari operazio gogorra egin diote. Gixajoak ederrak ikusi ditu baño onera emana omen da. Zorionak eta ia oso sendaturik mutiko ederra egiten dan.

-Orrillak, Miren Garbiari eskeñirik dagon illak alde egin digu.

Egunero lorea egin da eta igandetan elizkizun ederrak izan ditugu.

Abesti politak eta ongi abestuak ere entzun ditugu, baño, oker bat eta aunditxua gañera egin dute koro alde artan.

Altza'ko erria, erri euskaldun jator, orain arte beintzat, orregatik gai ontako okerrik ez litzake egin biar.

[40]

*Argia*, 1927-03-20 - 309. zbka.

**Iturrigoxo**

-Mixioak izan ditugu il onen 2 tik 11 arte. Izlariak Aita Aizpuru eta Aita Lazkibar, Jesusen Lagundikoak izanak, azkenengo au erritarra. Ozte asko ibilli da itzaldiak entzuten, batez ere illaren 6 igandian; auzoko errietatik ere asko etorri ziran, danak ao batez zioten eleiza egin zan ezkero izan danik geiena zala ¡ura edertasuna! Egun berezietan Jauna artu genduan. Ume txikiak igandean, Mariaren alabak asteartean, andreak ostegunean, egun bakoitzean amaigabeko taldeak ziruditen. Altzako ume txiki danak Jesusentzat eskeñi ziran, eskeintza guztien izenean Goikoetxea'tar Segundo mutiko azkarrak egiñik. Gazteak bero dabiltza alkartasun bat sortzeko, aurrera. Izlari bikañak pozik juan dira emengo sinismena ikusirik.

Guk ere asmo sendoak artu ditugu, jarraitu dezagun etzaigu damutuko.

[41]

*Argia*, 1927-04-17 - 313. zbka.

**Iturri goxo**

-Erramu egunarekin urtero oi dan bezela, aurten ere egin da guruzbidea Erreratik Altzara, gero bikario jaunak, berak dakien bezela, itzaldi mamitzu eta sutzu bat egiñik amaitu zan.

-Ansa'tar Jon gure lagunak alaba bat izan du. Zorionak.

-Sagardo ugari badago oraintxe emen danak zenbatu ezkero berrogei urreratuko dira, baña nolako sagarduak onenetakuak, sagardo onak egiten mutillak dira, emengo basetxetarrak.

[42]

*Argia*, 1927-05-29 - 319. zbka.

**Iturri goxo**

-Juan dan igandian, illaren 29'an asiera eman diogu San Luis eta San Estanislao'ren elkartasun ederrari.

Goizeko jaun artze, eta arratzaldeko elizkizunak ikusgarriak izan ziran Jauna artzen iya berreun bagiñan eta saill bikain ura ikusirik arrera eder bat egin zigun Bikario jaunak.

Arratsaldean sermoi eder gartzu bat izan genduan, eta ondoren Gotzai jaunaren onespena, orrela amaituaz jai eder ori.

Sutu gaitezen, bada, Altzako gaztiak, zeruko ama Maria'ren eta gure zaindari San Luis eta San Estanislao'en elkartasun eder ontan.

[43]

*Argia*, 1927-07-03 - 324. zbka.

**Iturri goxo**

(Aurreko astean atzeratua)

**Apaiz berriak**.- Poza nabaritzen il ontan gure erriyan eta bidezkua da gañera poz au. Erriko iru seme apaiz eginda illaren amaika arratsaldian etxeratu ziran.

Zorionak iruroi, Sasotegi'ko Agote'tar Pedro, Kasano'ko Kasares'dar Juan eta Aitzpurutxo'ko Zugasti'tar Anixeto Jk. Urte askotarako Jaunaren pakia ta zorionak.

**Meza berriyak**.- Igandian eman zuan Agote apaiz gaztiak bere lenengo meza, goizeko amarretan. Bete betia zegon eliza. Itzaldiya Mendikute'tar Alejandro Jk. ederki egin zuan. Abeslariyak berriz, Antxo'ko Aranburu'tar Jelasio apaiz ernearen mendekuak ziran. Euskalerri osuak daki zeñen trebeak diran gazte adoretsu obek.

Labaka ta Zapirain mutikoak aingeru aretik jetxiyak izango al dira noski. Ain goxoki abesten dute!

Meza onduan oturuntza bikaña Martillun'en.

Kasares'tar Juan apaiz gaztiak ere irakurliak berri abek ikusterako emana izango da bere lenengo meza, Jauna lagun. Donibane egunian, il onen ogeita labian.

Zugasti Jk. berriz ogeitamarrian erriko zaindari Marzial deun egunian.

**Eliza berriya.**- Errera'n altza diyote Luis Donea'ri eliza politaskua. Oraindik amaitu gabe dagonarren asteartian Luis santu beraren egunian lenengo elizjaya egin zan bertan. Gotzai J. izan zan onesten (bedeinkatzen) eta meza nagusiya erriko apaiz buru Pagola'tar Meliton Jk. bere bi ikasle Kasares eta Agote lagun zituala eman zuan. Meza onduan Errenderi'ko dantzariak beren gorputz txiki ariñak Gotzai'ren aurrian ederki dantzatu zituzten.

Arratsaldian ere elisjaitxo polit bat izan zan. Larrañaga J.L. itzlariya.



Altzako agintari zibilak eta elizakoak Herrerako San Luis Gonzaga elizaren inaugurazioan. 1927. Goian, ezkerretik eskuinera: 1 Pablo Landa; 4 Ignacio Eneterreaga; 5 Leandro Aizpurua; bere atzean, Maria Arrieta; 6 Felipe Artaza (Altzako alkatea); 7 Fray Zacarias Martinez (Gasteizeko gotzaina); 9 Alkiza; 10 Jose Salaberria; 11 Jose Casares; 12 Boni Eneterreaga; 13 Francisco Zumalakarregi (jostuna); 15 Luciano Polo. Behean, ezkerretik eskuinera: 4 Meliton Pagola; 5 Embil (artzapeza); 8 Joaquin Aizpurua; 10 Pedro Agote.
*(Iturria: Isabel Landa)*

**Otoitz goiko Jauna'ri.**- Baserritarrak beren belar ondubiarrak eta eguraldi on ta txarrak gora ta bera negarrez dauzkagu. Egualdi ona ta txarra Jaungoikua'ren eskuan daude ta otoitzaren bitartez iritxiko degu nai deguna Negarraren ordez Aitaguria ezpañetan; orrela nai deguna izango degu.

[44]

*Argia*, 1928-06-03 - 372. zbka.

**Iturri-goxo**

-Gezurra dirudi erri ontatik, ARGIA'ra berririk ez bialtzia, Gipuzkoa'ko erri txikienak ere noiz nai emen azaltzen dira; eta gure Altza maitia beñere ez.

¿Guk ez ote degu emen idazti txorta bat bidaltzeko gayik? Nik baietz uste det, oixe-bai.

-Il onetako eleizkizunak oso ederrak izan zaizkigu, egunero loratxuak eskeñi dizkiogu gure Ama zerutarrari.

Luistarrak ere ez gaude ixilik egoteko Ondarrabi'n egin zan billeran talde aundia giñan emendik, gure Bikario jauna buru gendula. Aita Agirre'n erakutsi aldiyakin geren biotzetan sortu zan gure anayen ganako maitasuna bero eta sutsu bat, ¡berrizko ere nora nai juateko gertu gaude! baita biartu ezkero urrutitxora ere...

-Zori onian gaude Altza'tarrak, lengo igandian ekarri ziguten Kalunba Donearen gorputza Errerako Luis Deunaren eleizara, oso arrera ederra egin zioten, Malaga'ko Obispo jaun, erriko eta kanpoko apaiz Gobernadore eta erriko agintari jaunen artian.

Abesti politak baziran, baño euskeraz batez ¡tamalgarria! Onetzi gaitzala Kalunba Doneak eta guk otoitz dagiogun eta ikusi nau duanak badakizue non dagon: Altza'ko Errera'n.

[45]

*Argia*, 1928-07-01 - 376. zbka.

**Iturri-goxo**

-Igaro dan astean izan dira Errera'n Gonzaga'tar Luis deunaren

jayak. Orain berriz gure erriko zaindari dan Marzial deunarenak ditugu; il onen 30'an abestuko da Goikoetxea'ren meza.

-Gure udalak iturburu edo manantial beste bat erosi duala Landarbaso'n eta ur ori ekartzeko lanian laxter astekoak dira. Oso atsegingarri zaigu. Erri ontako kanpo-zabaltzera dijoaz.

-Altza'ko Luistarrak igande ontan arratsaldean dijoaz Donosti'ra beste errietakoekin ibildeun eder batean, gure Gotzai euskaldun jatorrari ongi etorri ospetzu bat egitera. ¡Gaztiak, guztiok igandean Donostira!

-Gure nekazariak naiko lana badaukate bolara ontan bere zelayetan; eta gaztiak beñepin gogor ari dira jayetako lanak aurreratu naian.

[46]

*Argia*, 1928-07-08 - 377. zbka.

**Altxa**

Kaxo Iturri-goxo: Lanperatua zaudela badakit eta zuri laguntzia erabaki det, gure asteroko ARGIA'n ematen diguten tartia betetzeko. Zure Iturriko ur goxoa bezelakorik ez da irtengo neretik, bañan naiz txartxiagua izan, bat edo batek edango dulakuan beste iturri au pixka bat irikitzera nijua.

Aurrena ordia agur maitetxu bat bialdu nai diot gure ARGIA'ri eta beste bat ARGI-irakurtzalleari.

**Erriko jayak**.- Lengo astian adierazi bezela, illaren 30'an ziran erri ontako jayak. San Pedro egun arratsaldian kanpanak eta su-ziriyak adierazi ziguten jayaren asiera.

Larunbat goizean pozik jeiki ziran Altzatarrak gure zaindari Marzial Santua goratzeko asmoz. Au adierazi ziguten goizian Jauna artzen eta Meza nagusiyan izan ziran jendetzak.

Argi eta garbi esan zigun, bere itzaldian, Dabid Esnal jaunak, Altzatarrak zeruratzeko zer egin bear genduan; gure zaindari aundiaren birtute eta onbideak ikasi eta jarraitu. Jaungoikoa, Marzial Doneak bezela, indar guztiyaz, biotz biotzez eta anima osoaz maitatu ta zerura juango omen gera. ¡¡Ia bada, Altzatarrak, guazen zerura!!

Arratsaldian pelota partidu polita: Altza-gañekuak eta Boliñokuak. Lenbizikuak garaille, tanto batez.



Santa Kolunbaren erlikia Herrerara heltzen. 1928-05-28.
*(Iturria: San Luis Parrokia)*

Igandian ere Eliz-jai ederran egin ziran, eta Meza ondoren bigarren pelota partidua jokatu zan. Errerakuak Martutenekoaren kontra, obek irabazirik. Azkenik, astelenian, lengo bi egunetan irabazi zutenak txapeltza jokatu eta Martutenekoak txapeldun gelditu ziran.

Aurten erriko jayetan akats bat arkitu degu Altzatar jatorrak: Euskal usaiko jolas gutxi jarri dizkigutela.

-Igandian Donostiyan egin zan Luistarren ibillaldi ederrera, Luistar mordozka juantzan emendik ere. Biyotz-biyotzian gorde ditugu gure Gotzai jaunaren itz ederrak.

-Lanziego'tik egun batzuk igarotzera etorri-ta emen dabil Zugasti'tar Anixeto apaiz jaun gaztia.

Baita Burgos'en negua igarota Kasares'tar Jon jauna ere.

Ongi etorri.

Urren arte Jaungoikuak nai badu.

[47]

*Argia*, 1928-07-15 - 378. zbka.

**Altxa**

Altza'n berririk ez dala izaten, batzuek esan didate, eta orregatik ARGIA'n ez dutela idazten. Itzez ez ditut siñistaraziko eta egitez beren errua zuzentzen ote detan, aurtengo udaran alegiñak egingo dituk. Udaran nik egiten dedana neguan berak obetogo egitia nai nuke.

-Lenago zerbait susmatu genduan eta lengo igandian Bikariyo jaunak elizan egin zuan deyak argi adierazi zigun Muxika'tar Joxe eta Kasares'tar Maritxuren eskontza. Orren mutill on eta euskaltzalia aiñ neska txintxo ta langilleakin bat egitera dijoazelako asko poztutzen gera.

Meza ondoren, oitura dan bezela, amaiketakua egitea deitu zitun bere lagun eta ezagunak. Antxen agurtu genduan gure Joxe, eta oraiñ emendik zorionik beruenak, biyori bialtzeko agindu ziraten. Urte askuan.

-Baserritarrak oraintxe (larri larri) dabiltzaka eta batzuek, Goiko Jaunari ura eskatzeko, arrentzat (rogatibak) egitia erabaki zuten. Bai pixka oyen deyari ederki erantzun ere. Emen ikusi ditugu (astelen, astearte eta asteazkenian) baserritar geyenak Jaunari eskariyak egiten. Ondo erakutzi eta aitortu dezute zuen sinismena: eta sinisme eta aitorpen ori Goiko Jaunak, dan bezelakua izanik, saritu gabe ezin lezake utzi. Eudiya ez bada, beste zerbait emango dizute eta jarrai beti ortan zuen Jaungoikotasuna, danen aurrian aitortzen dezutela, onela agindua daukan bezela, berak gero [...] aurrian aitortuko zaituzte.

-Egun mordoxka bat Dalloko errian gaixo igaro ondoren, bere etxera udartzera etorri da Agote'tar Pedro apaiz gaztea. Lenbailen indartu eta zure artaldian zeruratzera juateko zoriona eta osasuna opa dizugu.

-Uzkudun ikustera juan dira emendik ere bañan geyenak aspertuta etorriyak dira.

Bat edo bat bai omen zan gure Paulino ori lurrian ikusi nairik, piu eta piu egiñaz Alemani'tar Haymann'i laguntzen ziyona, bañan biyak ere gutxi nunbait, arrentzat.

Ziñistu, eta ikusi, Altzatarrak, zer esanik zortzen dan.

Ederki dago, gizona, txit ederki.

[48]

*Argia*, 1928-07-22 - 379. zbka.

**Iturrigoxo**

Eriyotza.- Il da! Ez da besterik entzuten Altza guztiyan. Il da! Don Joakin il da!! Berrogeita bi urtian Altza'n ezagutu degu apaiz eta etzan altzatarrik Dn. Joakin ezagutu ta maite etzuanik. Asteartian eraman zan illobira bere gorputza. Egun abetan ikusi degunak, ederki agertu digu jendiak gure apaiz jator orri ziyon maitasuna. Asteazkenian izan ziran bere gogo-aldez illetak. Ara baserritar batek zer esaten zuan: Ezta egundaño orrelako illetarik izan Altza'ko erriyan. ¡¡Emengo apaiz pilla!!

Ogeita bi meza izan ziran illeta eder abetan eta inguru-erriyetatik ere jendia ugari izan zan.

Iñor, bestientzat ona, biyotz-aundiya ta maitetsua danian, besteak era berian erantzuten dakite. Orixe gertatu zayo gure Dn. Joakin on utsari. Altzatarrak badegu zeruan laguntzalle bat geyago. Otoitz bere anima-aldez.

Bere sendi ta bere artekuari samiñ-agurrik sutsuena. Goyan bego!

Il da; il zaigu gure Dn. Joakin
Apaiz jaun agurgarriya...
Ez negar egin. Zeruan an du
On-egiñaren sariya!!

[49]

*Argia*, 1928-08-19 - 383. zbka.

**Altxa**

Emen nator berriz ARGIA'ra erriko berriyak bialtzera. Lengo bi astietan idatzi ez detela ta erritan ere asi zaizkit. Bi astian idatzi ez detelako erritan ematen didazute neri eta bi urtian ARGIA, gure ARGIA eder eta bikaña, irakurtzeko erosten ez duten oyeri ez diyozute ezer esaten. ¡Zer ori Altzatarrak!

Emen, gure erri maite eta euskaldun onetan orren ARGI gutxi irakurtzen dala jakin ta lotzatu egin biar genuke.

Erosi denak ARGIA eta amaitzen badira geyago egiteko gaztigatuko degu Donostia.

Eriyotza.- Il onen lendabiziko egunian, gure erriko idazlari edo sekretariyo zan Goikoetxea'tar Migel, il zan.

Bere emazte, seme eta beste senide gustiari poz eman nai badiyogu Migel onaren gogoaren aldez otoitz egin dezagun.

-Apaiz berria etorri zaigu. Muxika'tar Jose Maria jauna da bere izena. Bere aurrekuak erri onetan igaro zitun urtiak bete ditzala opa diyogu.

-Prantziko Mauleon'en izan dirala eta berriz emen agurtu ditugu Zugati'tar Anixeto eta Goikoetxea'tar Segundito.

-Baita ere bere ibilli aldiya egin da bildu dira beren etxera Muxika'tar Jose eta Kasares'tar Maria senar-emazte gastiak. Ongi etorri.

-Euskel erri gustiko Luistarrak Arantzazura dijuazela eta emenguak ere ez lukete atzera gelditu nai, Altzako Luistarrak, zuen buru egiten duan batek, berezibilli eder bat artu eta ondo eta merke juan ziñeztekela ezan dit.

Ia bada, Arantzazura danak aorraren biyan, orrelako aukera gutxitan izango dezute ta.

[50]

*Argia*, 1928-09-23 - 387. zbka.

**Altxa**

Luistarrak.- Arantzazu'ko ibillaldia egin dutenik txoraturik daude gure Luistarrak. Arantzazu beste itzik ez da entzuten oyen artian. Pozaren pozez beste orrelako ibil aldi bat egiteko itxadoten daude danak.

Eta nolako ikasbidea eman dute gure gasteak juan dan igandeko ibil aldi edo peregrinazio orretan? Danak ziran estropada zaliak eta alaz guztiaz ere, bi berezibil aundi bete betiak, estropada eta munduko jolasak utzirik, juan ziran Arantzazu'ra eta euskalerriko biyotzian dagon Zeruko Ama ikustatutzera. Ederki Altzako gastiak eta zorionak danori eta batez ere ibil aldi au ain ederki antolatu dun Alkiza'tar Joseba'ri.

-Gure obitegia azitzen ari dira. Lanak eta tokiya ikustera ikustzalle asko juaten dira. Beren illobiya nun egin aukeratzen ibilliko dira.

[51]

*Argia*, 1928-11-18 - 395. zbka.

**Iturri goxo**

Izpar beltza

Luzaro gaxo egonda, il dira, Altza'n oso ezaguna ziran Kasares'tar Manuela, Mirasungo etxeko-andre ona, eta Elizalde'tar Franzisko Parroki ontako organista azkarra.

Beren obiratze eta illetan notintza aundiak izan dira.

Bi gorputza obiratzera zaramazkiten une ura, samintasun utsa zan, malkua ugari ixuri asi ziguten. Amaika mezede eginda juan dira mundu ontatik; gaur etzaie damutuko. Irakurle Aita gure bana beren gogo aldez. G.B.

Bi sendi on eta kristau jatorrai atsekabian laguntzen diegu.

-Arrieta'tar Migel gure lagunari urte beteko alabatxua zerura egatu zaio; aita-amari beren samintasunian laguntzen diogu.

-Au idazten ari naizela gaxo daude Berra'ko etxekoandre zarra, Marrusko Martxiel eta Irasueneko Saturnino, lenbailen osatzia opa diet.

-D. Anizeto eta D. Juan apaiz jaunak, emen agurtu ditugu, ain ospatsu, ikustiarekin asko poztu gera.

-D. Jose Maria apaiz jaun berria, gogoz ari da gaztien artian Eleiz abestiak erakusten, batek baño geiok esan dirate zeñen gauza ederra dan, orrelako abesti onak ikasi egin biar, eta orretarako aski da gogoz artzia irakasle on eta langille bat gerekin daukagu ta jarri orrela D. Jose.

-Juan da astian Loyola'n izan diran Gogo Jardunetatik etorri zaigu Alkiza'tar Joxe emengo Lusitarren idazlari azkar eta langillea. Aspertu eziñik egon gera Loyola'ko etxe Santuko berriak entzuten. Iñor elitzakela egin biar Gogo Jardunak egin gabe zion, eta bere lagunen artian berotasuna zabaltzen ederki ari da.

-Aurreko egun batian barrikotia zan Pelegriñene basetxian eta bai sagardo ederra ere. Ikusi zan an garbi asko sagardo ona orain ere egin litekela.

Onela zion sagardo gizon batek: Pelegriñenen beti sagardo ona erreka sagarrik ez baito emen.

Eta danak galdetu giñon ¿zer sagar klase da ori? -Ori, asko ematen duana urtia abetan, baña zumu gutxikua. Baño emen ez dago, au sekaña baita.

Aiek parrak ez ta gezurra ez.

[52]

*Argia*, 1929-04-28 - 418. zbka.

**Iturri goxo**

-Emen izan ditugu Zugasti'tar Anizeto eta Agote'tar Pedro apaiz jaunak.

-Il dira emengo alkate Artaza'tar Felipe jaunaren ama eta baita ere Mendia'tar Jose.

Biak zian oso ezagunak eta beren illetan jende azko bildu zan. Laguntzen diet beren sendiai atzekabe onetan.

[53]

*Argia*, 1929-05-12 - 420. zbka.

**Altza'tar**

(**Lengo asterako berandutxo etorria.**)

Igandeko Luistarren jaia

Egun aundiya, egun pozgarriya izan zan benetan igaro dan igandea Altza'ko Luistarrentzat.

Goiz goizetik asi ziran gure gazteak eta aiekin batera beste geiago ere Mai Santura biltzen, bañan batez ere zazpietako Jaun artzean ainbeste ta ainbeste gazte bildu ziran; esan leike danok ez bada ere geintzuenak an zirala.

Gero amarretan izan zan Meza nagusi ederra. Emengo abeslari trebeak abestu zuten Perossi'ren Meza oso ederki, bere zuzentzalle Mujika'tar Jose Maria apaiz gazte jaun azkarra ta langillea zuzentzalle zutela. Meza ontan itz egin zuan Gipuzkoa'ko Luistarren zuzentzalle dan Aita Agirre jaunak, berak dakian bezela; azaldu zuan Luis Deunaren bizitza eta zeñen ixpillu ederra dan Santu au gazteentzat.

Naiz arratsaldeko elizkizun ederra iruterdietako erakutzia izan askoz lenagotik asi ziran gazte mordoxka aundiak alde guzietatik tontor onetana igotzen alai ta kementsu, azaltzen zutela beren sinismen bizia eta berarekin euskaldun jatorrai dagokion mendigoizaletasuna. Aurrena Jauna azaldu eta errezatu zan Agurtza Deuna eta onen ondoren Laborda abeslari bikañak bere abotz ederrakin jendea arriturik utzi zuan. Ondorean Aita Agirre igorik pulpitora asi zan

gure Luistarrai itz egiten eta azaltzen egun zoragarri arrei zegozkion egiak.

Gero zimitoriuan (bada ebiya azi zuan) izan zan emengo Luistarren ikurrin bedeinkatzea. Ur Santua ezarri zion gure Erretore jaunak.

Beriala igo zan emengo luistar zintzo Mujika'tar Balendin itz egitera, eta berak ongi etorria beste errietako Luistarrai eman ondoren azaldu zituan argi ta kementsu ikurriñen ezakizunak. Onek amaitu zuanian Donosti'ko Muro jaunak itz egin zuan beste errietako Luistarren izenian. Ondoren itz batzuek Aita Agirre jaunak eta azken gure Bikario jaunak beste sutzu batzuek bere gazteari eta eskerrak ematen zizkiela beste errietakoai. Aita Agirre'k irakurri zuan gure Gotzayai bialdu bear zayen telegrama "La Noticia"'ko batzaldi edo konkurtso orren aurka, entzule guziak txaloka arturik. Guztiok batera eta baita ere Altza'ko Luistarrak bakarrik antzerki edo fotografi bat dana amaitzeko atera zuten, egun aundi eta pozgarri onen gogoramen izan zezaten. Gure artean ikusi genituan, Errenderi, Lezo, bi Pasai, Oyarzun eta Donosti'ko Luistar asko.

**Ezkontzak**

Ostegunian ezkundu ziran Azpeitia'tar Pedro, Artzaka baserrikoa eta Leñena'tar Maria, neskatilla. Zorionak.

[54]

*Argia*, 1929-06-09 - 424. zbka.

**Ezkontza**

Ostegunean ezkondu ziran Deun Marzial elizan, Iruretagoyena'tar Pio ta Iñarra'tar Maria Luisa. Euzko sendi berri onen gain oparo ixuriko al ditu gure Jaunak Bere doai bere doai bereziak.

[55]

*Argia*, 1929-07-14 - 429. zbka.

**Altxa**

**Erriko pestak**

Negar eta samiñen tartian poz eta atsegiñak bialdu oi ditu Jaungoikuak, eta Altza'n ere auxe gertatu da aurtengo erriko pestetan.

¿Zer dala ta? Pixkaka, pixkaka oroitzen naizena esango det. Igaro dan urtia urte gogorra izan da Altza'tarrentzat.

Eriyotz beltzak maiz agurtu gaitu aurtengo urtian, erriko gizonik maitienak berarekin eramanaz (Goyan bego) eta gure biyotzak orregatik zauden negar malkoak beterik.

¿Nola alaitu biyotz oyek?

Erriyan gertutu edo egin dana esan eta ikusiko dezu.

**Eleizan**

Kanpotik ederra eta barrendik ederrago dan Eleiza eskian zegon, eta Aldare berri eder bat eskatzen zuan. Aldare berri ori jarri degu eta Eleiza orrela ikustiak poza eta alaitasuna ekarri du erri guztiyarentzat. Urre koloreko aldare ederra ekarri dute. Dana da polita, baña batez ere Oteundegi edo gure jaun aundiyaren txabol txikiya. Marzial Deunaren bi aldietan jarri dituzten Jesusen eta bere Amaren irudiyak, biyotzak agiri ditutztela, aundiyak eta ederrak dira. Eliz guztiya ere txuri urdiñez jarri dute; urdiñak zeruaren itxaropena eta txuriyak garbitasuna oroitzen eta agertzen digutela.

Zorionak, batez ere gure Artzai Pagola'tar Meliton jaunari.

-Beste poz-atsegiña gure apaiz gazte Mujika'tar Jose Maria'k aukeratzen digu, erriko ume eta gizonak abeslari trebe biurtzen ditula.

Zenagotik ere gauza ederrak eta ederki abestu zituzten, baña San Marzial eguneko Meza eta beste abestiyak kantatuaz txapeltza bikaña eta erri guztiyaren txalo beruak irabazi zituzten.

Bigarren zoriona bada oyentzat izan bedi.

Eriyotzak maiz agurtzen gaitula lenago esan det eta orregatik nunbait erriko Kanposantua dana betia zegon. Buru zaindariak aunditzia erabaki zuten eta baita egin ere. Orrela, bada, S. Isabel egunian Gipuzkoa'ko Gobernadore Chacon jauna etorri zan erri guztiya bildu zanian Erretore jaunak puska berriya bedeinkatu zuan. Ondoren Perossi'ren "Liberame" ederra, erriko abeslariyak, Laborda'tar Erramun eta Garbizu'tar Liborio'ren laguntzarekin, Mujika'tar Jose Maria jaunaren mendian abestu zuten.

Irugarren zoriona bada gure alkate jaun eta bere laguntzalliarentzat izan bedi.

**Beste pestak**

Kanpoko pestak Pedro Deunaren egunian izan ziran.

29. Loyolatarrak partidu eder bat jokatzera etorri ziran. Azkue eta Etxenike emengo Otaegi ta Orruño'ren kontra. Gogor jokatu ondoren

Loyolatarrak txapeldun, bi tanto gatik: 22-20. Gero dantza-soka polita gaztiak, aurrelari Elizalde eta atzeko Mujika'tar Balendin zirala. Oso ederki.

30. Egun ontan goizetik Donostiko "Armonia" deritzayon soñu jotzalliak erriya alaitu zuten. Gero amarretan Aldariaren bedeinkaziyua eta ondoren Meza ederra Perossi'ren Bigarren Pontifikala abestuaz. Sermoya A. Laskibar, erriko semiak izandu zun, danak pozez utzirik.



Luistarrak Altzako frontoian. 1930 aldean. Erdi-erdian, behean, Shanti Zugasti. Meliton Pagola eta Jose M. Mugika apaizak. Hauen ezkerrean, Balentin Mugika. Banderarekin, Antonio Mugika. Goian, eskuinetik, 1. Rufino Roteta, 3. Sebastian Elizalde, azkena Pio Iruretagoiena. Banderaren azpian, Jose Elizalde; ezkerrean Segundo Goikoetxea. Eskuinaldean, Jose eta Luis Alkiza. *(Iturria: Kontxita Alkiza)*

1. Egun ontan arratsaldian bi partidu.

Lenengoa, Elizalde eta Murua alde batetik, bestetik, Lopetegi eta Zubizarreta zirala. Bigarrenak txapeldun, 22 eta 12 gelditUaz.

Bigarrena, Alkiza ta Berra, Ramon eta Arrieta'ren kontra. Lenengoak irabazi zuten 22'ra bestiak 9'an utzirik.

Ondoren umiaren soka dantza. Oso poliki egin zuten.

2. Amarretan Meza nagusiya Perossi'ren "Requiem"'eko Meza kantatuaz, erriyan il diranegatik. Gero Kanposantuaren bedeinkaziyoa. Arratsaldian partidua, lenengo egunian irabazi zutenak.

Berriro Akiza'k eta Berra'k 14'ian utzi zituzten Lopetegi eta Zubizarreta. Obek gaztienak eta txapeldun. Zorionak.

Ondoren Txirrita eta Borak [?] beren bertsuakin naiko parra egin azi ziguten.

Egun guztiyetan dultzaina eta txistua ugari jo zuten.

-Lenengo igandian Luistar batzuk Ormaiztegi'ra juan giñan. Gure Mujika'tar Balentin'ek itzaldi beri batian bertako eta erri guztiyetako Luistarrak su beroz bete zitun.

Gure bandera ederra ere an ibilli genun.

Ango pesta beste norbaitek idatziko du eta ez der ezer esango.

-Gure artian agurtu ditugu Burgos'tik etorrita Kasares'tar Juan apaiz gaztia eta Komillas'tik etorrita Zugasti'tar Juan apaiz gaiya.

Ongi etorriyak eta udara on bat opa dizutet.

[56]

*Argia*, 1929-07-29 - 431. zbka.

**Arrano**

¿Zer?... Ezer ez, aste onetan Altza gaiñ ontan. Nere zerrautzez [?] beteta zagon "kaxko" ontatik ez du beñepain ezerez irten nai. Bañan bai, oraintxe oroitzen zan lengo igandian ikusi nuan ikusgarri ederra. Altza'ko aitonak eta aitak Jaunartzen, lepotik bera Jesusen Biotzaren irudia, danen aurrian bildur gabe erakutzirik. Zer ikusgarri ederragorik!!

Zeñen ederki erakusten dizkiguten gure asabaren oiturak. Lengo euskera, euskalerri eta euskaleko oituraidi begiratu ta poz atzegiñez bete-

tzen zait biyotza. Oroingo euskera euskalerri eta oiturak ikusi ta ¿zer egingo det? Zuek esan.

-Baserritarren arpegiak egun auetan izan ditugun beruakin, illun xamarrak jartzen aziyak ziran, bañan gutzaz beñere astutzen ez da Jaungoikua, beren otoitzetako eskaerak noski, ur ederrarrekin ordaintzen azi da, eta irribar gozua nun nai ikusten degu.

Oraingo eudi ederra
Jaunak du bialdu,
Zuen mendeko gauzak
Ez ditezen galdu.
Eskerrak emotiaz
Ez zaitezte astu,
Eman dizunak berriz
Ez deizkitzun kendu.

[57]

*Argia*, 1929-08-04 - 432. zbka.

**Arrano**

**Santiago eguna**

Egun ederra Españiko gustiyentzat. Eliz eguna sinismen pixka bat dunentzat. Orrela izandu zan Altzatarrentzat egun onen goiza. Baña arratzaldia? Berezibili edo diralako oyek: ez dakit berak baño bestiak ibili azi zituzten beñepein eta bakarrik gelditu giñan arratzaldeko Eliz jayan.

**Igandia**

Luistarren jaya. Bai pozagarria. Bazirudin lengo igandian Luistar askoren biyotzak gure Jaungoikoak bigundu zitula, Jaun ori bera beren biyotzetan artzera deituaz. Iru ogetik gora izango ziran jauna artzen. Ez al da edertasuna? Egun onetan eliz pestak bai bañan, kanpoko pestak ere izan ziran.

Amarretako Meza ondoren pelota joku bat ikusteko poza izan gendun.

Artxipiko Luis (pelotarien tartian ezaguna), Pelegriñeneko Luis eta Zoriontegiko Elizalde'tar Bibianoren kontra. Bi baten kontra. Eta

amaika ikusteko etorri giñan ludi onetara eta au ere ikusi degu, "bikuak galdu!!". Asieratik sarrera gogorra egintzun batekuak, eta zazpin-a berdindu bazien ere partidu edo joku gustian bakarraren garaitasuna garbi agertu zan. Bejondaizula Luis. Azkeeneko ostikua Bibianori eman diyozula uste det.

"Primo" lenago zerbait baziran [?] baña urtiak eta aurreko ateraldi orrek pakian bizitzeko ezaten [?] dizute. Baskal ondoren Martillungo Migel txiki Aizpurutxoko Juanitoren kontra.

Migel txiki txapeldun. Osabaren tokiya emendik aurrera ik bete biarko dek.

**Ezkontza**

Auzokalteko Arrieta'tar Maria, erri ontako alaba, Arregi'tar Pedro'rekin ezkondu da. Urte askotan zorioneko bizitza opa diegu.

[58]

*Argia*, 1929-08-11 - 433. zbka.

**Arrano**

**Deun Iñaki**

Egun ontan txoriyaren alaitasuna ere gurekin genubela esango genuke. Bai egun ederra danantzat, baña batez ere euskaldunentzat.

Ludiyan ain aundiya dan eta Zeruan ain goyen dagon Euskaldun Santu oni gure eskaerak eta opariyak egitera, goizetik Elizara joan giñan.

Amarretako mezetan, Perosiren bigarren Pontifikal'a ederki abestu ondoren, su ta gar gure zaindariaren martxa ederra abestu gendun Altzatar guztiyok.

Alde guztiyetan euskaldun biyotzak poztutzen ditun kantu eder onek, egun ontan irri bat gozoa gure españetara irten asi zun.

**Igandian**

Illaren lenbiziko igandia eta Mariaren Alabaren jaya. Irurogei ta amarretik gora izandu ziran egun ontan Jaunartzen. Orrela biar da; orrela maitatu eta gurtu biar dezue Jesus Mariaren bitartez.

Lerro obek idazten ari naizela, Ama Birjiña guztiz garbiaren irudi eder bat gure Eleizara ekarri dutela entzun det.

Mariaren Alabak ekarriya izan biar du eta pozez egongo dirala esan biarrik ez dago. Gu ere poztutzen gera.

-Juan dan ostiralean, Goikoetxea'tar Migel, Altza'ko sekretayo izanduaren oroigarritzat urte beteko eliz jaya izandu zan. Ez gaitezen beñere gure lagun txar obetzaz astu eta lerro obek irakurtzian otoitz Jaunari eskeñi.

**Jayotza**

Zoriondegin, Aingeru polit bat jayo da. Zorionak bere aita-ama Kasares'tar Jose eta Elizalde'tar Gabriela'ri. Eta zuri, Josetxo, Zoriontegin jayo zeran ezkero, zorionak bizitz onetan jarraitu deigula eta gero egiyezko zoriona zeruan iritxi dezazula opa dizugu.

[59]

*Argia*, 1929-08-18 - 434. zbka.

**Arrano**

**Alaba'ra**

Bere lagunak erri aldera etorri diranian, Kasares'tar Juan jauna Oikia [sic] eta Izarzako erretore izendatu dute.

Anima asko zerudatu, ondo igaro eta lenbailen etorri.

-Gure baserritarrak, sagar eta baserriko beste gauzak gordetzeko zaindari bat biar omentzuten, eta erriko buru nagusiak, baserritarren eskaera entzunik, Etxabal'tar Roman-gan begiyak ipiñi zituzten; eta orra gure baserritarrak beren zaindariarekin.

Izpazter (Bizkaya)'tik Altza'ra etorri bazera, ez negarrik egin; emen bezelako tokirik iñon ez dezu billatuko eta.

**Igandian**

Illaren lenbiziko igandia eta Mariaren Alabaren jaya. Iru ogei ta amarretik gora izandu ziran egun ontan Jaunartzen. Orrela biar da; orrela maitatu eta gurtu biar dezute Jesus Mariaren bitartez.

Lerro obek idazten ari naizela, Ama Birjiña guztiz garbiaren irudi eder bat gure Eleizara ekarri dutela entzun det.

Mariaren Alabak ekarriya izan biar da eta pozez egongo dirala esan biarrik ez dago. Gu ere poztutzen gera.

-Juan dan ostiralean, Goikoetxea'tar Migel, Altza'ko sekretayo izanduaren oroigarritzat urte beteko eliz jaya izandu zan.

Ez gaitezen beñere gure lagun txad [sic] obetzaz artu [sic] eta lerro obek irakurtzian otoitz Jaunari eskeñi.

-Ama Birjiña eguneko pestak igarotzeko, Zugazti'tar Juan Aizarna'ra itzuli zaigu. Ondo ibilli.

Eriyotza

79 urtekin iltzan, Kataliñene baserriyan, Arrieta'tar Marzial. Bere illetak astelenian gure eliz nagusiyan izandu ziran.

Arzazute, bere señidiak, lerro obetatik bialtzen dizuten zuen atsekabearen laguntza; eta zuek, au irakurtzen dezutenok, otoitz bat bere animaren alde.

[60]

*Argia*, 1929-09-01 - 436. zbka.

**Arrano**

**Ama Birjin eguna**

Gure Zeruko Ama goratzearren, amarretan Meza eder bat izan zan, Perosiren bat eta Usandizagaren "Ave Maria" polita "ofertoyuen" [?] abestuaz.

**Joan etorriyak**

Lengo larunbatian, irakaslia buru zutela, Eskola-umiak Igeldon izan ziran. Ayek bildurrak noski "montaña rusa"n gora beraka (Euskeraz nola esango ote lizake montaña rusa?). Kasares'tar Juan, Okina-Izartzako apaiza eta emengo Mujika'tar Jose Mari jauna ere an ziran.

-Martillun'go alaba Elizalde'tar Tedore Zumayako Karmen'darren lekaime etxian sartu da. Pizkor iraun.

-Aizarna'n egun on-on batzuek igarota etxeratu da Zugazti'tar Jon apaizgaya. Berriz ere joateko gogoa ekarri du.

-Lanziego erabat utzita, emen dabil Zugasti'tar Anike ta apaiz gastea. Aspaldiko "Lan itxu". Erritik inguruan degu emendik aurrera, Pasai S. Pedro'ko mojatxuen apaiz egin dute-ta. Zorionak.

**Luistarrak**

Aupa mutillak! Zumarraga'ra gustiyak Agorra'ren amabostian. Beste gauza askotan alperrik gastatzen dan dirua ontan gastatu obe dezute. Euskeraz bi itzaldi izango dira: ba, lege gizon batek; bestia... langille batek... "Altza'tar batek". Zumarraga'ra, bada, beruak su-ta-gar jartzera, epelak berotzera, gustiyak luistar zintzoak gerala argi-ta-garbi azaltzera.

Beste erriyetatik jende asko izango da. Altza'tar Luistarrak ez atzera gelditu.

-Andoain'go euskal asterako.
Ara emen bildu dana:
Uria'tar Iñaki: 2 laurleko.
Landa'tar Pablo: 1.-
Maritxalar'tar Meltxor: 1.-
Alkiza'tar Joseba: 3.-
Alkiza'tar Joxe Luis: 1.-
Alkiza'tar Joxe Mari: 1.-
Alkiza'tar Koldobika: 5.-
Elizalde'tar Sebastian: 2,50.-
Lasa'tar Maurizio: 1.-
Mujika anaiak: 5.-
Zugasti anaiak: 5.-
Gaurdaño: 27,30.-
Eman nai dunik iñor bada Alkiza'tar Joxe eta Mujika'tar Balendin'engana juan ditezela.

[61]

*Argia*, 1929-09-22 - 439. zbka.

"Arrano" Altza'ko berri-idazlia udarako opor-aldiya bere etxian, igarota, ikasketak jarraitzera juana izango da zuek au irakurtzerako.

Negutian lan asko egin, "Arrano", ta urrengo udaran onera zatozenian, ego-muturretik edo luma bat aterata, berriz ere jarraitu gure erri maite ontako berririk jakingarriyenan ain poliki ematen.

-Il zan Balerdiene'ko etxeko andre Arzelus'tar Kandida. Bere illetak illaren aurren-aldian izan ziran. G.B.

-Erri ontako Maria'ren alabak Arantzazu'ra dijuaz il onen 29'an, Mikel deun egunez, beren zuzendari Pagola'tar Meliton jauna buru dutela. Bi beribil aunditan egingo dute ibillaldiya. Egun ortarako abesti xorta ikasi ta gertutzen gogor eta sutsu ari dira.

-Ara lenguaz gañera, Andoain'go euskal asterako diru zerbait:

Lendi: 27,50 laurleko.
Aizpurua'tar Leandro: 5.-
Ansa'tar Juan: 1.-
Usobiaga'tar Anakleto: 1.-
Santamarina'tar Emilio: 3.-
Arruti'tar Erramun: 2.-
Arrieta'tar Luis: 2.-
Arrieta'tar Manuel: 1.-
Mujika'tar Jose: 2,50.-
Mujika'tar Jose Mari: 1.-
Labaka'tar Nikolas: 1.-
Roteta'tar Bitoriano: 1.-
Errauskin'dar J. Manuel: 1.-
Arzak'dar Bernardino: 1.-
Murua'tar Estanislao: 1.-
Orbegozo'tar Praixku: 1.-
Apalategi'tar Lontxo: 1.-
Legiñena'tar Txomin: 1.-
Maiz'dar Joakin: 1.-
Atorrasagasti'tar Juan: 1.-
Arrieta'tar Nikolas: 1.-
Bera'tar Martxial: 0,25.-
Mujika'tar Xanti: 1.-
Elizalde'tar Xanti: 2.-
Zugasti'tar Anselmo: 1.-
Elizalde'tar Fabio: 1.-
Larraundi'k Baxilio: 1.-
Guztira: 64,25.-

[62]

*Argia*, 1929-10-13 - 442. zbka.

**Iturri-goxo**

Uda azkena etorri zaigu, eguargia moxtuaz eta neguko illuntasuna edierazten digula. Beren oporraldia igaro ondoren batzuek ikastetxe batera bestiak bestera aldegin dute gure ikasle maiteak ondo ibilli eta asko ikasi; ikasle oietako baten udara aldia ere eztu alperrik igaro, au idazten

ari dan txatxu onek, baño txukunago idazten ezta makala izan txintxo asko bialdu dizkigu Altza'ko berriak Arrano izenpetua.

Tamalgarria izango litzake mutututa geldituko bagiñake, ez genuke lotzik eta biotzik izango Andoain'go Euskal egunian Eguzkitza apain jaunari eta Altzera trebiak egin zituzten itzaldi mamitsu eta sutsuak entzun genituan erir ontako Euskaltzaleak.

Aspaldian ezin idatzirik egon naizen onek berriro ere astera eman det ¡eta! "Altzatar" ia biyon artian ARGIA onetan gure Altza maitia biar dan lekuan jartzen degun.

**Zarren omena**

Juan dan astian zortzi emengo zarren omenez jai pozkarri bat izan zan. Txit atsegin zaizkigu jai abek. Dezakenak eta gaztiak geranok biartuak gaude zar oien bizkarreko urtien aztuntasuna arintzen; obeto egingo luteke aurpegia autzez igurtzi eta pintatzen dirua ematen duten oiek burua txuritu eta soilduta daudenai berekin daukaten laztasuna leuntzen saiatuko balira.

-Igandian zortzi emengo Mariaren alabak Bikario jauna buru dutela Arantzazun izan ziran. Gure zaindariarekin babesean egun on bat igaro omen zuten. Gero etxerakoan Loyola'n ikustalditxoa egiñaz eta Zumaia'n bere lagun Teodora Lekaimea agurtuaz etorri ziran.

-Igande berian Aitzgorri'n izan dira Elizalde eta Muxika ezagunak. Aralar'en eta beste mendi askotan ere izan dira ¡Aurrera! ori dek Jaungoikoak guri emandako gauzak aintzakotzat artu eta maite izatea.

¡Gora Eusko mendigoizaleak!

[63]

*Argia*, 1929-11-03 - 445. zbka.

**Iturri-goxo**

Datorren igandian mixio eguna degu erri ontan.

Gai ontan danok gaude biartuak aldana laguntzera, Jaungoikuak aginduta bai daukagu lagun urkoa maite, eta berari laguntzeko. ¿Eta nor sinismen egiazkoa ezagutzen ez duana baño errukarrigorik?

Mixiolariak beren etxia, sendi, lagun, danak utzita an dira juanak anima gaxo aiek Kristorentzat irabaztera, eta zenbat lan egiten duen eta zenbat egiteko daukaten esaten ezta errez.

Goizian irten mixiolaria bere estalpe beartsutik eta an dijua erriz erri, bazterrik bazter, mendirik mendi, eguna neke astunetan, laztasun gogorrian, arraxku aundietan lan egitera, eta eguna igaro ondoren biurtzen da berriro bere estalpera, eta nekatuba egon arren, ez daka astirik atzeden pixka bat artzeko ere: eskuarte pixka nai luke eta nola ez baidakan, berriro Jaunari otoizlia dago eta guk orrela dabillenari ez aldiogu lagundu biar! Au izango litzake gerez kristauak izan arren etsaien lagun agertzia.

Euskal erriak len ere mixiolari asko eta bulartzuak eman ditu asi Xabier'ko Prantzisko deun aundiarekin eta Berriotxoa'tar Balentin, Legazpi, Urdaneta, Lizardi, Lertxundi, beste askoren artian.

Eta oraiñ ere bai badauzkagu lanean gogor ari diranak eta oien artean nor da Aita Laskibar eta Zapirain anaia, ezagutzen ez dituan Altza'tarrik? Oiek ere an dabiltza ba neke oietan. Laguntza eske gure erriaz oroitzen dira, eta zu ¡Altzatarra! zuk zere laguntza ukatuko ote diozu? Ukatzen badiozu ara zer egin bear dezun, artu biotza, eta sakelian gorde eta orduan nola soñian ez daukazun biotzik esango dizugu etzerala jateko ona. ¿Baña Altzan au gertatu? Ezta... ezta!... Altzan mixio egun utza datorren igandia.

[64]

*Argia*, 1929-11-24 - 448. zbka.

**Altza'tar**

"Iturri-goxo" idazle trebeak iragarri zuan bezela, ill onen 3'an izan genduan altzatarrak Mixio-eguna.

Egun ontan bada, goiz goizetik eta oso sarri azi ziran Jaun artzeak bi txadonetan, ikusten zala, notin asko Mai Santura biltzen. Nik uste det erri geiena bildu zala.

Meza nagusiak bi elizetan ederrak izan ziran, bietan itzaldiakin. Gero arratsaldean ordubiterdietan, batu ziran bi txadonatakoak Santa Barbara ermitatxoan eta andik ibillaldia eder eta pozgarri batean bildurik Deun Marzial'en txadonian. Emen puntzio labur bat egiñ ondoren, Mixioko eta Luistarren batzokian eta, notiñ askorekin izan ziran Mixio'etako ikuskizunak.

Zorionak eliz gizon eta gañerakoai, aiñ ederki egun ori antolatu eta aiñ emaitza ugariak emango ditulako, eta danok poztu gaitezen aiñ anaitasun aundian egun au igaro gendualako.

**Izpar beltza**

Gaxorik luze-xamar egon ondoren, il da Aizpurutxoko Berra'tar Joxe Manuel. Bere illetan jende asko bildu zan, onela adierazirik zeñen lagun asko zituan. Bere lantegiko lagunak Meza eder bat atera diote igaro dan igandean. Laguntzen diegu bere sendikoai atsekabe onetan. (G.B.)

**Saski-naski**

Luistarren gogo jardunetan izan degu Loyola'n Orbegozo'tar Kasildo, emengo luistarra. ¡Jarraitu gazteak! Baita ere etxe Santu onetan izan dira Luistarren batzarrean, Mujika'tar Balendin izlari azkarra. Gauz egin bearrekoak an azaldu ziran noski.

-San Pedro erri pollitara juan zaigu bere amarekin, len izendatuta zegon Zugasti'tar Anixeto apaiz gaztea. Zorionak gure auzokoai ain apaiz jator eta abezlari bikañaren "jabe" egin diralako eta... lagun zar, lengo "kaskora" ere iñoiz etorri eta or arrai goxuak diranian oju bat egin.

-Etorri dira bizitzera Amasa'tik emengo apaiz langille D. Jose Maria'ren anai arrebak. Ongi etorriak.

-Egunero jende asko bildurik eta oso elizkizun ederrak egiñik, egin da Animaren bederatziurrena. Oso ederki erantsun du jendiak eta jarraitu berriro ere orrela.

-Emengo euskaltzaleak geren irakasle dan Arana-Goiri'tar Sabin'eri ezkeiñ nai diogu Meza bat. Iragarriko da egunerokuetan noiz izango dan.

[65]

*Argia*, 1929-12-15 - 451. zbka.

**[Su-emantzalle]**

Herrera.- Nere ARGIA'ko maiteok, agur. Lenago ere idatzi izandu det ARGIA'ra eta ez det damurik izan, geiagotan eziñ idatzia baizik, poz orrekin astera nua berriro Jainkoa lagun.

Lenago ez nuan Alza'tik idatzi, Ernialde'tik baizik, bada oraiñ etorri baigera andik onera bizi izatera. ¿Ez aldezute Alza'ko Mendiola'ren



Altzako "Mariaren alabak". 1930 aldean. Besteak beste, Meliton Pagola apaiza, Patrixi Elizalde, Illarregiko Joxepa, Maria Arruti, Nati Arzak, Juanita Elizalde, Juanita Goikoetxea, Pilar Arruti, Roxali Arrieta, Emerita, Maria eta Romana Roteta, Ximona eta Kontxita Alkiza, Ramoni Elizalde, Bitxori Olaziregi. *(Iturria: Pili Esnaola*)

berririk? Etzerate orduan Donostiko eiztariak, eta Ulian aruntz Pasai aldera askotan pasa zeratenak ere, baña gertatzen bazaizute inguru ontatik igarotzia poz aundia artuko det ezaguera ematen badidazute, sagardo goxo goxua ere badaukagu eta oinbesterekiñ badakizute...

Ni ARGIA zale eta euskelzale bero oietakoa naiz, baño oraiñ arte izan dedana eta aurrera izango detana, asko lagundu eziña da, baña alegiñ egin ezkero ez daukagu geiagoren zorrik, eta orretarako beti prest nago.

Orain nai nukiana da, Alza gure erri berri onetan, eta batezere Errera'ko parroki maite onetako, jendiaren artian, ARGIA bikaiñ au indartu, edo obeto esateko sartu, bada aiñ egin biardu atzera, negar guria ematen du, baña orretarako biar det zuen baimena eta laguntza Jaungoikuarenakin batian.

Lenago gogoratzen naiz irakurri ditudala noizbait Errera'ko berriak, Alza'kuak prankotan, baña nola ez gendekigun lenago nun ziran ere ez giñien jaramonik egiten, eta orain ez dakit ez zenbat bider idatzi duten, ez zein diran, idatzi dutenak, edo ze izen ordegaz ezagutzen diran, ez ta ere zenbat arpidedun dauden gutxi gora bera Alza guztian; orra bada nere jakiñ miña azaldu emendik ARGIA'rako berriak idazten asterako, bestela ez baitakit nundik asi, ia bada zerbait argitzen nazuten, eta erakusten didazuten nundik eta nola asi biar dedan.

[66]

*Argia*, 1929-12-22 - 452. zbka.

**Altza'tar**

Asko poztu gera irakurri ditugunean lengo asteko ARGIA'n Altzako beste idazle baten lerroak. Poztu; batetik ikusirik badirala euskera maite ontan emengo berriak azaldu nai dituztenak eta baita ere guri onela lan au pixkoat arintzen lagunduko digutenak. Jarrai bada, eta erri onen tontorretan bizi geran ezkero, egaztiak goietatik nun jana billatzen duan bezela ia guk ere beste idazle trebe "Iturri-goxo" lagun degula geren "atalaitik" altzatarrai ematen ote dizkiotegun uri ontako gora-berak. Beste tontor alde abetan ere ari gerala sagardo goxuak prestatzen, eta, etorri.

**Izpar beltza**

Beste beiñ ere berri mingarri bat eman bearrean arkitzen gera. Au da Larrarte'tar Petra andrearen eriotz berria. Gertatu da Araba'ko erri txiki batian; bada ara bizitzera juan zan bere seme eta gure lagun Kasares'tar Jon apaiz gaztearen eta onen arrebaren aldamenera. Bere illetan jende asko bildu zan; oso ezaguna zan erri onetan-ta. Laguntzen diegu atsekabe onetan bere sendikoai eta batez ere gure lagun Jon jaunari.

**Beste batzuek**

Il onen aurreneko igandean emengo Luistar mordoxka bat izan dira Ernani'ra ango luistarren laguntalde berria sortzen zala-ta. Guztiz jai ederra antolatu zuten, aurrena elizan, eta gero beren batzoki ederrean. Bertan itzaldi batzuek izan ziran eta aien artean oso ederki bere itzaldia egin zuan emengo Luistar jator Mujika'tar Balendin'ek. Beragatik txalo ugariak entzun zituan. ¡Bejondaikela!

-Gure artean izan degu Agote'tar Pedro emengo seme eta Aizarna'ko apaiz gazte langillea.

-Gaxorik arkitzen da, oso ezagun degun Matxikar baserriko Mendizabal'tar Jose Joakin. Lenbailen bizkortu.

[67]

*Argia*, 1929-12-29 - 453. zbka.

**Ni emen**

Arrituta gelditu giñan aurreko igandeko ARGIA'n guk idatzitako itxuran, Errera'ko berrietan zetorren salla ikusi genduenean, ez dakit nor izango dan baño gu ondo ezagutzen gaituen bat da dudarik gabe.

Lenago Ernialde'tik idatzi zuela esaten du, oraiñ ere bialduko baziñu ango berriak a zer pozik irakurriko ginduzkean, eta ¿zer uste dezu zuk? Alza'ko Mendiola'ren berri, ez dakitela Donosti'ko eiztariak eta Ulian pasiatzen dutenak baizik, bai beste bakiñabatek ere lenaz gañera guk ezagun eta aide asko degu baztarretan, eta itz bidia etorri dan ezkero, ARGIA'ren bitartez danari eskumuñak.

Euskelzale eta argizale berua bazera ez alzenduan besteren izenian asi gabe, zer esanik billatzen ARGIA'ra biltzeko, zu dotore pasako ziñan ni ixilik egon ezkero, baño ni ere zu bezin yayua ez izan arren, dozena erdi bat urtian kaskarreko ederrak artuaz eskolan ibillia naiz eta zirriburru batzuek egiten ikasi genduen Jaungoikuari eskerrak.

Eta beste gauza bat, jakin biar dezu, etzerala iñor zu gure sagardo goxuakin jendia gonbiratzeko, geron gauzakin gerok agintzia gustatzen zaigulako, baño etortzen bazera nor zeran esanez, illbera daguan arte goxuak mikatzak daudek probatzeko ez barrika batetik baizik dauden danetatik emango dizut.

Batedonbat asi da
bazterrak nastutzen
orlakoak ez dira
aisa ezagutzen
nere izenian zu
etzera pasatzen
nai dezunian asi
okerra zuzentzen.

Arriya tira eta
eskua gorderik
ez deidazula egin
berriz orlakorik
zu zeran bezelako
idazlia izanik
¿ez alzendun billatzen
beste zer esanik?

Mendiolatarra ni naiz
lengua ez baña
ateraldia egiñ
dezu alajaña
ARGIA'ra idatzi
nai dezun aña
badezula uste det
batek ainbat maña.

Santo Tomas pasa da
Gabon da Eguarrik
tartian igandiak
laxter urte berrik
Erregenetan ere
bi jai bakarrik
denok ondo pasatzia
nai nukiana nik.

Baldar egin det baña barkatu, ARGIA'n badakite nola zuzendu.
Bizi bizirik.

[68]

*Argia*, 1930-01-12 - 455. zbka.

**Su-emantzalle**

**"Ni emen" idazle berriari agur**

Agur, bai agur, biotz biotzetik, "Ni emen" maite ori. Naiko bildurraz jarri nintzan, oraintxe ere, alperrik tira ote nuan zuk esaten dezun arri ori, bada zai egon nitzan, aurreko ARGIA'n, eranzuera latzenbat ikusiko


ARGIA
ASTEROKOA-DONOSTIA


Euskaleriko beriak

GIPUZKOA

GALLIOL

Negurako
"Zira-olioztatu"
Trintxerak
80 45
New England

BANCO GUIPUZCOANO
JABIEN ARTEKO DIRUTZA: 25 MILOI PESETA
ORDEZKARIAK:

ERBITI-ETXEA
PIANOAK EDOZEIN MUSIKA-GAI
PIANOLAK
GRAMOFONOAK
PILARMONIKAK
DONOSTIA

Ongarriak (abonuak)

PIERCE

Uzkudun

EZ AL DEZU SUDURETATIK ARNASA ONDO ARTZEN?
Sudurretatik arnasa ez ondo artzeak osasunari kalte izugarria ekarri leioke, zergatik dan gaxo dagonak ez dakiela.
Dr. ASUERO'k ... BIRKA
oso ona da gaitz ontarako
Askoka mai duanak eskatu
Ronda, 4 BIRKA S. A. DONOSTIA

Dr. ARRIETA
Prim kalea, 19, 4.
DONOSTIA

(Gran Hotel Central)
JATETXEA
DONOSTIA

TOLOSA

Irakurri "Argia"

ote nuan, nik merezi bezela, baño etzan iñundik ezeren aztarnik azaldu, baño lenguan ¡ura poza! nere buruari ala esaten nion orainguan orregatik asmatu diat; ulertzen jarri ezkero igarriko diozu zergatik zan. Esaten nuan Herreran nai nukiala ARGIA indartu edo sartu, eta orretarako gauzik indartsuena euskelzale askoren edo danen ustez, errietan idazke asko-asko izatea eta maiz zerbait idaztea baita. Lan orretarako gai ziñala iruditauaz, zirt edo zart, aterazi biar zindutalata idatzi nituan lerro biurri ayek, eta bai aterarte atera biar bazan. Olerki eta guzi gañera? Biajondaizula. Orrela nai det nik, orrela. Asi banitzan asi, entzun ditugu epelak. Arrazoi aundiarekin. Jarrai bada aurrera zintzo Herrerako berriak bialtzen, or beste aldetik ere laguntzeko agintzen dizuten ezkero, Altza'tar pozak dago aidanian, eta Iturri-goxo ere ez da noski negarrez egongo ni ere, opor alditxoak zaitzen aleginduko naiz, eta danon artian emengo autsak astinduko ditugu. Gaizki egiña azketsi, baño oraindik zauri aunditsua badaukazu, nik badaukat etxian bonbill bat bete "tintura yodo" eta ura aitzerako zure zauria baterez. Orduantxe esango dizut nor dan, Su emantzalle.

[69]

*Argia*, 1930-01-26 - 457. zbka.

**Altza'tar**

Gure artean asiera zitala eman du urte onek bada egun gutxitan eriotza maiz azaldu da alde abetan. Beste batzuen artean izan ditugu Eskalantegi baserriko Margarita emengo Mariaren Alaben batsordekoa. Beren sendikoak ondo ikusi dute bere obiratzen eta illetan; zenbat adiskide zituan. Il onen 10'an berri gure artetik juan zaigu betiko Zumalakarregi'tar Pranzeska.

Zein zan uste det azaldu bearrik ez dala izango. Altza'n eta baita ere Errenderi, Pasai, Donosti eta beste erri askotan lagun asko zituan, eta batez ere guk bere lagunak ondo dakigu zeiñ kristau zintzo eta euskelzale sutsua zan. Bere ezagunen artean etsairik izan ez zezakeen gizon zan. Beste euskotar jator bat gutxiago! Esango degu Kampion jaunarekin batera: "Batzuek badijoaz; besteak etorriko dira?"

**Beste batzuek**

Gaxorik arkitzen da Muxika'tar Balendin erri ontako Luistar eta izlari jatorra. Lagun zar, lenbailen osatu.

-Maritxalar'tar Meltxor ere arkitzen da gaxorik Elizakoak artuta.

-Il onen 11'an ezkondu da Artxipi baserriko Arzak'tar Luis, Ariztizabal'tar Joseba neskatillakin. Zorionak.

-Gure artean izan ditugu Agote'tar Pedro eta Kasares'tar Juan apaiz gazte jaunak.

-Emengo nekazariak ondo ospatu dute San Anton eguna. Goizian 8'terditan meza edo amarretan Meza Nagusia zutela. Ondoren asko bildu ziran ostatuetan baskaltzera.

-Upel eta barrikak asi dira beren barrengo sagardo goxoa eskeintzen, bañan jendeak oraiñ artian arrera ots xamarra egiten dio.

-Emengo Luistarrak dute gaur beren illeroko Jaun artzia. ¡Ez utsegin mutillak! Erri ontako euskelzaleak beren lagun Zumalakarregi'ren alde Meza bat atera nai diogu. Adieraziko da zeiñ egunetan izango dan.

[70]

*Argia*, 1930-02-16 - 460. zbka.

**Altza'tar**

(Lengoan etzan tokirik.)

Gaur arratsaldean eta Luistarren antzokian berak antolatu-ta, izango da antzerki jai eder bat, Gazteizko Seminario berria egiten laguntzeko. Antzeslariak izango dira oso bikañak onetarako zabaldu diran paperak azaltzen duten bezela.

Ikusten dezute beste errietatik zeñen ederki erantzuten ari diran onetarako gure Gotzai agurgarriak egin dun deiai, eta beste erri batzuen artean gure auzo Lezo'arrak ez "mantzuena".

Beaz guztiok etorri gaur jai eder ontara, baña "Costxo" beroxamarrakin bada Altza'tarrak orain arte aurrera xamar ibili izan gera gai abetan eta gañera aspaldian erri ontako apaiz agurgarri askok beren ikasmenak egin dituzte eta baita orain ere ari dira.

**Izpar beltzak**

Il da aurreko zenbakian gaxorik arkitzen zala esaten genduan Maritxalar'tar Meltxor. Oso mingarri zaigu berri au, bada oso ezaguna zan euskalzaleen artean, eta bere gure gauzetako maitetasuna oso sutzua.

Gutxitan ikusi da alde abetan onen obiratzean ainbat jende.

Laguntzen diegu beren sendikoari atsekabe ontan. G.B.

Baita ere joan zaigu ludi ontatik, Oyarzabal eta Ibero'tar Miren Monserrat andrea.

Oso zan ezaguna eta bere obiratze eta illetan garbi azaldu du. Otoitz bana bientzat.

[71]

*Argia*, 1930-03-02 - 462. zbka.

**Iturri goxo**

Aspalditxo ixilik egon ondoren, eta nere ez biarrak aldegin diranian berriro itzuli nai nuke, ARGIA maite onetara.

**Egun oroigarria**

Benetan egun alai eta pozgarria, Altza'ko sendi on eta ezagun batentzat, eta aiekin batian, beste an ziran guztientzat jun dan astian Zumaia'n Elizalde'tar Teodora'ren lekaime sarrera zala ta igaro genduen eguna; Martillun jatetxe ospetsuko alaba zan, eta sendi au ain ugaria da, eta ainbeste ezagun dituzte, iru auto berez ibillen biarra izan zan danak aldatuko bagiñan.

Amarrak aldian meza deuna eman zigun Euskalerrian ain ezaguna dan Aita Tirso karmeldarrak Azpiroz'tar Julian bere abotz bikañarekin eta gure Mujika'tar Jose Maria apaiz jaunak lagundurik.

Itzaldia Zugasti'tar Anizeto jaunaren gain zegon, lekaime berriaren egitekua ongi bete zuan itzaldi zakon eta mamitzua igotzeko egak zirala esan zion bere jantziagatik bai egatu, egatu ori da biarrena baña Teodora guri ez utzi baizik zeregana eutsi.

Zorionak danari baña batez ere aita Jose Mari zarrari eta Santa Kruz'ekin guda mutil ibillitako euskaldun bulartsuari.

**Berri samiña**

Bai berri samiña izandu da euskelzale guztientzat Pasaian gure lagun Zubigar'ekin gertatu dana jakitia, Jaun altsua lenbaillen osatu zazu ain kristau zintzo eta euskaldun sutsua.

-Txapiñeneko Modesta ere gaxo arkitzen da. Lenbaillen osatu bedi.

-Mirasun basetxian semia izan dute. Urte askuan.

**Udalaren aldaketa**

Emen ere oraindik bizi gerala dirudi, lengo Udalaren juanera dala eta berriaren etorrera dala badago zer itzegin. Euskaldunak erne ¡gora biotzak!

[72]

*Argia*, 1930-04-06 - 467. zbka.

**Iturri goxo**

Juan dan ostiralean il ziran Andres Arrieta Garberakoa, eta Joxepa Artolategiko amona. Beren animaren alde egin ziran elizkizunetan oste aundia ibili zan. Laguntzen diet bi sendiai bere atsekabean; irakurle otoitxo bana ildakoen gogo aldez. G.B.

**Gogo jardunak**

Aste onetan juatekuak dira Loiolako gogo jardunetara emengo neskatxa batzuek, lendik ere on askuak dira baña ez bai dira gogo jardunak gaiztoak ontzeko bakarrik, onak obeagotzeko ere bai. Ondo ibili.

-Igaro dan igandian Errenterin izan giñan emengo Euskotar batzuek, Errenderitarrak "Zubigar" zanaren gogo aldez atera zuten jaupa entzuten. Altza'ko lur deunean dago obiratuba bere gorputza, eta guri Altza'tarrai beste iñori baño geiago dagokigu beretzaz oroitzea.

"Zubigar" olerkaria il zala
Euskotarrok oroitzian,
Alako samin garratza
Sortzen da gure biotzian.
Ez aztu bere lagunak,
Ingurutik igarotzian
Aita gure bat esatia
Joaten geran bakoitzian.

[73]

*El Día*, 1930-07-15

**Altza-gaiñ**

-Agur biotzeko bat guziori eta batez ere Euskal Orri ontan aurria artu didazuten eta ondoren etorri leizken idazleai. Emen nator

bada, Luzear lagunaren baimenarekin (jakiña), zuenen artean nere lerro txiro oek azaldu, eta erri ontako zerbait berri emateko asmoetan.

-Deun Marzial; gure zaindariaren omenez eratu diran jaiak, amaitu zaizkigu. Jai ederrak aurten gertatu dizkigutenak.

San Pedro goizean lerden burua jasoaz, an zegon altza (aliso) zugaitz liraiñ bat (erriak armarritzat daukan mota) erriko jaietan giñala adieraziaz.

Egun ontan pelota txapelketak asiera zuan, eta ondoren "Salve" ospetsu bat abestu zan txadonan.

Deun Marzial egunian, goiz, kale eta baserri etxeko atariak alaitu situan txistu eta tanbolin estitzuak.

Amarretan erriko agintariak aurretik... zera zutela... ¿zer uste dezute? ¿txistua? ¡bai zea! ¡¡musika!! bildu zan erri geiena txadonera. Abestu zuten bertako abeslariak guztiz ederki Perossi'ren II Pontifical, Marzial Deuna aintzatzeko, erri ontako seme Kasares'tar Jon apaiz gazteak zuan itzaldia. Naiz bere erritarren artean aurreneko itzaldia izan, oso ondo bete zuan egin bear au. ¡Zorionak!

Eresbatzak ondoren alaitu zituan gure belarriak. Arratsaldean jarraitu zuan pelota txapelketak eta urrengo egunetan ere gure gazteak bazuten nun ankak astindu.

Igandez (eguartean), aurreskularien leiaketa izan zan, aurren bigarren Manzizidor'tar Alfonso eta Goyenetxe'tar Epifani, sarituak izanik. Ori dek dantzatzia mutillak. Oek biak arratsaldean atera zuten aurrezkua guztiz bikaiñ. Pelota txapelketaren azkeneko partidua ebia zalako etzan jokatu.

-Aldaketa galgarririk zorionez jai abetan ez degu ikusten gure erri ontan. Eusko oituretan alegia.

Aurten guztiz txalogarri izan zaigu aurresku txapelketa. ¡Jarraitu ortan! Gañeontzian an ta emen enparantza basterretan len bezelaxe deadarka erroskil eta jostallu zaltzalleak, eta aldamenian irrikitzen mukizu batzuek.

Erroskill saltzallea lepoko zañak lertu biarrian ari-da ojuka gogor; bai noski ari biarko. Lengo erroskill arro gozo aiek orrenbeste deadar gabe saltzen ziran. Egia esan nik uste det uste guziak inguruan izaten diran jaietako "en serie" eta beiñ bakarrik egiten dituztela erroskill oek.

Oraiñ, bakarrik "elaiteruaren" gurdi zuririk ez da ikusten. Guk ayei egiten genion arrera ¡etzan makala izaten! Patrikan urtzeko bildurrak laster jartzen genituan "korrituan" gure sos pixarrak. ¿Eta ondoren?

Ondoren kuzkuxera orain ere egiten dutena. Umea beti ume, gaur ta biar.

-Emen agurtu ditugu jaiak igarotzeko etorri ta Kasares'tar Jon eta bere arreba Dolores neskatill gaztea.

Baita ere Ezkioga'ko eta Ullibarri (Araba)'ko erretore jaunak.

[74]

*Argia*, 1930-08-10 - 485. zbka.

**Parroko berria**

Igaro dan illaren 25'an (Santiago egunean) Amiano'tar Felix jaunak bere artalde berriari egin zion aurreneko azalpena, artzai bezela. Meza nagusian itzaldi eder batean azaldu zigun zertara datorren gure artera.

Beste beiñ ere berritzen diogu gure ongi etorria.

**Bat eta beste**

Sendia ugaritua ikusi du alabatxo batekin Usobiaga'tar Anakleto lagunak.

Era berian seme batekin Ezeiza'tar Anastasio "Koxkorrene ospetsuak". ¡Zorionak!

Luzaro xamarrean gaxo egon ondoren osatu da Atorrasagasti'tar Zelestino. Asko poztutzen gera.

[75]

*Argia*, 1930-08-17 - 486. zbka.

**Iturri goxo**

Orantxe gañian degu Iziar'era juateko eguna, Jaungoikuak lagun aze nolako eguna igaro biar degun, emengo gaztien artian gar aundia dago, eta izenak emanaz gauzak antolatuta ametzetan ere egun ori goguan dabilkitenak badira, bestien artian an izango da Altza'tar idazle azkarra eta au idazten ari dana ere bai ia bada "Itxas-aurre" jatorra Luistar idazlien batzar eta bazkari eder orretarako emengo bi lagunetzaz ez aztu.

-Gure lagun Artola'tar Joxe'ri bi urteko aingeru bat zerura egatu zaio.

-Juan dan ostiralian iltzan Etxeberria'tar Joxepa Antoni andria, erri onetan bizi zan eta aldare polita emana eta orain esker ona agertuaz ostegunian bederatzitan jaupa aterako zaio aldare ortan bertan. G.B.

-Juan dan igandian izugarrizko egastiak putre edo oietakoak zebiltzan emen, bereala esan genduan gere artian aiek Aya'ko arritik izututa etorriyak izango dituk, jarri giñan ba bertara o... ¡zer zan ura! batzuk txuriz, bestiak beltzez, bestiak gorriz ¡ura kuadrilla! gañera erregin da guzti izan biar zuten alegia erregiña edo "maestra" edo zerbait orrela biñipiñ.

[76]

*Argia*, 1930-09-07 - 489. zbka.

**Altza'tar**

**Luistarren ibillaldiatzaz**

Gure mutillak eratutako ibillaldia Itziar'ea guztiok dakigu atzeratu egin dala. Baita ere dakigu guztiok ARGIA'n eskatu digutela iritzia zer eta noiz eratu leiken.

Begira bada "Altzar" exkaxaren iritzia eta uste det emengo Luistar guziena. Luistar ibillaldi au egin leikela eta bearrekua dala egitea.

¿Noiz? Datorren Urrillan. Zer bada, egunak mostutzen dijuazela eta orko ordunete gora berako "Gure mutillak" ikaratu? Gañera emen ia urtero udazkena oso ederra egin oi-du. Ori batetik.

Begira dezagun gañera ibillaldi onek nola su-garra pistu duan Luistar biotzetan, bada aiñ argi disdikor alaitsua sortu du gure taldeetan.

Datorren Urrillan bada, egin leikela derizkiot, bada uste degu iganderen bat edo beste "libre" izango dala. ¡Ia bada, itz egin mutillak!

**Estropadak**

Beste itzik ez da entzuten alde obetan. Estropadak, tostak, triñeruak, arraunak, segunduak eta markak; eta oiek denak ondo ibili eta maniatzeko Txokolatea dala onena. Tresna oiek bear bezela erabiltzeko ez alda obia izango Pasai'ko bakallua edo legatza?... Begira geo.

**Bat eta beste**

Sobron ur etxera joan dira Juanes'tar Jose abeslari bikaña eta baita ere Alkiza'tar Luis. Ondo ibili baño ura bearrian ez ardoa eran eta etorri.

-Kastillun baserriko amona oso gaxorik dago. Opa diogu osatzia.

-Emengo apaiz langille Jose Maria jauna, Bergara bere jaioterrira joan da egun batzuek igarotzera. Berri onak ekarri erri jator ortatik.

-Jakin degu emengo irakasle Urriza'tar Kandido jauna badijuakigula. Asko nai zizaion eta beragatik utsune aundia usten du.

**Auteskundeak**

Udaletxeko sarreran dauden jarriak "botua" dutenen izenak. Beragatik lenbailen ikusi tzazute zuenak ere bertan jarriak ote dauden. Orain da denbora.

[77]

*Argia*, 1930-10-12 - 494. zbka.

**Altza'tar**

**Berri samiñak**

Il da Goiburu'tar Antonio, "Eguzkitza" baserriko nagusia. Bere sendiko
ai laguntzen diet samintasun onetan.

Baita ere il da Mutiozabal'enekoArtola'tar Pilar. Bere senar eta gure lagun Ezeiza'tar Anastasio eta erri ontan oso ezagun diran guraso eta anaiai nere samintasunik barrenekoena azaltzen diet.

Bi illeta oetan notintza asko bildu zan, argiro azaltzen zala erritarren begiramen ona oentzako.

**Bat eta beste**

Ekartzekotan (eta noski jartzeko asmoarekin) dira eliz-torrean erloju berria. Noiz nai da garaia.

-Bire berritzen ari dira goitik. Erreka dagon kamiñoa.

-Igandea gure artean igaro ondoren biurtu da Ezkioga'ra Kasares'tar Dolores neskatil polita.

-Jarraitzen du oso gaixorik Kastillun basarriko amonak.

Ezkondu dira "Matxikar" basarriko Mendizabal'tar Julian eta Intxauspe'tar Asunzion. Zorionak.

**Luistarren jaunartzea**

Igandean eta geienak biltzen giñala izan genduan luistarrak illeroko jaunartzea. Denbora guxi barru berriz Gonzaga deunaren iduri eder baten jabe gera. Ez daude bada lo emengo luistarrak.

[78]

*Argia*, 1930-11-30 - 501. zbka.

**Altza'tar**

**Luistar berriak**

Igaro dan igandean, talde ederra bildu giñan goiz eta arratsalde geren illeroko Eliz puntzioetara.

Datorren abenduaren 14'an (J.l.) onetsiko degu Luistarrak ekarri degun Gonzaga'tar Luis deunaren irudia. Egun ontan bada jai ederrak izango dira.

Goizean guztion jaunartzea; amarretan Meza nagusi ospetsua.

Arratsaldean puntzioan itz egingo du Agote'tar Pedro jaunak, gure erritar maite onek, eta gero ibildeuna. Ondoren luistarren antzokian, Aizarna'ko luistar jatorrak, antzestuko dute. Badakizute zeñen yayo eta langille aspalditxoan azaltzen diran mutil oiek. Ez gelditu bada oen trebetasuna ikusi gabe. Jakiña dago berri luistar jai bat dan tokian Aita Agirre Gipuzkoa'ko luistar guzien zusperzalle dan jaun au ezin zitekela egon gure artean izan gabe, au ere beraz emen izango degu. Itz batzuek entzungo dizkiogu berari ere.

**Berri samiñak**

Oso naigabeturik entzun degu Ibarburu baserriko, Alkiza'tar Jose Mikel zanaren eriotz berria. Oso zan ezaguna eta naiz aspaldin gaxo xamar egon ez genduan uste orren aguro Jaunak Bereganatuko zuanik. Elizaren laguntzak artu ondoren il da. Notintza aundia bildu zan bere obiratze eta illetan.

Baita ere il da Donostia'n Etxeberria'tar Juana, Kasares'tar Segundo jaunaren emaztea. Asko ziran bere illetan juanak erri onetatik. Bere sendiari gure agur samiñenak eta mesedez guztioi otoitz bana. G.B.

**Gaxorik**

Arkitzen da obetoago Arrieta'tar Jose, Txipres baserriko mutil gaztea eta emengo luistar zintzoa.

Era berian oso ezaguna da Alkorta'tar Jose Manuel. Lenbailen osatu.

**Beste batzuek**

Poz aundiarekin jakin degu emengo abertzaliak, Bergara'n izan dan batzarraren erabakia. Noiz nai zan garai batasun au egiteko. Ez degu uste ordea len erri artan izan zan besarkadaren antzekoa izango danik,

Jaunari dagokiota. Asi gera berriro ere abertzaleak batzokia irikitzeko asmoakin. Aurrera ere azalduko ditugu berri oek.

**Arana Goiri'tar Sabin'en alde**

Gaur goizean zazpietan izango da Meza ixilla gure Sabin'en eta gañerako erri ontan ildako abertzalien alde.

Abertzaliai eta gañerakoai dei egiten zaie lerro oen bitartez.

Gure auzoan katua, Indi aldean beste "animali" batzuek bezela gauza "sagradotzaz" daukate noski, edo bestela arratoiakin ezin "aguantatu" dute.

Ala dirudi gaur amabosteko ARGIA irakurri ta.

[79]

*Argia*, 1930-12-28 - 505. zbka.

**Altza'tar**

Negu gogorrian izan oi-dan egualdirik kaskarrena izan bagenduan ere abenduaren 2'an igandea, etziran altzatar eta gañerakoak atzeratu luistarrak eratutako jaiai eman bear zitzaion garrantzia emateko. Len irakurriez gañera beste gabe, jakingo dezute Luis donearen irudiaren onespentzeaz ari naizela, noski. Egun ontan bada, goiz asi ziran jaunartzeak, zazpietakoan batez ere ugari bildu zan jendea Mai Santura. Amarretan Meza nagusia guztiz ederra eta bulartsu abestua izan zan.

Eliza bete betea arkitzen zan arratsaldeko Eliz puntzioan. Besperak eta Agurtza deuna esan ondoren Agote'tar Pedro jauna egin zuan itzaldi guztiz eder bat. Txit ederra eta bikaña benetan bere itzaldia. Danori entzuten genion ondorenean itz goragarriak apaiz langille onentzat. Gero, irudia onespendu ondoren amaitu zan ibildeun eder bat egiñik.

Txit ederki esaten digu Aita Agirre jaunak luistarrai, luistar ez degula bear Elizan bakarrik. Arren esanari beste errietan aiñ ederki erantzuten zaion eran, emen ere jai eder bat eratu zan luistarren antzokian. Aizarnako luistar talde baten bizkar bere "Priskita" eta "Abek istilluak" (jost-irudiak biak) oso bikaiñ antzestu zituzten. Txalo ugariak entzunak dira Agote'tar Pedro eta bere mutil jatorrek: ondo irabaziak gañera. Gazte alai eta jatorrak Aizarna txukunetik etorri zitzaizkigun alajaña.

Luistar jaietan naita naiezkoa dan Aita Agirre jauna ere, gure artean zan eta bere itz zuspergarriak oso atsegin entzun genitun, batez ere

esan zuanean (gutxi gora bera) eusko-Gipuzkoako luistarrak gaur daukaten indarra eta sua Altza'ko ikurriña bedeinkatzeak zabaldu zuen txinparten ondorena da. Ez dago esan bearrik zenbat txalotua izan zan.

Altza'ko luistarrak aurrerako ere ari gera txindiak osatzen eta J.L. udaberri alderako Estanislao deunaren irudia ekarri eta onespentzekotan gera.

**ARGIA'ren Egutegia**

Beste urteetan bezela, eta oraindik ederrago eta geiago ornitua azaldu zaigu aurtengo Egutegi au. Irakurri gabe ezin utzi leike bada eta batez ere nekazari etxeko sukalde guzietan egon bear luke Egutegi txukun eta apaiñ onek. Salgai Zugasti'tar Permin'en bizartegian dago eta lenbailen zereganatu. Zorionak beren egille bizkorrairi.

**Erne euskaldunak**

Egun ortako izpirringiak eta batez ere "El Día"k deadar egin dute Aldundiak artu duan asmoen gaiñ itz egiñaz. Euskerari lagundu bearrian, geiago oinperatu eta baztartzeko erabakiak artzekotan dabiltza naiz berak ez uste izan. Lenago Madrid'tik zirala eragozpenak eta orain zerbait lasaitasun eman digunian geok nai ez? Zergatik erabaki oek artzen lagundu eta bide zuzen jarriko luke Eusko Ikaskuntzari bear zaion laguntza eskatu ez? Nun ote dira auteskundeak! Tamalgarria bada au; oso txalogarri zaigu berriz Euskalerriko Aldundiak artu duen asmoaz gogoraturik "Decreto de Kortina"tzaz esan nai det alegia. Gogor jokatu bada...

[80]

*El Día*, 1931-07-28

**Altza gaiñ**

Ondo irabazitako omenaldi bat eskeintzera dijoa Altza'ko erria jaun agurgarri bateri. Aizpurua'tar Leandro jauna bera. Ogeitamar urte inguru geren soiñ (gorputz) argal oen zaitzalle izan degun gizon batek, beste gabe irabazia dauka esker oneko biotzetan eta onez gañera D. Leandro (guk deitzen diogun bezela) izanik biotz zabal anaikor eta biguñekoa ¿nolaz gogoratu ez erri au oparitxo bat eskeintzera?

Aspaldian zerbait egitekotan giñan altzatarrak, eta azkenik datorren illaren 2'an (J.l.) eratuko da, jakin degun jai eder bat. Ontzat artu du erri guziak sendaille oneri azaltzia, guzien aurrean, zer naitasun zaion.

Onetarako jaiak antolatzeko izendatu da "komisio" bat, eta berak eratuko du zer jai egin bear diran. Eta amaitzeko orain oar bat "komisio"ko jaunairi. Ez aztu euzkotarrak gerala, eta bera ere euzkotar eta abertzale berezienetako bat dala, eta euzko erri bateri dagokion jai bat egokiena dala. Ala uste degu.

**Batzokiko berriak**

Abertzaletasuna, erri onetan ere, indar aundia artzen ari da. Lenez gañera, eta gazteak batez ere sutsu agertzen zaizkigu bere Aberria ezagutu eta azkatasuna iritxi naiean.

Batzokia antolatzen ari gera eta laxter dei egingo zaie guziai batzar batera. Batzar-ordea izendatu ta aurrerako erabakiak artzeko. Oraingo asmoetan (batez ere beñipin) itzaldiak egiñaz Sabin'en erakutsiak zabaltzea izan da, gazteak eta zarrak ikasi eta maitatu dezaten gure Euzkadi. Gertu bada, eta batzarrera dei egitean, etorri.

[81]

*Argia*, 1931-08-02 - 536. zbka.

**Altza gain**

**Omenaldiya**

Ondo irabazitako omenaldiya eskeintzera dijua Altza'ko erriya jaun agurgarri bati. Aizpurua'tar Leandro dezute jaun ori. Ogeita amar urte inguru gure soin argal oben sendagille izan danak ondo irabaziya du beste gabe gure biyotzeko esker ona; ta onez gañera, D. Leandro (guk deitzen diogun bezela) dan bezin on, leyal eta biyotz biguñekoa izanik ¿nola ez eskeiñi erri onak maite-omenik sutsuena?

Aspaldin zerbait egitekotan giñan altzatarrak eta etorri da eguna. Gaur degu guztiyok ain biyotzez maite degun D. Leandro'ri gure esker ona agertzeko eguna.

Jai-eratzalleak lanean ari dira gu au idazten ari geranian eta gutxi gora-bera jai abek izango dira:

Goizian amarretan meza nagusi ederra, itzaldi ta guzti.

Udala (Ayuntamentua) txistulari, turutak eta dantzariyak aurretik ditula joango da elizara.

Ondoren ezpata-dantza erri-enparantzan eta ondoren, erriyak bertako semetzat artzen dula agertzeko udalak D. Leandro'ri eskeintzen diyon larru paper apañaren ematea.

Une ortan txaloak ugari jotzea ez da eragotziko.

Gero omen bazkariya. Xaltxa goxorik izango da gaur Altza gañian.

Arratsaldian pelota-jokua. Jokalariyak, eragozpenik ez bada beintzat, Otaegi-Arrieta (altzatarrak) Azkue-Etxenike izango dira noski.

Gero omen-aurrezkua (aurresku de honor): aurresku Tolosa'ko alkate Ziaurriz Jauna eta antzezku Artaza Jauna.

Azkenik, eusko-erromeri jatorra. Egun ontan txistulari, Errenderi'ko talde bikaña izango degu.

Jai ederra benetan! Zorionak D. Leandro'ri ia, ia beste ogei ta amar urtetan pizkor-pizkor.

**Eusko Batzokiya**

Astelenian bildu giñan Aitzpurutxo'ko batzoki berriyan abertzaletalde ederra. Berrogeita amarretik gora giñan, eta ori guztiyak bildu ez giñalarik.

Muxika'tar Balendin'ek azaldu zun ederki billeraren egitekoa.

Batzokiko artezkari-batza aukeratzia izan zan eta oraingoz obek izango dira:

Artezkari: Elizalde'tar Sebasten.

Ordeko: Muxika'tar Andoni.

Idazlari: Alkiza'tar Joseba.

Diru-zai: Erroteta'tar Errupin.

Ia mutillak! Ekin lanari ta eutsi ta gora gure erri mitian abertzaletasuna.

[82]

*El Día*, 1931-12-18

**Altza'gaiñ**

**Sortzez Garbiaren eguna**

Bederatzi-urren ederra aurreko egunetan egin ondoren, Guztiz Garbiaren egunean Jaunartzera goiz goizetik eta ugari jendea urbildu zan; bañan batez ere zazpietako mezetan Mariaren alabak eta luistarrak zuten jaunartzean.

Elizkizun bikaña egin zan benetan arratsaldean. Luistar eta gañerako askok tamalez lan egin bearrian arkitu ziran bere lantegietan (ez arritu berriz ere zuen izenak emanez bazkun oietan indar ematen baiozute) . ¡Noiz esnatuko ote gera! Ez altzerate konturatzen oien jostallu zeratela eta zuen

geiena maite dezuten -alegia- kristau izakeraren etsairik gogorrena dezutela bazkun ori. Bañan oraingoz jarrai dezaiodun asitako lanari. Esaten asi naizen bezela alaz gustiz ere jendetza aundia bildu txadonera. Itzaldia Karmel'dar Aita batek egin zuan eta egun ontan ere Altzako luistarrak genduen Estanislao deunaren iduri berriaren onespentzea. ¡Aurrera mutillak!

**Emakume abertzaleak**

Erri geienetan bezela emen ere emakumeak: Aberri maitea indar berritzeko egin zaioten deiari pozik eratzun diote. Azaldu dute Euskadiri dioten maitetasuna eta ez diote lanari nolanai ekin. Altza'ko batzokiari ikurrin berri bat egin nai diote. Onetarako bear dan dirutza biltzen azi dira neskatillak, eta entzun degunez, ez da nolanaikoa izango. Poz pozik jakin degu zuen anai altzatar abertzaleak berri au. ¡Jarrai onela!

**Batzoki bat Errera'n**

Danok ao batetik esaten genduan. ¡Errera'n batzokia bear bearrekoa dek. Bañan danon naia naiz ori izan, etzegon errex batzokia irikitzerik. Nun jarririk etzegon; bañan azkenik beñepin (J.L.) denbora gutxi barru "Euzko etxe" bat izango dute Errera'ko abertzaleak, eta bera Luis Deunaren plazan orain egiten ari diran etxe berri batean. Au antolatu bitartean itzaldi batzuek eratzen asi dira eta aurreneko il onen 10'an (ostegunean izan zan) "Agur" etxeko soto zabalean. Poztu giñan benetan ainbeste jende bildu zala ikusita.

Itzegin zuten (oso bikaiñ biok) Ugartetxea'tar Donato eta Ernandorena jaunak. Aurreneko euskaraz eta besteak erderaz. Laxter izango da beste itzaldi bat; esango da noiz.

[83]

*Argia*, 1931-12-20 - 556. zbka.

**Altza-gaiñ**

**Sortzez Garbiaren Eguna**

Bederatzi-urren ederra aurreko egunetan egin ondoren, Guztiz Garbiaren egunean Jaunartzera goiz-goizetik eta ugari jendea urbildu zan; bañan batez ere zaspietako mezetan Mariaren alabak eta luistarrak zuten Jaunartzean.

Elizkizun bikaña egin zan benetan arratsaldean. Luistar eta gañerako askok tamalez, lan egin bearrian arkitu ziran beren lantegietan (ez

arritu berriz ere zuen izenak emanakin bazkun oietan indar ematen baiozute). ¡Noiz esnatuko ote gera! Ez altzerate konturatzen oien jostallu zeratela eta zuek geiena maite dezutena -alegia- kristau izakeraren etsairik gogorrena dezutela bazkun ori? Bañan oraingoz jarrai dezaiodan asitako lanari. Esaten asi naizen bezela alaz gustiz ere jendetza aundia bildu zan txadonera. Itzaldia Karmel'dar Aita batek egin zuan eta egun ontan ere Altzako Luistarrak genduen Estanislao Deunaren iduri berriaren onespentzea. ¡Aurrera mutillak!

**Emakume Abertzaleak**

Erri geienetan bezela emen ere emakumeai; Aberri maitea indar berritzeko egin zaioten deiari pozik erantzun diote. Azaldu dute Euzkadi'ri dioten maitetasuna eta ez diote lanari nolanai ekin. Altza'ko batzokiari ikurrin berri bat egin nai diote. Onetarako bear dan dirutza biltzen azi dira neskatillak, eta entzun degunez ez da nola naikoa izango. Poz-pozik jakin degu zuen anai altzatar abertzaleak berri au. ¡Jarrai onela!

**Batzoki bat Errera'n**

Danok ao batetik esaten genduan. Errera'n batzokia bear bearrekoa dek. Bañan danon naia naiz ori izan, etzegon errex batzokia irikitzerik. Nun jarririk etzegon; bañan askenik beñepin (J.l.) denbora gutxi barru "Euzko etxe" bat izango dute Errera'ko abertzaleak, eta bera Luis Deunaren plazan orain egiten ari diran etxe berri batean. Au antolatu bitartean itzaldi batzuek eratzen asi dira eta, aurrenekoa il onen 10'an (ostegunean izan zan) "Agur" etxeko soto zabalean. Poztu giñan benetan ainbeste jende bildu zala ikusita. Itzegin zuten (oso bikaiñ biok) Ugartetxea'tar Donato eta Ernandorena Jk.

Aurrenekoak euskaraz eta besteak erderaz. Laster izango da beste itzaldi bat esango da noiz.

[84]

*El Día*, 1932-07-05

**Mendigoizale Eutzi**

Izperringi jator au irakurri ondorean esan oi det, "Bañan gezurra dirudi erri ontan daude aña euskeldun ikusi eta iñortxok ere emengo


EL DIA

SAN SEBASTIAN, 28 DE JULIO 1931 (Martes)

SANTOS DE HOY:

TIEMPO PROBABLE PARA HOY:


pág. 10 — el dia — martes, 28 julio 1931

# EUSKAL ORRIA

## Altza

## Ondarutik

ZUTARA

Ondarru'n, 25-7-31.

## Mendara-ko «Euzko Batzokia» ren sabalkundia

ALTZERIZA

## Ezkioga'ko mirariak

LARAITZ

## Albiztur

## Zubieta

ARTZAIN

Dr. Olaran

MENTALES - NERVIOSAS

Andia, 2, 2.º — Teléfono 1-44-71

Instituto de Belleza

MADRID - EASO

AVENIDA DE LA LIBERTAD, NUMERO 29

SAN SEBASTIAN

AVENIDA DE PI Y MARGALL, 9 (Gran Vía)

Edificio del Teatro Fontalba

MADRID

UN CONSEJO, SEÑORA:

LIMPIEZA DE CUTIS

RESTAURACION O ESTUCO DE LA PIEL DEL ROSTRO

TRATAMIENTOS PARA ADELGAZAR

ESTOS ESTABLECIMIENTOS

PRODUCTOS DE BELLEZA

COMPAÑIA NAVIERA SOTA Y AZNAR

Rápido semanal DE PASAJES A BARCELONA

«ARAYA - MENDI»

Hijo de Julián de Salazar. S. en C.

PASAJES

CARBONES NACIONALES Y EXTRANJEROS

AGENCIA DE ADUANAS

BALNEARIO DE BETELU (Navarra)

A 60 KILOMETROS DE SAN SEBASTIAN (VIA TOLOSA)

Sin rival para afecciones de laringe y bronquios

Agua de régimen similar a VITEL

Lugar pintoresco y tranquilo

Miami Hotel

(ANTIGUO RESTAURANT CANUTO)

SERVICIO ESPECIAL A LA CARTA Y POR CUBIERTO

EXCELENTES E INMEJORABLES MENUS

NUEVO RESTAURANT EN LA PARTE VIEJA

Restaurant 'Felipa'

COCINA EXCELENTE - MENUS VARIADOS - SERVICIO ESMERADO

ROPA BLANCA

CRESPON lavable, seda natural

INGLES

¡Señora!

berririk ez bialtzea". Eta ori sarritan aitatu ondoren ekin diot neroek; nik ere badaukat burura askotan etortzen zaidan gauzatxo bat esateko gogua.

Galdera bat egitea da; eta barkatu.

¿Emengo Emakume Abertzale Batza arrun ixildu al da? Ain poliki asi ziran eta negargarriya izango litzake ain erraz egindako lan guzik aztutzia, bada toki guztietan agertzen dira ¿eta gu?... ¿Beti atzetik ibili biar aldegu?

Gure Estatuto edo Araudia onekin zer esana, ta gora bera pranko sortu zaigu. Erria erdaldunez ugaritua egon arren euskaldunak bezin zitalik ez degu iñor nabaitzen.

Karlistak edo integristak izan arren ez uste irakurle, goizeko meza zintzerriak jaiki arazoko dituanik, baño gure araudi alde jarri ditugun orriak puskatzera karakolak goizeko intzeta lez ixil ixil, ta goiz aski jaikiko dira. Ori da gizonen egitekoa.

[85]

*El Día*, 1932-07-20

**Itani**

-Ikusi dedanian erri ontatik "Mendigoizale Eutzi" asi dala zer edo zer idazten, nik ere erabaki det, aiñ ondo ez egiñ arren, zer edo zer jartzia, ta zuk ere jarraituaz, onela izango gera bi, besten bat agertu arte.

**Emakume Abertzale Batza**

Emakume batzuek nigana etorri dira galdetuz zertan dagon beren Emakume Abertzale Batza, bada esan didatenez zoratzen daude Jel alde lan egiten asteko. Lan au bere gaiñ artu dutenak aien galderari erantzun bezaiote.

**Euzko Etxea**

Gure buru diranen aginduak jarraituaz eta beste Batzokitan bezela, emen ere iriki degu Naparra eta Araba'n alde arpidea, eta orregatik abertzale geranak ezin gindezke geratu aldezakeguna eman gabe. Lenbailen ematia obe izango da, bada danok dakigun bezela Iñaki Deuna'ren egunian itxitzen da arpide au.

**Agrupación Cultural Católica**

Izen onekin iriki da erri ontan bazkun bat; eta asi da itzaldi batzuk ematen. Eta oyetara jun diran batzueri aitu diet, emendik aurrera egingo diran itz-adi geyenak euzkeraz izango dirala, eta au poz aundiyakin ikusten det bada orrera juaten diran geyenak euskaldun osoak dira, eta erderaz ondo ulertzen ez dutenak.

**Ondarrabi'ra**

Iñoiz ikusi eztan bezelako gozua dago erri ontako mendigoizale eta abertzale artian, datorren igandian erri ontan Emakume Abertzale Batza eta Mendigoizale askundia eta Euzko Etxea'ren urte betetziagatik egingo dira jayetara juateko eta orregatik onena izango litzake Batzoki'ra agertzia, goizetik, oñez juan nai degunak, ze ordutan atera eta nolaz juan alkar artzeko.

Agur eta urrenarte.



Leandro Aizpurua medikuari omenaldia. 1931-08-02. Besteak beste, Bibiano Elizalde, Anizeto Zugasti apaiza, Rufino Roteta; Leandro Aizpurua, Jose M. Mugika apaiza, Luis Alkiza. *(Iturria: Kontxita Alkiza)*

[86]

*El Día*, 1932-08-04

**Itani**

-Oraindala amabost egun zer edo zer ipiñi nuen izparringi edo periodiku ontan, eta zai negon, orduan esan bezala, "Mendigoizale Eutzi"k edo besten batek idaztia edo eskribitutzia bitartean. Baña nere itxaropena ez da bete eta berriz ere, naiz gaizki, banua Luzear'en baimenakin leku piskat betetzera.

**Mez berria**

Errikoseme gaste Zugasti Iriondo'tar Jon'ek eman du bere lendabiziko meza, Iñaki Deuna'ren egunian, Altza'ko San Marzial elizan. Notintza edo jendia asko izandu zan.

Zorionak apaiz berriarai eta bere sendi edo familiari.

Oso Jaupa ederra izandu zan, bañan tamalgarriya, bukaeran gertatu zana, bada Deun Iñaki'ren eguna izanikan, bere Ereserkia abestu gabe gelditzia. ¿Gertatu alda olakorik, oraiñ arte Euzkadi'n?

¿Eta zergatikan Altza'n? ¿Zeñek agintzen du elizan? ¿Bikayuak ez ote zuan nai ori abestutzia? Au galerazi zuenari ez litzayoke gaizki etorriko Donosti'ko Santa Maria'ko elizan egun ontako Jaupa nagusian izatia.

**Pelota partidua**

Jauna nagusi onen ondorian jokatu zuten pelota partidu bikaña. Oso larri irabazi zuen Berra eta Segundok, bada galdu zutenak geratu ziran 21'an 22'ra zan partiduan.

Onen bukaeran pelota tokian, Altza'ko erriyak bere naya azalduaz abestu zun Iñaki Deuna'ren jayak ospatzeko. Donosti'ko Eusko Etxea'k erabaki zuan bezela, Altza'ko erriyan izandu ziran arratsaldian eusko jai politak. Oso ondo igaro gendun, bada bildu zan gazte ugari bere alaitasun azalduaz illunabarrarte. Bi ezpatadantzari talde ere dantzatu ziran.

Gaurko naikua degu, eta urrenarte.

[87]

*El Día*, 1932-09-25

**Itani**

Ikusirik beste iñor ez dala agertzen erri ontatik, eta naiz ezagutu nere txerotasuna euskal orri ontan idazteko, banua berriz ere erri ontako

berri batzuek jartzera. Bañan lenago nai diyet ezan "Mendigoizale Eutzi"ri, ta "Noizik beiñ"eri, ezantzeko daukaten loaletasun ortatik, eta berak ere zer edo zer idazteko, bada nik baño obeto egin egiñik ez daukate, ez da zalla ta.

**Ernani'ra**

Danok dakigun bezela datorren igandian dira erri ortako Emakume Abertzale Batza, Mendigoizale ta Gaztetxu'ren ikurriñaren onespenak eta zer esanik ez dago nolako zaletasuna dagon emengo abertzalearen artian gure anai-arreba ernaniarrangana juateko. Mendigoizaliak beren alaitasunarekin goizetik, eta arratsaldian ere, oste edo jendia ugari juango da noski, egun on bat igarotzeko asmoarekin.

**E.A.B.**

Emengo emakumiak ere beste errietakuak bezela, egin dute bere Batza, ta dakitenez, 100'etik gora bildubak omen dira. Ez da aziera txarra. Zuek gauza bat gogoz artu ezkero ez da arritzekua ori baño gauz aundiyaguak ere ondo egitia.

**Batzoki berriya**

Ibarbia'n etxe azpiyan, Batzoki eder ta polita bere antzerki, "ambigu" ta guzti, antolatzen ari dira emengo abertzaliak, lan danak egiñaz bertako bazkidiak, naiz erri ontako "españolistari", bai ezkertarrari, eta eskubitarrari, tripako miñ egin.

**Espetxetik etxera**

Donostia'ko Ondarretako espetxe edo kartzelian 28 egun igaro ondorian, juan da igandian etxeratu dira Elosegi'tar Imanol, eta Elizalde'tar Sebasten, abertzale jatorrak.

Asko poztutzen naiz.

[88]

*El Día*, 1932-09-29

**Itani**

**Luistarrak**

Erretore jaunak deia eginda zeukan bezela, juan dan igandian, 6'tako meza ondorian, izandu zuten Errera'ko luistarrak bere batzarra,

eta bertan izendatu zuten Batzorde berriya, onela da:

Lendakari edo presidente: Maritxalar'tar Iñaki.

Lendakari ordezkoa: Landa'tar Pantzeska.

Idazkariya edo secretario: Sarasola'tar Anjel, ta

Diruzaya edo tesorero: Erdabide'tar Jagoba.

Itxaropena badegu mutil ontan, beren aurrekuak bezela, ondo beteko dituztela beren eginbearrak.

**Eskontzeko asmuakin**

Altza'ko abertzale jatorra dan Alkiza'tar Shanti, bere "despedida de soltero" jaiatzeko, bildu zan juan dan igandian, bere lagunarekin "Martillu" ta "Tomas enea"ko erari etxetan, bada 100'dik gora ziran.

Bere bizimodu berriya irixten zayonian, ondo izatia opa diyogu.

**Ernani'n**

Beste erriyetako zabalkundetan bezela, Ernani'n ere izandu dirade emengo abertzaliak. Mendigoizaliak goizetik juan ziran, eta naiz oso egun ona igaro, pena bat bakarra ekarri zuten: ez jakitia bazkariya "aparte" zala mendigoizalientzat, bada ori jakiñ ezkero oso gustora bazkalduko omen zuten beren beste erriyetako anayarekin batian, eta beren "sakela"rik gabe, bidian ibiltzia aurreratuko omen zuten.

Arratsaldian ere, naiz ez denborak asko lagundu, emendik oste edo jende asko izantzan, eta danak an aditutako itzaldi ederrakin oso pozturik etorriyak dira.

**Pasai Deun Kepa'ra**

Datorren igandian mariñel jatorrak eta arraunkalari trebearen erriyan eratu dituzten jayetara, beste erritara bezela, edo geyo zergatik oso gertun dagon, erantzungo degu emengo abertzaliak, eta itxaro degu emen ere egun on bat igarotzia beste olako jayak antolatzen dituzten erritan bezela.

[89]

*El Día*, 1932-10-08

**Itani**

**Deun Mikel'en eguna**

Oso ederki ospatua izandu da erri ontan, Euzkadiko zaindariaren eguna. Lendabiziko aldiz ikusi da Errera'ko etxalde ontan gure eusko ikurriña, eta orregatik gure biyotzak alaitu.

Goizian Euzko Etxea'k eratuta zeukan sei terditako mez ondorian, izandu zan Batzokiyaren eta E.A.B.'ko gelaren bedeinkaziyua, eta bai mezetan eta bai bedeinkaziyuan emakume ta gizaseme asko bildu zan.

Illuntzan bildu giñan Batzokiyan, 40 bat bazkide afaltzen eta zurruputuna eta egazti oso ondo jarriyak jan, eta sagardo eta ardo goxuak eran ondorean, sortu ziraden bertan bertsolariyak eta baita antzerki edo teatrua egiteko gogua zutenak ere, eta oyeri aditu eta abesti aberkoyak abestuaz bukatu gendun umore onian alkarte au. Oso illuntza ederra igaro gendun alkartasun ederrian, eta asko postuko giñake berriz ere olako bat eratzia.

**Udal berriya**

Gobernadorian agindua betiaz Altza'ko udal edo ayuntamentuko "Comisión Gestora"ko izendatu ziranak beren demokraziya azalduaz egin dirade erriko agintariyak, eta berak diyotenez oraiñ ondo jarriko omen dute Altza'ko erriya. Ikusiko degu.

**Pasai Deun Kepa'n**

Agindua gendun bezela eta gure iganderoko oiturari jarraituaz, izandu gera gure aldameneko erri ontan egin diraden jai aberkoyetan, eta beste olako jayak egin izandu diraden erritan bezela emen ere egun alai bat igaro gendun.

**Irun'era**

Gipuzko Idazkaritza esaten ari zaiguna eta Mendigoizale Batzak agindu diguna bete biarra degu datorren igandian. Gañera gogoratuaz aurtengo azkeneko itzaldiyak eta jai aberkoyak dirala eta ze erriyan egiten diraden indar geyokin erantzun biarra degu. Onelaz, mendigoizaleak goizetik eta gañerako abertzale danok atsaldian, juan gaitezen gure anai irundarrak besarkatzea, areriyoari abertzaletasuna indarra erakutsiz.

[90]

*Euzkadi*, 1932-11-03

**Txorikume**

**Errera'tik**

Lerro motz aben bitartez, agurtzen zaituztet uri polit ontako abertzaleak, batez-ere "Itani" idazle jatorra, ta eskeintzen dizuet nere laguntasuna, naita txiroa izan, gure Euzkadi maitearen oneran.

Badakit nere izen-orde au ezagutzen dezutenok gustiz arrituta geratuko zeratela, ba adierazten dizuet eztedala oraindik nere etxe-bizitzia lengo lekutik aldatu, baizik, nola Pasai Deun Kepa ta Errera alkarren aurre-zamarrian dauden, gaur oldoztu det azkeneko uri ontatik azaltzea. Egia esateko, Pasai Deun Kepa'n baño geyagotan arkitzen naiz Errera'ko txulo ontan.

**Sagardo zaliak**

Aurten bildurrez daude sagardo edan-zaliak, sagar gutxi izan da ta saneurria berriz aundia egin dalako.

Juan diran egunetan erori diran euriak egoki zamar etorri ote-diran sagardo-egintzalientzat, oni pizkabat laguntzeko edo sagardua onespentzeko. Baña ez izutu, lenago ere aurten baño sagar-ez aundiagua ezagutu degu-ta urte artan iñoiz baño obiaguak edan ere bai. Ez nuke esango batere kalterako izango litzakenik ur pizkabat geyago edango ba'litz.

Lengo egun baten galdera egin nion gure lagun ta abertzale dan Etxaburua'ri gai onetzaz, ta ziran berak, buruko illiari ten-egiñaz: "Aurten galduak gaituk, mutil: etzeok sagardorik, ta au ez badegu ezta bixigu prezkorik jaterik ere". Ta eranzun nion: Motel, motel, etzak negarrik egin, aurtengo sagardoa beñere baño edan obia izango ditek-ta.

**"Lauaxeta"'ri**

Lenago ere, orain urte bete inguru, eskeñi nizun emen Pasai Deun Kepa'n antolatuko genduela alako kaxuelka bat, legatza edo abar, ta baita zuk bayetza eman ere. Emengo Batzoki'ko zabalgundea, ikurriñ-onezpentze ta abar zala ta antolatu ziran jayetan berriz, jakiña, bazenduen aurreroko eginkizunik, ez genuen aldirik izan. Ia ba aldezun baten alde ontara ere inguratzen zeran, besterik ezpada-ere beste oyek esaten duten bezela "en plan de turismo" edo. Agur.

Uarra.- Juango naz sagardaua edan eta Pasai Deun Jon'an makallo andi bat artzera. L.

[91]

*El Día*, 1932-11-12

**Itani**

Aspaldi ontan "El Día" gabe egon ondoren berriz ere argitaratu zaigu izparringi maite au, eta lengo oituran banua, emengo berri batzuk jartzera.

**"Txorikume"ri**

Irakurri nuben "Euzkadi"n zuk idatzitakua eta asko eskertzen det zure agurra. Artu zazu zuk neria. Eskeintzen dezu zure laguntasuna abertzaletasunaren alde, eta asko poztuko naiz jarraitzen badezu asitako bidean.

Ez zazula egin batek baño geyagok egin dutena: bein idatzi, alpertu, eta geyago ez.

**Batzokian**

Errera'ko Euzko Etxea asko ari da euskeraren alde eta lenengo aldiz, Batzokiyan antolatuta dagon antzerki tokiyan jendez beteta, lezotarrak oso ederki antzestu zuten "Ongillearen saria" eta "Guzik gaxo" eta oso txalotuak izan ziran.

Bañan bertan ere antzeslari gogokuak ere badirala ta, datorren igandean (naiz illak 13 izan, orrek ez dituzte ikaratzen) arratsaldeko bostetan berak egingo dute: "Gixatxarra" eta "Aterako gera".

Jendiaren artian, zer esanik ez dago zaletasun aundiya dago bertakuak ikusteko antzerki lanetan. Orregatik erregutzen zaie, dei edo inbitaziyuen billa lenbailen agertzeko Batzokira.

[92]

*El Día*, 1932-11-19

**Itani**

**Antzerki jayak**

Juan dan igandian izan gendun gure Euzko Etxea'k eratuta, antzerki jai eder bat. Eta gure poz aundiyagotzat Errera bertakuak antzeslari zirala.

Egin zuten lenengo aldiz "Gixatxarra" (emakumeak bakarrik), eta oyen tartian bertsolari bikañ bati entzuteko poza izan gendun.

Danak, iñor alde batera utzi gabe, oso ederki, iñork uste baño obeto egin zuten, eta beragatik oso txalotuak izandu ziran bertan zan jendiagatik. Eta jendez Batzoki dana bete zan.

Izanez au lendabiziko aldia antzerki-toki batera azaltzen zirala eta ikusiyaz zeñen ederki egin zuten, itxaropen aundiya degu berakin, eta dakitenez berrizko ere asi omen dira ikasten beste batzuk ere. Asko poztutzen naiz, eta jarraitu bide ontan, euskeraren onerako, naiko biartuba dago ta gure txoko ontan.

Ezagutuaz zeñen alai bazkide guztiyak ikusten duten jai abek, Errera'ko Euzko Etxea'k datorren igandian berriz izateko moldatu da, eta

lezotarrak, len aiñ ederki egin zutenak antzeztuko dute bi ateraldiko "Bost urtian" eta ateraldi bateko "Joxe Gergorio eta Mai Piliparen ezkontza erabakia".

**Oporketa**

Badaramate bigarren astia, emengo "metalurjiko"ak opor edo "uelga"n eta langillien beso indartsu oyek beren tokiyan aitu biarrian ikusten ditugu eguzkiya artuaz kalian ez dakigu noiz arte. Eta beti bezela, kulpak batek edo bestiak izan, paatzen dubena langillia.

**Apaiz aldaketa**

Erri ontan ainbeste adiskide egin zun don Sekundino apaiz jaunak, Donosti'runtz alde egin digu. Bere toki berriyan ondo izatia opa diyogu.

Bere ordez etorri zaigu, "errikoxemea" dan don Juan Kasares.

Agur, eta urrenarte.

[93]

*El Día*, 1932-11-24

**Itani**

**Batzoki'ko berriyak**

Adituaz emengo bazkide askoren eskatua, eta ezagutuaz arrazoiskoa dala (¿nola ez?) Batzokiyan jarri dute erari-toki eder bat, eta bertako "serbiziyua" nolakua dan adierazitzeko naikua da Landa Jaunan gaiñ dagola esatia.

**Antzerki jaia**

Azkeneko igande ontan ere izan degu antzerki jai eder bat, lezotarrak antzezlari ziran; antzestiaz "Bost urtian" eta "Joxe Gergorio eta Mai Piliparen ezkontza erabakia", eta zer esanik ez dago, beti bezela oso ederki egin zutela. Emengo jendiak, eusko jaiak nola poztutzen duten, Batzokiya dana bete zuten, eta dakitenez badago gogua berriz ere olako egunak pasatzeko.

Eta nola ikusi giñutzen Errera bertakuak ere yayuak dirala lan onetarako, zaletasun aundiya dago berriz ere berak ikusteko.

Arren, Eusko Etxea'ko agintariak jarraitu bide ontan, ori da nere iduriyaz beintzat, euskeraren aldeko biderik onenetakua.

**Irakaslea'ren urte betetzia**

Arana Goiti'tar Sabin'en 29 garren urte betetzia izanez dato-

rren ostiralian, illak 25, egun ortako Errera'ko Euzko Etxeak eratu du jaupa edo meza ixil bat, eta izango da goizeko 6 1/2'tan, San Luis'ko elizan.

Beraz dei dagiot abertzale guztiari azaldu ditezela ordu ortan elizara

[94]

*El Día*, 1933-01-12

**Itani**

Azken bi illabete otan, euskal orri ontan, ez degu Errera'ko berririk izan (naiz nik bi aldiz bialdu, ez dira agertu) eta ikusirik beste erri ontako danak lo darela (nola eta etzayen gertatu neri bezela), banua berriz ere neronek ekitea, ia gero "Mendigoizale Eutzi"k, "Noizik beiñ"ek, "Txorik" edo besten batek jarraitzen duben. Zuek bakoitzak beiñ idaztiarekin etzazutela uste naikua danik, eta ia emendik aurrera geyotan egiten dezuten, nik baño obeto eziñik ez dezute da.

**Antzerki jaiak**

Denbora ontan, antzerki jaiak iya igandero izandu ditugu bertakuak egiñak.

Urte oni asiera eman zizayon Pasai Sanpedrotarrak antzestuaz oso yayo eta egoki "Amets goxuak" eta "Bernaiñoren larriyak", izanaz beragatik asko txalotuak. Adieraziya zegon bezela bertan bildu zan dirua, izandu zan emengo euzko langille lanik gabe darenantzat, eta jokallu batzuk emateko Euzko Etxea'ko eta E.A.B.'ko bazkidearen umeari.

Umeari jostallu emate au izandu da azkeneko igande ontan. Asiera izandu zun arratsaldeko 4'tan, bertako umetxuak egiñaz "Etxe poxpola" eta "Popatxuak nanan", eta Ernani'ko iru txistulari txikiak txistu jo aldi batzukin, ain ederki askori esan arazi diyotelaz, ez da Errera'n oraindik ikusi ainbeste graziyakin jai alditxorik egiten.

Ondorian izandu zan umiaren jostallu ematia, eta danak pozez beterik artu zituzten bere jostalluak, eta oso alaitsu alkarri erakusten ziyoten.

Datorren iganderako ari dira bertako gustiak ikasten "Arantza" (emakume eta gizasemezkoa bi ataletan), eta gañera "Ixkiña Mutriku'n" izena dun bakarrizketa egingo du bertako gazte batek.



AYUNTAMIENTO
DE LA
VILLA

DON GASPAR CARDONA
PRIMER TENIENTE ALCALDE
PRESIDENTE DE HIGIENE
Radical Socialista

DON JUAN IRIARTE AGUIRRE
ALCALDE
Radical Socialista

DON ANGEL GUILLEN
SEGUNDO TENIENTE ALCALDE
PRESIDENTE DE AGUAS
Socialista

DON ABELARDO VELASCO
GESTOR
PRESIDENTE DE HACIENDA
Radical Socialista

Secretario:
D. Juan Mendizábal.

Secretario interino:
D. Aurelio Dueñas.

Oficiales:
D. Jaime Erdavide
D. Jose Berdasco.

Contador:
D. Luis Aramburu.

Depositario:
D. Jesús Oñaindia.

**Administrador de Arbitrios:**
D. José Méndez.

Inspector de servicios:
D. Gumersindo Ansola.

Linternero Municipal:
D. Tomás Aguinagalde.

Caminero:
D. Nicolás Arrieta.

Enterrador:
D. Simón Alquiza.

Txun Txuneros:
D. Eugenio Echeverría
D. Ignacio Zubizarreta.

DON JOSE HERNANDEZ
GESTOR
PRESIDENTE DE OBRAS
Radical Socialista

DON VICTORIANO MORANCHEL
GESTOR
PRESIDENTE DE GOBERNACION
Radical Socialista

DON JOSE SALVADOR
GESTOR
PRESIDENTE INSTRUCCION MUNICIPAL
Republicano Independiente

Altzako udala. 1933.
*(Iturria: "Ayuntamiento de la Villa de Alza - Fiestas Patronales - año 1933")*

**Ezpata-dantza**

Euzko Etxea'k dei egiten die bazkideari, ezpatadantza ikasi nai dutenari, agertu ditezela aste ontan batzokira beren izenak ematera, bada datorren astelenian, illak 10'tik aurrera etorriko da donostiar bat erakustera.

Badakizute ba gaztiak, gure ezpata-dantza, ariñ eta polita ikasi nai dezutenak, datorren astelenian agertu batzokira.

**Ezkontza**

Aste ontan ezkontzen da Galarraga'tar Andoni, abertzale zintzo eta bertsolari trebea, emengo neska eder batekin.

Zorionak, eta bizimodu berrian ondo izatia desio dizuet.

[95]

*El Día,* 1933-01-27

**Itani**

**Batzokiko berriyak**

Adieraziya zegon bezela, juan dan ostegunian illak 19, izandu zan urte-betetetzeko batzarra.

Bertan esan zan juan dan urtean Errera'ko Eusko Etxea'ren lenengo urtea, zer egin zan, eta baita ere diruaren jun etorriyak, bazkide guziyaren baimenakin ikusiyaz gauz abek guziyak.

Onen ondoren izendatu ziraden batzarkide berriyak onela:

Lendakari: Muxika'tar Balendin.

Lendakari-ordezkoa: Beretarbide'tar Joseba Imanol.

Idazkari: Endabide'tar Jagoba.

Diruzai: Alkiza'tar Koldobika.

Batzarkideak: Gurrutxaga'tar Prudentzio; Galarraga'tar Andoni, Imaz'tar Joseba ta Arzak'tar Jon.

Nere agurrik zutsuena artu zazute, eta itxaro degu zubengandik, lana ugari egingo dezutela Jel alde, zuben aurrekoak bezela, zeñentzako ditugun ezkerrik onenak.

**Antzerki jaiak**

Azkeneko jai aldia izan gendun juan dan igandian zortzi oso iaio eta egoki botiaz "Arantza" eta "Ixkiña Mutriku'n" bakarrizketa, eta antzeslariyak asko txalotuak izandu ziran, batez ere ainbeste par egin azi zigun bakarrizketa au egin zuenak.

Juan dan astian, irakurri nubenian izparringi (periodiko) onetan bertan "Naparra"k idatzitakoa eta ondo irudituas bertan eskatzen zubena, au da, berriz ere antzestutzia len ainbeste par egin azi eta ainbeste gustatu ziraden "Aterako gera" eta "Aldiz, aldiz" galdetu niyon antzeslariyen buru egiten dubenari, ia bete zeiken jendiari gogo au, eta erantzun dit:

"Gusto guziyakin, bada guk gaude jendiaren gustua egiteko eta orregatik egiten ditugu jaitxo abek. Orrelaz, jarri zenakezuke datorren igandian, Jaunak lagun, botako dirala bi antzerki oyek 'a petición del público' arratsaldeko 5'tan".

Ara bada, zuk esandakoa jarri, eta erreratarrak badakizute: datorren igandian, zuek eskatutakoa ikusiko dezute.

**Madrid aldian**

Oso pozikan irakurri degu izparringietan emengo bertsolari jatorra dan, Galarraga'tar Andoni'k, Madrid'en, orain egun batzuetako arkitzen dana, ango "Hogar Vasco"n azaldu duan trebetasuna bertsuetan.

Zorionak beragatik eta jarraitu ekindako bide ortan.

[96]

*El Día*, 1933-02-09

**Itani**

**Antzerki jaiak**

Juan dan igandian zortzi, izandu zan Errera'ko Eusko Etxea'ko batzokiyan, antzerki jai-aldi bat, emengo antzeslariyak antzestuaz: "Aterako gera", "Aldiz, aldiz" eta "Praixku" bakarrizketa polita. Zer bota zutenen izenak ikustea besterik ez dago, jendiak nola par egin zuen jakiteko.

Urrengo jai-aldirako "Iziartxo" bi ateraldiko antzerki polita ikasten ari dira. Beste erriyetan eginda zenbat gustatu dan ikusita, itxaropena izateko emen ere ala izando dala.

**Korrikalariyak**

Urtero bezela, "Herrera Sport"ek egokitatuta izandu degu, juan dan igande goizean, korrika laisterka. Egualdi ederrakin jende asko bildu zan ikustera, eta oso laisterka ederra egin ondoren, bere trebetasuna azalduaz, Zialzeta donostiarrak irabazi zuban. Naiz emengo jendiak gogo aundiya izan bertako korrikalari dan Egaña ikusteko, ezin izandu zan, arazo ortako agintariyak debekatu ziyotelako.

**Eriotza**

Juan dan astelenian Jaunaren besoetan il da, bere 68'gn. urtean, Sein Lekuona'tar Rosa. G.B.

Bere seme Martin, Pasai Zabaleko Uri Buru'ko Lendakari danari, eta batez ere bere alaba Maria'ri, Errera'ko Emakume Abertzale Batza'ko Lendakari danari, laguntzen diyet atzekabian.

[97]

*El Día*, 1933-02-25

**Itani**

**Antzerki jaia**

Juan dan igandian ere, bertako gaztiak eginda izandu gendun antzerki jai ederra. Orain arte egin dituztenak oso ondo egiñak izan badira ere, azkeneko au beste guztiak baño obetoago izandu da. Bai antzerkiya "Iziartxo" polita zalako, eta bai antzezlariyak ere geyago sayatuaz edo arrera geyago artuaz ederkiyago egin dutelako. Beraz, bertan izandu zan jendia, Batzoki dana beteze aña, oso pozturik atera ziran ezagutuaz Errera'ko antzeslariyen trebetasuna.

Egin-biar zutena, eta egin zutenaren izenak abek dira:

"Iziartxo", Agirrezabalaga'tar Floren; "Joxepa", Erdabide'tar Asun; "Xabier", Berra'tar Anselma; "Mikel", Erdabide'tar Jakoba; "Apaiz jauna", Kortajarena'tar Andoni; "Patxi", Etxarri'tar Joseba; "Gorgorio", Landa'tar Pantzeska; "Silberi", Olaizola'tar Kauldi; eta "Mutil bat" Garin'dar Felipe.

Beste asko artu dituzutenetzaz gañera artu zazute nere zorionik beroena.

Jarraitu bide ontan, euskeraren aldeko biderik onenetakoa da ta.

**"Mus" eta "tute"ko txapelketak**

Astearte ontan asi dira Errera'ko Eusko Etxea'ko bazkideen artean txapelketa edo "campeonato" oyek eta beragatik gizaseme ugari biltzen da Batzokiyan jokaldi oyen gora berak ikusi nayan. Amalau binako edo "pareja" badira musian, eta zazpi tutian. Zeintzuk txapeldun izango diran ez da errexa asmatzen, bada jokalari danak onak dira, eta danak sayatzen dira irabazten.

**Ezpata-dantza**

Gaztiak ere ari dira euskotar dantza ariñ, trebe ta alaigarri au ikasten. Astian iru aldiz izaten dituzten beren ensayuak, donostiar ezpata-

dantzari bat erakusle dutela. Denbora gutxi barru bi talde antolatuko dira.

**Eskerrak**

Beretarbide'tar Joseba Imanol'ek esan dit bere ordetik eskerrak emateko bere ama zanaren "kanposantura" gorputza eramatia, eta bere animaren alde elizako eginkizunetan izandu ziran guztiari. Ara zuk esandakua egin.

**Uri Buru Batza**

Datorren igandian, illak 26, goizeko 11'tan izango da Altza'ko Uri Buru berriya izendatzeko batzarra, Errera'ko Batzokiyan.

Nolaz au dan abertzale danari dagokiyen garrantzizko gauza, danak biarrian gera bertan izateko.

[98]

*Argia*, 1933-02-26 - 621. zbka.

**[Erredakzioa]**

**Lapurrak**

-Errera'n Ibarbi'tar Manuelen ollotegitik bost ollasko aundi eta bi untxi lapurtu zituan Pasai'ko Trintxerpe'n bizi dan prantses-euskaldun batek.

Goizeko ordubata ta erdian panparroi asko etxera zijoala arrapatu zuten Altza'ko gau-amabiak.

Espetxean egun batzuetan egon da ostera lanean asia izan bear du lapur-ollo-salda-zaleak.

Egurra, egurra olakoai.

[99]

*El Día*, 1933-03-08

**Itani**

**Uri Buru Batza**

Juan dan igandian zortzi, Otsailla'ren 26'an, izan gendun Errera'ko Batzokiyan, Altza'ko Uri Buru berriya izendatzeko batzarra, eta bertan izendatu ziran:

Lendakari: Alkiza'tar Joseba.
Idazkari: Elizalde'tar Sebasten.
Diruzai: Landa'tar Paul.

Itxaro degu ogandik, beren aurrekuak bezela, ondo beteko dutela beren eginbearrak Jaungoikua eta Lege Zarra'ren aldez.

**Antzerki jaia**

Jarraituaz aurtengo neguko oiturari, Errera'ko Eusko Etxea'k eratuta, Batzokiyan izan zan juan dan igandian ere, jai aldi bat.

Bertan antzestu zuten emengo antzeslari trebe ta yayoak oso parregille diran bi antzerki, izena dutenak "Zanpantzar" (iñauterien gaiñ) eta "¿Bañan, zein naiz ni?". Jendiak egin zun naiko par, eta oso alaitsu atera zan olako atzalde ederra pasata.

**"Mus" eta "tute"ko txapelketak**

Illuntzatan, jendia ugari bilduaz, Errera'ko Batzokiyan, ari dira jokatzen bi txapelketa abek. Irabazteko asmo asko zuten batzuek ikusten ditugu atzera xamar darela. Jokaldi abetan naiz gaztiak alegindu, oraindik ez dare zarrari txapelduntasuna irabazteko aña jokuan egiñak, bañan alaz guztiz ere bada binako edo pareja gazte bat naiko larri erabiltzen dutenak joku oyetako jaintxoari, bada mus'ian lau batian aurretik dijuaztenen artian dare, eta tuti'an ere aurrenik. Ikusiko degu azkenian zeintzuk izaten diran txapelketa aben irabazleak edo kanpeoyak.

**Bergara aldera**

Nolaz Altza'ko Udal edo Ayuntamentuan zegon Erdabide'tar Fernando jauna, izendatu duten Elgeta'ko idazkari edo sekretario, bere sendiyakin juan zaigu Bergara'ra bizitzera.

Asko sentitu degu erri ontatik aldendutzera, batez ere bi alabak Axun ta Pilar, emakume abertzaleak eta antzeslari trebeak.

Ondo bizi.

**Euskera'ren alde**

Azkeneko egun abetan, ikusten ari gera, nola Sotos eta Martinez eta beren antzekoak, ari dira zayatzen gure euskera maitearen alde. Ez zazutela uste ez naizela egiyetan ari.

-Juan dan igandian Donostia'n Ondarreta'ko espetxian gertatu zanaren ondorian, euskaldun bat baño geyori entzun diyet mota klase ontako itzak: "Orain arte asko zayatu ez banak ere euskera egiten emendik aurrera alegindukoo nak".

Eskerrik asko, Sotos eta Martinez jaunak, oraindik lo somorruan zegon jendia esnatu dezutelako.

[100]

*El Día*, 1933-03-19

**Itani**

**Itzaldi abertzalea**

Iragarrita zegon bezela, Gipuzko Idazkaritza'k eratuta izan degun juan dan ostegunian, Errera'ko Batzokiyan itzaldi aberkoi bat, oso ederra eta entzungarriya.

Bertan, itz egin zuten oso yayo eta egoki, beren itzaldi guziyetan bezela, ernaniar andereño Egiguren'dar Kistiñe eta Donosti'ko mendigoizale gazte, Zumalabe'tar Agustin'ek.

Errera'ko Eusko Etxea'ko lendakariak itz batzuk zuzendu ondoren, altxa zan Egiguren'dar Kistiñe, eta bere lenbiziko itzak izandu ziran, emengo abertzaleari batez ere emakumeari, emateko Ernani'ko Emakume Abertzale Batza'ren izenian agur maitekorra.

Gero jarraitu zun euskera garbi ta alayian, erakutziyaz aditzalleari zein mingarriya dan eusko abertzalearentzat ikustea gure aberri Euzkadi maitia, menperatua beste aberri batzuengatik, eta argi eta garbi erakutzi zun, guk gure aberriya Euzkadi askatzea nai eta bere ona billatzen badegu, ez gerala orregatik beste aberriyaren kontra, eta aberri bakoitza zayatu biar dubela bere ona arkitzen, ezer ere itxaro gabe bestiengandik.

Bukatu zuben adieraziyaz emakumiak badutela orain gizonak añe eskubide auteskunde edo botuetan, eta danak zayatu biar degula Jaungoikua eta Euzkadi'ren alde, amaituaz gure irakasle Arana ta Goiri'tar Sabin'en itz eder abekin: "Gu Euzkadi'rentzat eta Euzkadi Jaungoikua'rentzat".

Bukatu zubanian, asko txalotua izandu zan, tartian maiz izandu zan bezela.

Ondoren asi zan Zumalabe'tar Agustin, agurtuaz Donosti'ko mendigoizalien izenian, eta itz egin zigun Euzkadi'n diran alderdi edo "partido político"ren gaiñ esanaz zer ikurritza edo lema duten Euzkadi'n ari diranian, eta nola Madrid aldian bestelaz jokatzen duten; erakutziyaz ez dala

Eusko Alderdi Jeltzalia baño geyo zayatzen danik euskotarren aldez, eta ezin genezakegula bestietatik ezen itxaropenik eduki, gai onetzaz.

Gero esan zuan Bizkaya'n zer gertatzen dan baserritarrakin, au da nola Bizkai'ko Idazkaritza'k dirua aurreratzen diyen baserritarrari abek denbora baten buruan, beren basetxearen jabe izan ditezen, diru aurreratu orrekin egiten dute lanaren bitartez, eta ez sozialistak eta komunistak diyotenez nagusiyari ostuta.

Baita ere esan zuan euskeldunak ez gerala gudazaliak, ez degula gerrarik nai, bada aberriyaren askatasunaren arazoak eta jun-etorriyak ez dirala orrelaz berdintzen, bada guda edo gerra ez da gizonentzat baizik abere edo animaliyentzat.

Au ere, bestia bezela, oso txalotua izandu zan.

Gero, Errera'ko Eusko Etxea'ko lendakariak esan zigun jarraituko zala noizik noiz, itzaldiyak ematen, eta oni bukaera eman zitzayon oste edo jende dana zutik jarrita Eusko Abendaren Ereserkia abestuaz.

Oso ederki eratuba izandu zan itzaldi edo konferentzi au, eta pozik ikusiko genduke aldan maizena berriz ere izatia, bada abertzaletasunaren egiyak jakiteko zaletasun aundiya dago erri ontan, eta danaren onerako dira gauz abek.

Orregatik, eskerrak eman ondoren oraingo au eratu eta egin dutenari, eskatzen diyet benetan, jarraitzeko asitako bidian.

Dana, Jaungoikua eta Lege zarra'ren alde.

[101]

*El Día*, 1933-03-24

**Itani**

"Tute" eta "mus"eko txapelketak

Errera'ko batzokiyan, aspaldiko ontan jokatzen ari ziran bi txapelketa abek, bukaera larrikoak izan dira irabazi dutenentzako.

Tutian, zazpi binako edo pareja'ren artian Arregi-Galarraga eta Asurmendi-Arzak, 4-3 irabaziyaz, txapelduntasuna bereganatu zuten. Zorionak.

Gero esan dezatela, zarrak daren tokiyan, gaztiak jokurako baliyo ez dutela.

Bañan gauza ez da emen bukatu. Azkena geratu dan binako edo parejak, ez ezagutu nayian zeñen txarrak diran, jakin detanez, listo omen dago jokatzeko arkume bat, txapelkera ontako irabazleari edo beste edozein binakoari, eta ortako "desafiyua" egiña omen daukate. Ikusiko da bateonbatek altxatzen duan.

Tute'kua larriya izan bada ere, mus'ekua ez da gutxiyago izan. Iru binako zeuden berdin, bakoitzak jokaldi bakarra jokatzeko zutela, eta naiz Landa-Alkiza, eta Ansa-Elosegi'k, beren jokaldiak irabazi, Zubizarreta-Loinaz, denbora guztiyan aurretik ibili ziranak, atsalde txar batian, galdu zuten, danetan (14 binako) azkena gelditu diranakin, galdurikan itxaropen osoak. Beste batian izango dezute suerte obiagua.

Orrela, nolaz gelditu ziraden, bi binako aurretik, zein txapeldun izateko, beren artian jokatu zuten irabaziyaz Ansa-Elosegi'k 3-2, Landa-Alkiza'ri abek aurreneko bi "ustelak" egin arren. Zorionak zueiri ere.

Ondoren, txapeldunari eman zizayen beren sariya.

**Itzaldi abertzalea**

Datorren larunbateko atsaldian, izango da Altza'ko Eusko Gaztediyak eratuta kaxko'ko Batzokiyan, itzaldi aberboi bat, itz egiñaz Ugartetxea'tar Donato jaunak.

Len, beste toki askotzaz gañera, entzun geniyon jaun oni Errera'n eta oso gogozkoa izan zitzaigun. Orrelaz oso zaletasun aundiya dago, berriz ere bere itz xamur eta mamitsua aditzeko.

[102]

*El Día*, 1933-03-24

**Altza-gaiñ**

**Euskel izenak**

Usobiaga'tar Anakleto abertzale zintzoak ugaritua ikusi du sendia alabatxo batekin. Izena Gillelma Luki jarri diote aurtxoari.

-Baita ere Elizalde'tar Sebasten oraiñ berriro arte Eusko Gaztedi'ko lendakari zanak Miren Nekane izen polita jarri dio bere alaba jaio berriari. Zorionak abertzale oeri eta era berean beren emazteari.

**Txapelketa**

Amaitu dira batzokian, mus, puntxo eta tute'ko bazkideen txapelketak. Ona ondoren txapeldunak.

Mus'ean: Otaegi'tar Erramun eta Galarraga'tar Joseba.

Puntxoan: Arrieta'tar Koldobika eta Muxika'tar Andoni.

Tutean: Otaegi'tar Andoni eta Esnaola'tar Joseba.

**Itzaldi aberkoia**

Larunbatean (biyar) itzaldi aberkoia degu batzokian. Ugartetxea'tar Donato izlari trebea degu itzegiten. Zeiñ da azaldu bearri ez dago noski.

Askotan inguru oetan entzuna izan arren, berriro ere oneri entzuteko gogo aundiarekin agertzen gera emengo abertzaleak.

8'etan izango da eta guziok bildu zaitezte berari entzutera.

[103]

*El Día*, 1933-04-23

**Itani**

**Donostia'ko jai aberkoiak**

Il onen 16'an Berpizkunde egunian, Donostian izan ziran jai aberkoiak oso ikusgarriyak izan zirala ez dago nik esan biarrik, eta askori berak erakusten digutenez nolako "tripakomiñak" egin diyen, ere ez.

Gure poza aundiya izan arren bertan ikusi genduna gatik, aundiyagoa da jakiñian altzatar erreratarrak ere alegindu eta zayatu dirala jai oyen aunditasunagatik, bada emengo mendigoizaleak beste erri askotakoaren artian an ibilli ziran "guardia de la porra"rena egiten Donostia'ko kalletan.

Baita ezpatadantzariak ere, bi talde antolatuak darenak, beren lenbiziko debut igande ortan egiñak dira, eta diyotenez oso yayo ta egoki.

Zer ezanik ez dago, emengo abertzaletatik berdin, gizaseme ta emakumiak, bai goizian Santa Mari'ko Jaupa edo mesa nagusi ederrera eta bai arratsaldeko jai aundietara oste edo jendetza aundiya izan zala.

**Antzerki jayak**

Emengo antzerki zaleak arrituta galdeketan dabiltza nola aspaldiko ontan erreratar antzeslariyak geldi daren, eta abek berriz ere, bizi dira-

la erakustekotan darela, eta dakitanez Donostia'ko Saski Naski'ko aretoan, juan dan "Eusko Jakintza Astea" (Semana Cultural Vasca) antzestutako oso antzerki polit bat ikasten aziyak dira.

Geyo esan nezakenian, au da antzerkiyaren izena, eta zeñ izango da eguna eta ordua, bada ez det uste emendik aurrera orain arte bezela arratsaldian izango danik, ba egunak nola asko luzatzen ari diran, obeto iruditzen zait eta ala uste det bestiari ere, illunabarrian izatia.

**Sukarrieta'ra jun etorriya**

Aspaldiko ontan bazegon emengo abertzaliaren artian, gure irakasle Arana ta Goiri'tar Sabin dagon illobira juateko asmoa, eta oraingo ontan gogor ekin diyotelakuan nago.

Orregatik, jun etorri au egin nai dutenak, zer ezanik ez dago zeñen alaitsua izan biar dun ori abertzale batentzako, eman dezala bere izena, ortarako irikiya dagon lekuan Batzokiyan.

**Eibartarra'ri ikurriña**

Dagon jakiñen gañian dago beste erri batzutzaz gañera, Eibar'en gertatutako gauz lotsagarriyak, oyen artian ango Eusko Gastedi'ko ikurriña nola erre duten erri ortako "zebilizatuak" eta gure agintariyak erabakita daukaten bezela, emen ere irikiya dago arpidea amar xentimo'ko "cuota única" jarrita, ikurriñ berri batentzat.

**Izpar beltza**

Julio Ciganda'ren arotseyan, lanian ari zala ostiraleko arratsaldian "polea" batek buruan jota, bizia galdu du Errera'ko Eusko Etxea'ko bazkide zan Santos'tar Kepa, utziyaz atzekabe osoan bere andre eta bi umiak.

Artu bezate abek nere agur-samiña, eta irakurleak zuzendu Goiko Jauna'ri aita gure bat bere gogoaren alde.

Bere anima'ren alde elizkizunak noiz izango diran batzokiyan esango da.

**Euskal izena**

Errera'ko Eusko Etxea'ko lendakari izandako Olaizola'tar Kauldi'ren emaztiak izandu du semetxo bat, eta guraso eusko abertzaliei dagokion bezela, euskel izen polita ipiñi diyote, Imanol.

Zorionak, eta ondo zaitu landaretxo ori, iritxi dedin izatera mendigoizale jator bat.

[104]

*Argia*, 1933-05-14 - 632. zbka.

**[Erredakzioa]**

**Pasaikoa**

Pasaiko portuan lanean asiak dira aduana berriak eta egiten. Pasai ta Altzako lanik gabeak iñondik antxe lana egin bear. Nagusiak ere bayetzean jarriak dira baño lenago beren langille guztiak sartu ta gero. Lanik gabeak berriz ezetz; berak lenbizi bear dutela, orren itxarapenean egon dirala ta orain arte. Gobernadorea nagusien alde.

Indar gutxi izan zuan oporketa onek ere. Eusko-langilleak berarekin zer ikusirik etzutela ta lanera joan ziralako noski beste ezergatik baño geyago.

[105]

*El Día*, 1933-05-19

**Itani**

**Ezkontza**

Juan dan astian, emengo San Luis elizan bein betiko alkartu da donostiar gazte batekin emengo E.A.B.'ko Sarasola'tar Miren Koldobike, neskatil ona.

Zorionak eta ondo izatia opa dizuet orain artu dezuten bizi modu berriyan.

**Euskel izena**

Errera'ko Eusko Etxea'ko lendakari dan Mujika'tar Balendin'en emaztiak izan du alabatxo bat, zeñi batayatzeakoan ipiñi dioten Nere Miren euskel izen polita.

Zorionak gurasoai.

**Sukarrieta'ra jun-etorriya**

Erri ontako abertzaliak asmoa daukaten bezela datorren illeko igande batian izango da, euskotarrentzat ain oroigarri zaigun erri ortara ibillaldi bat.

Bertara juan nai dutenak, zuzendu bitez Altza'ko Eusko Gaztedi'ra edo Errera'ko Eusko Etxe'ra, nun azalduko zaizuen ibillaldi ortako gora-berak.

Arren, euskotar abertzale danok, ez da noiz-nai orrelako egokitasunarik izaten, eta ez oraingo au galdu.

**Lauburu gaitza**

Beste erri askotara bezela, onera ere iritxi dira batzuri on asko egin ez diyen lauburu egin-zaliak, eta amabost bat egunian jendiaren ikusgai egon ondoren lauburu oyek, tapatu egin dituzte geyago begiko gaitzik egin ez dezayen orain arte naikoa egin diñenari. Len orma edo paretak batzuen itxurako itxuziyak bazeuden, orain ez daude dotoreago.

Ori dala edo ez dala, emengotzaz ere gogoratuaz España'ko gobernadoria Gipuzkoa'n dagoana, "loteri" pixkat eman diye Olaizola'tar Kauldi, Imaz'tar Joseba eta Mujika'tar Balendin'i, bakoitzari 250 laurlekoz eskatuaz.

[106]

*El Día*, 1933-06-06

**Itani**

**Sukarrieta-ra jun etorriya**

Lenagoko batian aitatu nuben asmua beteko dan itxura artzen ari da, eta dakitenez, il onen 11'ko antolatua dago berebil autobus bat 38 lagunarentzat tokiya duna.

Ibillaldia izango da: emendik goizeko 4'tan atera. Donosti'tik itxas-ertzez Orio, Zarauz, Zumaia, Deba, Ondarroa barrena Gernika'ra eta emen gelditxu bat egin da Sukarrieta'ra, emen ere beste gelditxo bat egiñez, Bilbao'ra baskaltzera, eta gero arratsaldia bira etxe aldera.

Zer esanik ez dago zeñen gogokua izan biar dun abertzale batentzat erri oietaz igaroaz, ikustia Gernika'ko areitz bedeinkatua nun bere itzalpian gure asabak egiten zituzten berentzat legiak, eta irixtea gure irakasle maite Arana Goiri'tar Sabin'en illobi aurrera eta bertan otoitz egitea beragatik eta berak izan zitun asmoagatik.

Abek onela izanez itxaro degu erraz beteko dala berebil-autobus ori (onuzkero betia ez badago) eta orregatik atzeratubak zaudeztenok lenbait len zuen izenak eman.

Ibillera ontako beste gora berak jakin nai ditubenak, galde dezala Altza'ko edo Errera'ko batzokiyetan ortarako daudenai.

[107]

*El Día*, 1933-06-22

**Itani**

**Ekaitz kaltegarria**

Juan diran egunetan izan diran ugoldeak, danen jakiñen gañian dagon bezela, erri zigortuena, gauzetan ez bada ere bai bizietan, gure au izan degu. Zeintzuk diraden illak eta nolaz izan ziran ere lenagoko egunetan izparringi periodikuak esan dute.

Beren gorputz eramatian, larunbateko seietan izan zana, gutxitan oi dan añako oste edo jendetza izan zan, aurretik zirala España'ko gobernadoria Gipuzkoan, Altza'ko alkate eta ziñegotzi kontzejalak eta beste jaun agintari batzuk.

Astelen eta astearte goizetan izan ziran elizkizunak il ziradenen, gogoaren alde, eta abetan ere jende asko izanik.

Au dala ta, emengo San Luis pestak egitia utzi dute, eta oso ondo iduritzen zaigu, bada ez dago erriya ortarako.

Gauz negargarri abek oso atsekabetu gaituzte, eta orain alegindu bear gera al degunak al degun eran ondutzen ondu leikena.

Orregatik, Errera'ko Eusko Etxeak adituaz Gipuzko Buru Batzar'en deya, saiotan astera dijoa, eta bere antzeslariyak, aspaldiko ontan geldi egon arren, prest dira datorren igandian antzestutzeko Garitaonandia'tar Bitor'en antzerki oso polita: "Aitona eta billoba" (bi ateralditan).

Bertan biltzen dan dirua izango da, ugoldeak zigortuenak utzi dituztenen alde, eta arren dei egiten zaie abertzaleai eta ez diranai ere, danak izan ditezela datorren igandian Errera'ko batzokiyan, onelaz berak denbora oso atsegintsu igaroaz, egingo dute anaitasunezko gauza bat ugoldearen zigorkada izan dutenaren mesedez.

Orain udara izanez, eta egunak luziak, bi alditan bera antzestuko da asiera emanez lendabizikoak arratsaldeko 4'tan eta urrengoak illuntzako 8'tan.

[108]

*Argia*, 1933-06-25 - 638. zbka.

**[Erredakzioa]**

Ostegun eta ostiraleko ugoldeak kalte aundiak egin ditu.

Negarra sartu zan, Gipuzkoa osoan joan dan ostiralean zortzi. Zerutik lurrera erori ziran euri-tantoak malko biurtu-ta ere ez lirake noski naikoak izango, izan diran eriotz, kalte ta ondamendiak utzi duten atsekabea agertzeko.

Ostegun-arratsean izan zan lenengoz eurite aundia ta Astigarraga, Agiña, Errera ta beste erritako zenbait etxetan naiko gaizki ibilliak ziran goizeko ordubi-ordubiterditan. Okerragorik gabe igaro zan ordea, ibillera txarrak gora bera. Erori zan euria ugari baño ala ere ortzea illun zegon urrengo egunean.

Arratsean gertatu zana eguerdian gertatu bear zanaren ondoan etzan ezertxo ere. Amaikak aldian asi zan euria eraso gogor-bizietan eta bi ordu ta erditan atz-unerik gabe bota ta bota etzula atertuko... Zarrak ere ez omen dute alako euriterik ezagutu beren denboran.

Berealako batean zokoak itxaso biurturik gelditu ziran; minututako kontuan bete ziran urez etxien beeko bizitzak; amen esaterako arrapatu zitun urak bi metro ta bi metro ta erdiko goiak.

Orlako ugoldeak zer nolako kalteak egingo zitun begien aurrean dago.

Okerrenetik asita. Altza'ko Errera-auzoan iru ba dira illak.

Aranburu'tar Juan Jose, 62 urtekoa ta onen emazte Elosegi'tar Nikolasa, 53 urtekoa. Bestea ere emakumea da: Urraiz'tar Asunzion, 25 urtekoa ta ezkondua.

Oek irurok etxe-atzean Juan Jose'k zeukan ollotegiko olloak barrura sartzera atera ziran. Etxe-ondoan orma aundi bat zegon an dijoan bete-lanari eusteko. Goitik datorren uraren indarrak bota ta bi andreak azpian artu zitun.

Asunzion agiri etzala gelditu zan; Nikolasa ordea gerriz bekoa azpian eta goikoa agirian zula. Laguntza-eske itzegin ere egiten zun. Bere senarra, alaba, aizpa ta pralle bat joan zitzaizkion laguntzera. Senarrra zerbaiten billa zijoala edo uraren indarrak zurrunbilloan eraman zun eta ito zan gizarajoa.

Besteak egiñalak egin zituten arri-artetik emakumea ateratzeko, baña, alperrik izan zan guztia, eta berak ere itota il naiz ez ba zuten bizi arritartean zegona ta alde bear izan zuten.

Une larria, il-zorian zegonarentzat. "Arri ori kendu zadazute"... esaten omen zun eta arririk ezin kendu besteak. Une larria besteentzat ere. Ama... aizpa iltzen ikusten eta ezertxo ere ezin egin. Iltzen utzi egin bear.

[109]

*El Día*, 1933-06-28

**Itani**

**Igandeko jaupa nagusiya**

Juan dan igandian izan gendun, Errera'ko San Luis'en elizan, amarreta jaupa edo meza nagusiya, abestuaz Pasai'ko "Schola Cantorum"ek, berak oi dun bezin ondo, oste jendetza asko izanik.

Jaupa au ateratzen zun Errera'ko Eusko Etxea'k emengo Aranburu'tar Jose, Elosegi'tar Nikolasa eta Urraiz'tar Asunzion, juan dan ugoldean bere eriotza izan zutenaren gogoaren alde.

**Antzerki jaia**

Naiz lenengo aldiz bi bider egiteko asmoa izan, igandeko izparringi-periodiku ontan adierazi zan bezela, bein bakarrik arratsaldeko 6'tan izan zen antzerki jaia.

Danen jakiñen gañian dagon bezela, bertan biltzen zan dirua, azkeneko ugoldeak kaltetuta utzi ditunaren alde zan, eta naiz orregatik sarrera zerbait galextiago jarri, jendia ugari izan zan azalduaz bere anaitasuna zoritxarrean arkitzen diranai.

Asieran neurtitz batzuetan emengo batek, lenengoz agurutaz bertan ziranak, adierazi zuan zertarako zan jai-aldi au, agertuaz bere eta danaren samintasuna, eta eskartuaz guziai beren laguntasuna.

Urrena "Praixku" bakarrizketa egin zuan Muguruza'tar Toma gaztiak.

Ondoren "Aitona ta billoba" Batzoki ontako antzeslariyak, eta abek beti ondo ta egoki egin izan badute ere, azkenengo ontan iñoiz ez bezela azaldu zuten beren trebetasuna.

Tartetan, pianu-jotzalle bik bete zute jendiaren naya, juaz abesti oso politak.

Danentzako izan ziran txalo ugariak, batez ere antzeslariyentzat.

**Eskerrak**

Batzokiyen izenian eskerrak lagundu zuten danari, batez ere goizeko meza ain ondo abestu zutenai, eta Donosti'ko Agirre'tar Eusebi jaunari, berak bere borondate onez utzi dualako pianua jaialdi ontarako.

Baita ere Altza'ko endore-alkate jaunari, jakiñaz zertarako zan, utzi dualako inpuestorik gabe jaialdi ontako dirua.

**Arpidea**

Gipuzko Buru Batza'n agindua betiaz, Errera'ko batzokiyan dago irikiya arpide bat, azkeneko ugoldean kaltetuta izan diranen alde.

Errukitasunagatik, anaitasunagatik, lagundu etsekabez betiak zoritxarrean arkitzen diranak.

**San Luisen festak**

Juan dan asteazkenian, Garagarrilla'ren 21'an zan San Luis, Errera'ko patroien eguna, eta goizian jaupa edo meza nagusi ederra eta beste eleizkizunak besterik ez degu izan aurten, bada urtero kalian egiten diran jayak ez dira aurten izan, aurreko egunetan izan zan ugoldeagatik eta berak utzi zigun gertaera negargarriagatik.

Diyotenez geroagoako atzeratuak dira.

**Altza'ko festak**

Aurki izan ditugu San Marzial eta Santa Isabel'ko jayak, Altza kaskoan, eta uste degu nolakoak izango diran esanaz aurreko urtietan bezela zabalduko dituztela orritxoak.

[110]

*El Día*, 1933-07-08

**Itani**

**Altza'ko pestak**

Altza errikoak ospatu dituzte bere patroi San Marzial'en jayak, eta agur egin diye datorren urte arte. Bañan ez dago zergatik atsekabeturik, bada uri ontan pestarik ez da beñere palta, bada oraindik badauzkagu Errera, Binagrea eta Intxaurrondo'kuak, beste errikuetaz gañera, alai nai añe dantz egiteko gaztiak aspertu gabe.

**Tromff Errera'ko batzokiyan**

Ostegun arratsian, izan gendun emen Tromff jauna, eta bere egintza ikusgarriak asko gustatau zitzaizkien berak ikusten izan ziranari, beragatik izanik oso txalotua.

Oso abertzale agertu zitzaigun, eta ziyonez au zun oraingoz azkenekoa Gipuzkoa'n, bada Bizkai'ra omen dijoa.

**Bolari txapelketa**

Lengo urtietan bezela, emengo "Herrera Sport"ek eratuta, aurten ere ari zan txapelketa edo kanpeonatu au jokatzen "Txingurri"ko bolatokiyan, bañan nola azkeneko ugoldean kaltiak onera ere iritxi ziran, atzeratu biarra izan zun, eta igandian egingo dituzte azkeneko sayoak, oraindik irabazle izateko itxaropenakin gelditzen diran bolariyak.

Beste urtietan izan diran txapeldunak abek dira:

Binakua edo parejan:

1930: Salsamendi ta Ansa, uliatarrak, 201 billakin.
1931: Beristain ta Ansa, uliatarrak, 236 brillakin.
1932: Ugarteburu anayak, ezkiotarrak, 227 brillakin.

Banakuan:

1930: Ansa'tar Felix, uliatarra.
1931: Sodupe'tar Jokin, añorgatarra.
1932: Ugarteburu'tar Martxel, ezkiotarra.

¿1933'gko zeintzuk eta zenbatekin ote ditugu?

Euskal jolas garbi oyek, txapelketa ontan ikusi nai dutenak azaldu bezterik ez du "Txingurri"ra, bitartian sagardo ona erateko gaya izango du.

**Ugoldeagatik kaltetuaren alde**

Lengo batian esan nuen bezela, Errera'ko Eusko Etxea'n dago irikiya arpide bat ontarako. Asko dira bertara azaldu diranak zerbait emanaz, eta tartian ere bada, bere izena azaltzia nai ez dun bat, 100 laurleko eman dituna.

Oraindik azaldu ez diran gutxiyak, bada geyenak eman dute, sayatu aldunak aldun bezela gure anai urkoaren alde, batez ere orain atsekabian arkitzen diranian.

Il onen 16'rako, Altza'ko Udal edo Ayuntamentua emengo Soziedade danen laguntzakin eratzen ari da jai aundi batzuk, pelotari, korrikalari, ezpatadantzari ta abar; baita ere izango da eresbatza edo musika'ko banda. Bere garayan, azalduko da jai aben egitarau edo programa

Jaialdi abek danak izango dira bere saneurriakin eta dira azkeneko ugoldean kaltetuaren alde.

[111]

*El Día*, 1933-07-14

**Itani**

Lengo batian esan nuen bezela, datorren iganderako, zerbait antolatzeko asmoa zegon erri ontan, eta asmo oyek beteko dira jai aundi batzuk egiñaz.

¡Jayak! ¿Badakizue zertarako diran jai abek? Juan dan illeko 15 eta 16'an izan ziran ugoldeagatik kaltetuaren alde.



*"Berealako batean zokoak itxaso biurturik gelditu ziran; minututako kontuan bete ziran urez etxien beeko bizitzak; amen esaterako arrapatu zitun urak bi metro ta bi metro ta erdiko goiak."*
1933-06-16 *(Iturria: Kutxa Fototeka)*

Danen jakiñen gañian dago kaltearen aunditasuna, oso atsekabetzekoa, eta batzuen ezin ordaindua; bañan alegindu gaitezen ordaintzen aleikena, eta ortarako dira jai abek.

Orain illabete gertatutakoak astutzeko ez dira, baizik nolabaitez laguntzeko ordungo kaltetuari.

Ortarako Altza'ko Udal Ayuntamentuak, emengo Bazkun soziedade danen laguntzakin datorren iganderako eratzen ditu jai abek; eta ez nolanaikoak ere.

Nolaz egitarau edo programak erderaz bakarrik atera dituzten (Altza'n noski ez dago euskaldunik) eta [...]tuaz bidezkoa euskeraz ere azaltzia, ara emen erderatik euskeratuta.

Garagarrilla'ren 15 eta 16'eko ugoldeagatik kaltetuak izan ziranen alde, egiten diran jayak. Altza'ko Udala edo Ayuntamentuak emengo Bazkun edo Soziedade Eusko Etxea, Eusko Gaztedia, Artzak Ortzeok, Centro Republicano, Beti Aurrera eta Herrera Sport'en laguntzakin eratuak.

Jai abetan izango dira Gipuzkoa'ko agintariak.

Jolastokieta'ko zelaian, Uztaila'ren 16'an.

Goizian: 8'tan Artzak Ortzeok'ko fanfarra, neskatil politak lagun dituala, erriyan ibilliko da, jendiaren errukitasunari zerbait eskatuaz.

9 t'erditan: Footbal'eko partidua jokatuaz: Pasayako Lagun Ederrak eta C.D. Arsenal.

10 t'erditan: Pelota partidua eskuz, izanez jokalariyak lau pelotari Gipuzkoa'ko Federaziyoak jarriko ditunak, "Herrera Sport"ek antolatua.

11 t'erditan: Aizkora apostua; Galarraga anayak, beizamatarrak, alde batetik, eta Imaz'tar Joseba ta Lizarralde'tar Jon, errezildarrak, bestetik, zuzendari izanez, aizkolari izandako oso esagun dan Paulino Uzkudun. Eusko Etxea eta Eusko Gaztedia'k antolatuta.

12'tan: Ollar neurketa, Artzak Ortzeok'ek antolatuta.

12 ta laurdenetan: Korrikalariyen arteko jaialdi aundiya, bertan izanik Gipuzkoa'ko aitze aundikoenak, eta emengo Egaña alegindukо da 3.000 neurkin edo metro'ko "marka" auzten. Herrera Sport'ek antolatuta.

Arratsaldian: 3 t'erditan: Pelota partidua: Otaegi ta Orbegozo, altzatarrak, Odriozola ta Biurrarena'ren aurka. Eusko Etxea ta Eusko Gaztedi'ak antolatuta.

4'tan: Football'eko partidu aundiya, jokatuaz: Abandotarra, donostiarrak, eta Touring Club errenderiarrak. Herrera Sport'ek antolatuta.

5'tan: Makil dantzarik eta aurresku. "Beti Aurrera"k antolatuta.

6'tan: Ezpatadantza agerketa aundiya; 150'tik 200'a dantzari izanik Eusko Etxea eta Eusko Gaztedia'k antolatuta.

Illuntzan: 9 t'erditan: "Gran Verbena a la Veneciana" bi eresbatza edo musika bandan gaiñ, txistulariyak eta abar; argi askokin ornitua egongo da. Izango dira ere edari toki eta txurro saltzalliak.

Jaialdi abetako saneurriak dira: Goizian: Gizasemeak bi errial; amalau urtetik berakoak, errial bat.

Arratsaldian: Gizasemeak, bi errial; amalau urtetik berakoak, errial bat.

Illuntzan: Gizasemeak, lau errial; emakumiak, batez.

Utzaila'ren 16'an, danok Jolastokieta'ra, gure laguntzen biarrian arkitzen diranari laguntzera. Erakutsi zayogun gure alkartasun maitekorra lagun urkoari batez ere orain atsekabian dagonian.

Au dana egin genezakegu bitartian alaituaz.

[112]

*El Día*, 1933-07-18

**Itani**

**Ikastolako umiai sariyak**

Igandian izan zuten San Luis eskolako umiak urte bukaerako sariyak, eta danak an ikusi giñutzen, alaitsu bakoitzak beria erakusten, eta bi illabeteko bakaziyuak dituztelako.

Danok dakigun bezela, lege kaltegarri baten bitartez, badijuazkigu Anai abek, eta egin dute beren agurra, emengo gurasoak atsekabetuta utzi ditun agurra, eta asmoa dago berairi omenaldi bat egiteko, ondo mereziya dutena. Bere garayian azalduko da noiz eta nola izango da.

**Igandeko jayak**

Iragarrita zegon bezela, igandian izan ziran jayak Jolastokieta'ko zelayan eta pelota tokiyan.

Eguraldiya naiz goizetik illun xamarra agertu ondutzen juan zan, eta ez berotasun geyegi eta eurik, ederra egin zun.

Asiera eman zuten jayak footbal'eko partidu batekin, eta urrena Egaña korrikalariya zayatu zan 3.000 neurkin metro'ko "marka" auzten,

bañan etzun lortu. Au bere sayoan zebillela sartu zan "Artzak Ortzeok"eko fanfarra egokiya, kalez kale dirua biltzen ibillita.

Ollar neurketa eta pelota partidu bat izan ondoren, asi ziran aizkolariyak beren trebetasuna erakutsiyaz eta izardi ugari aterata bi errejildarrak irabazi zuten. Nola irabazlearentzat ala bestientzat txalo pranko izan zan eta ondo mereziyak.

Onekin bukatu ziran goizekoak; eta bein iruterdik eskero asi ziran arratsaldekoak pelota partidu ikusgarri batekin, batez ere azkeneko tantuetan, ba etzuten nola nai irabazi Otaegi eta Orbegozo altzatarrak, baizik naiko larri ibilli zituzten galtzalliak 25'erako 23'an gelditurik.

Onen urrena ostikolariyen beste partidu bat izan zan, Errenderi'ko Touring-darrak irabaziyaz Donosti'ko Abandotarra'ri (3-2).

Ondoren Binagrea'ko "Beti Aurrera"ko makildantzariyak egin zuten beren dantzaldia eta bazkun soziedade bertako neskatil liraiñ batzuk, jantzi zuri ta txapel gorriyakin apainduta (obekin oraindik itxurazkoagoak zeuden) atera zuten aurrezkua, izanik bai mutillak eta bai neskak oso txalotuak.

Abek bukatzeakoan egin zuten sarrera ezpatadantzariyak. Txiki ta aundi danetatik ziran, eta donostiar, errenderitar, lezotar, oiartzuar, pasaitar eta emenguen artian 27 talde egiten zuten. Danen atzetik guztiyok zaintzen bezela zetorren gure gurea dan eusko ikurriña, zabal zabalik, eta bere sarreran, eta batez ere "ikurriñena" dantzatzekoan artu zuen batzuk ukatzen diyen omena, belaunikatuaz dantzariyak eta oso txalotua izanik ikusleagatik. Beren dantzak eginda zijoaztela ere asko txalotuak izan ziran ezpatadantzariyak, eta bate keskarik gabe esan leike au izan zala jai danen artian ikusgarriyen, eta geyena gustatu zana.

Au bukatuta izan zan geldi une bat, eta gero gabian izan zuten dantza egiteko gogua zutenak, nola nai eta noiz nai egiteko aukera, bada bi eresbatza edo musikako banda izanik batek bukatzerako bestiak ekiten ziyon; eta txistulariyai eta kordei jotzallari ere etziyen denbora askon pakian utzi. Gaztediya naikua alaitu zan.

Jendiak ere jator xamar erantzun zun, izanez jai abetan, batez ere arratsaldekotan. Arbol batzutatik zintzilik zeuden argazki fotografia batzuk gogoratzen zuten igandean illabeteko gertakizun negargarriyak.

Oso pozez ikusi degu altzatar bazkun soziedade danen alkartasuna onlako gauzetarako; iraun dezala.

[113]

*Argia*, 1933-07-23 - 642. zbka.

**[Erredakzioa]**

**Gaur zortzi Jolastokietan**

Urolde-kalteen ordaingarri zerbait biltzeko Altzako udalak erriko bazkunak lagun zitula jayaldiak egin zitun igandez Jolastokieta zelai ederrean. Goizean, ostikoketa-partidua, pelota-partidua eskuz, lasterketa-sayoa, ollar-gudua ta aizkolariak. Arratsaldean beste pelota-partidua, futbol-partidua, aurreskua, makildantzariak, 224 ezpatadantzariak. Bederatzi ta erditan zan jaya. Eusko-jolasak atsegiñen; guztien gañetik ezpatadantza. Jendea poliki. Sarrerak ordainduta izan ziran.

[114]

*El Día*, 1933-07-27

**Itani**

**Agurketa**

19 urte igaro dituzten Anai agurgarriyak badijoazkigu; urte oyek danetan emengo umetxoai, emengo gaztediyari ainbeste ta erakutsi on egin dutenai, geyago ortan jarraitzia galerazi egiten zaye.

Denbora ortan, ona besterik egin ez eta beren alegiñakin sayatu diranai onbidia erakusten erreratarrai (eta baita aldameneko erriko azkori ere), orain bere saritzaz, emendik bidaldu egiten dituzte, gaizki erilleak bezela, berengandik ezer nai ez dala esanaz.

¿Bañan zeñek agintzen diye alde egiteko? ¿Erreratarrak, berangandik ona besterik izan ez dutenak? Ezin leike; ez, ez dira orren esker txarrekoak; ez dute olakorik egiteko ausarkeririk; ez da beren gogokoa ala ordaintzia askeneko 19 urte abetako oyen eginkizunak.

Ori agindu dute Madrid aldetik lege zital baten bitartez; ez, ori ez da erriyaren naya, naiz ala esan ala izatia nai luketenak.

Dana dala, bata edo bestiaren erruz, danon kalterako izango da.

Bañan juan baño len, erreratarrak beren eskergogua azaldu nai diote, eta ortarako emengo guraso katolikoaren bazkunak izendatu ditu batzuk datorren iganderako, illan 30'an, San Luis'ko ikastolan irakasle

izan diranari omenaldia egiteko, eta au nola izango dan argitaratuko omen dute bere garayan.

Egun ortan bildu gindezke irakasle eta ikasle, maixu eta eskolako mutillak izan geranok; ayentzat oso gustagarri izango da noski "beren mutillakin" egoita eta abentzat ere ala biar du izan agurtzia eta eskartzia ala merezi dutenak.

**Euskel izena**

Atorrasgasti'tar Erasmo'ren emaztiak izandu semetxo bat, eta batayatzeakoan ipiñi diote Iñaki euskel izen polita. Zorionak.

**Iñaki Deuna**

Egun ontan Donostia'n izan biar dun ezpatadantzari eta gorularien jai ikusgarrirako ari dira emengoak ere sayotan. Diyotenez, eta ala uste det nik ere, jai eder bat izango da; naikoa da jakitia zeñek eratzen dun.

[115]

*El Día*, 1933-08-02

**Itani**

**Ermanuari omenaldia**

Aurretik esana zegon bezela, juan dan igandian zan askeneko 19 urte abetako lanagatik ondo irabaziya zutenari omena: eta egitan izan dala oroigarriya.

Izparringi periodiku ontan azaldu zan egitarau edo programan esaten zuan bezala asiera eman zizayon goizeko 10'tan Jaupa edo meza nagusiyakin, izanez bai mezemallia, eta bai apaiz meza emanalaguntzalliak, Ermanu aben eskoletan ibillitakuak.

Itzaldi sermoia egin zun Aita Akilino karmeldarrak, au ere emengoa eta eskola ortan izana; lendabiziko agurketa euskera egin ondoren jarraitu zun erderaz, eta ondo garbi azaldu zun bere ta erreratar danon esker sutsuak urte oyek danetan emengo irakasle izan diranari, eta zenbait añeko kaltia izango dan danontzat geyago berak ezin jarraitzia orain arte ain ondo bete duten lanari; eta ori galerazten dutenentzako ere izan zitun itz egizko batzuk; bukatu zun adieraziyaz gurasoari beren betebiarrak beren umetxoak biar bezelako katoliko Jaungoiko zaliak izateko, batez ere oraingo ekaitz aldi ontan.

Oso entzungarriya izan zan bere itzaldi au, eta keskik gabe entzule danari buruan sartu zayena bere esate egizkoak.

Bukaeran otoitztu zan "eresponsua". H. Carlos eta eskola ortan izandako beste il diranaren alde.

Eliza'ko sarreran eta irteran Errera'ko Batzokiko ezpatadantzari talde aundiyekoenak beren ezpatakin egiten zuten arku petik pasa ziran omenalduak, apaiz eta beste jaunak.

Mesa bukatuta San Luis'ko eskolan bildu ziraden alaitasun edererian aspaldin ikusi gabeko asko, alkar agurtuaz, izanik au danentzat oso gogozkoa.

Guraso katolikoaren alkartasuneko lendakari dan Landa'tar Paul'ek lendabizi itz egin zun, azalduaz bere eskerrak ala merezi dutenari beren lanangatik eta erakutziyaz bere samintasuna bere aurkako lege zital orregatik; gero emengo parroko On Zakarias'ek, eta askeneko Ermanu



*“Ermanuari omenaldia”*
1933-07-30 *(Iturria: Felipe Garin)*

danen izenian, orain emen buru egiten dunak, oso sentikor azalduaz bere eskerrak, Altza'ko erriyak azaltzen ziyen maitasunagandik, batez ere orain berentzat (eta danontzat) ain itun zaigun egun abetan.

Argazki edo fotografi ugari atera ziran; eta gero jendia juan zan Altza gora, berebil edo automobil ortarako zeudenetan, bada goiko "Martillun" izena dun jatetxian zan bazkariya.

Guraso, ikasle izandakoak, omenalduak, eta aben lanak ondo ikusi dutenaren artian, berreun'dik gora ziran mayian: eta danak alaitasun onian, bazkari oso ederra zegonen kontuak eman zuten.

Gero arratsaldiak, bi pelota partidu polit izan ziran, jokatuaz lenengoan orain eskolan dabiltzaten lau mutillen artian, eta bestian lau len ibillitakoak; nola partidu bat ala bestia ederki jokatuak izan ziran, danentzat izanik txalo ugariak.

Eta bukaera eman zizayen jai aberi ezpatadantzakin, dantzatuaz lau taldek, bi altzatar eta bi erreratarrak, abentzako ere txaluak izanik.

Ola igaro zan danontzat oroigarri izango dan egun au.

Onelaz agurtu zuten altza erreratarrak esker sutsuenakin ondo merezi duten Ermanuak, izanaz abegandik oso ondo artuak.

Badijoazkizu Ermanu agurgarri, irakasle on eta danen maitasuna dutenak; Jaingoikuak nai dezala lenbait-len etortzia.

**Iñaki Deunaren eguna**

Gizpuzkoa'ko zaindari dan Iñaki Deunaren eguna emen ere zertxobait ospatu degu; Batzokiyan ikurriña zabalduta egon zan egun guztin, eta etxe batzuk ere ikusi ziran ornituta leyoak eusko margo koloriakin.

Emengo ezpatadantzariyak Donostia'n Atotxa'ko zelaian izan ziran jai ikusgarrietan ziran; eta bestela ere jende asko bertaratu zan emendik.

[116]

*El Día*, 1933-09-20

**Itani**

Aspalditxoan ixilik egonagatik, berriz ere emen naiz zerbait idatzi (onela deitu al balezayoke) nayian.

Ikusten detenaz alperrikakoa iruditzen zait emengo beste idazliai, danak ni baño obeagoak, deitzera jarraitzeko bakoitzak beiñ edo bitan egin zuten lanari bada ez da naikoa oyetan baliyo dezutela erakustia eta

gero oporrian gelditzia. Ia ba, Mendigoizale Eutzi, Zubi Ondo, Noizik bein, eta Altza gaiñ, zuen alperraldiak utzi eta berriz ere ekiten diyozuten utzi ez biar zenduten lan ori.

**Batzarra**

Izparringi ontan iragarri zuten bezela, juan dan ostiral illuntzan izan zan Errera'ko batzokiyan, altzatar eta erreratar bilduaz batzarra izendatzeko Zumarraga'rako alduna.

Nolaz izparringiko dei abek erderaz bakarrik azaldu diran, galdera bat. ¿Ez alzaye egoki iruditzen Altza Buru Batzakoari euskeraz ere egitia dei abek? Eusko abertzaliak ez bagera sayatzen euskerari biar zayon begiramena edukitzen ezin genezake kejatu, askotan oi dan bezela, bestiak erdera bakarrik erabiltziaz.

Itxaro degu emendik aurrera euskeraz ere ikustia, onelaz erakuspen bat izango degu gure agintari diradenangatik.

**Arpidea**

Errera'ko Eusko Etxean dago irikiya arpide bat "Izaro" eta "Osasuna" baporiak izan zuten txokian, bermeotar arrantzaliak biziya galdu zutenen sendi errukitsuaren alde.

Zer esanik ez dago nola gelditu diran sendi famili oyek, eta gu abertzaleok biartuak gaude aldegun bezela laguntzera berari.

Egiya da arpide bat bestien urrena daukagula, bañan olakotan erakutsi biar degu zertarako dan abertzaletasuna: zoritxarrean arkitzen dira anayari laguntzeko.

Orregatik, itxaro degu beste arpideari bezela, oni ere lagunduko diyotela erreratarrak.

**Udala'ko berrik**

Altza'ko alkate Iriarte'tar Jon, eta Udal edo Ayuntamentu berrian jestore Hernandez'tar Joseba'k utzi dituzte beren karguak Gipuzkoan gobernadore dagoenen gaiñ.

[117]

*El Día*, 1933-10-14

**Itani**

Negua inguratzen ari zaigu, eta baita ere emengo antzezlari, teatro-egilleak ekin diyote lanari.

Asmoak badituzte aurtengo neguan ere lengokuan bezela, jendiaren arazo ontako nayak betetzeko, eta onegatik poztu besterik ezin genezake. Ekin diyozute ondo, jarrai ortan.

Juan dan igandian izan zuten lenbiziko ekitaldia, antzeztuaz oso polita eta erakuspen askoko dan lau ataleko "Egiazko argia", eta lan egin zuten danentzako izan ziran txaloak, batez ere Muguruza gaztetxuarentzat, oso ederki egin zulako bere urtetako batentzat ain zalla dan papera.

Tartian, Galarraga'tar Iñaki bertsolariyak egin zun sayotxo bat, eta baita ere bere anai txikienak esan zitun neurtitz batzuk, danak oso gustokuak entzuliarentzat.

Eta gure teatro-egille, antzezlariyak, ekin badiyote, ekin.

Datorren iganderako ari dira antolatzen beste jai bat. Igaz (juan dan urtian) ainbeste par eragintzun "Meza berriya" antzestuko dute. Eta ikustera juate diranari ler eragiteko asmoan, ori naikoa ez dalarik "Bateo urria", ura ere parragilleagoa dana, ere egingo dute.

Beraz ez daukate uste txarrak gazte abek, eta biartubak gaude danok laguntzera berari. Orrela, ikusiyaz datorren iganderako egitarau edo programa, itxaro degu betia ikustia batzokiya.

Asiera izango du jai onek arratsaldeko 5 1/2'tan.

Ziur gaude ikustera juaten diranak ez dirala damutuko.

**Ezkontzeko asmuakin**

Altza Buru Batza'ko lendakari dan Alkiza'tar Joseba, bere "despedida de soltero" jaitzeko, bildu zan juan dan igandian bere lagunarekin "Martillun" edari-etxean.

-Larunbatean, betiko uztartzen da erri ontako neskatill polit eta liraiñ batekin.

Ondo bizitzia opa dizugu bizimodu berriyan.

[118]

*El Día*, 1933-10-20

**Itani**

**Luistarrak Donesteben'en**

Igandian Naparrua'ko uri polit ortan zan luistarren billeran, izan ziran emengoen lendakari dana beste batzukin. Danak oso pozturik etorri ziran egun alai bat igaro zutelako.

**Antzerki jaia**

Iragarrita zegon bezela juan dan igandian bertako antzezlari gazteak egin zuten emengo batzokiyan bi antzerki parregilleak "Meza berriya" eta "Bateko urria".

Oi duten bezela, au ere oso ederki egin zuten, beragatik txalo asko jasoaz, bertan ziran ikusleengandik, eta abek batzokia betetzeraño ziran.

**Ugoldeagatik kaltetuai**

Oraindala lau illabeteko ugoldeagatik kaltetuak izan ziranai, Euzkadi guztiko Batzokitan eta bestelaz Eusko Alder Jeltzaleak (P.N.V.) bildu zitun diruen partiziyua, Altza'koentzat zana eman zizayen bakoitzari.

Emaketa au izan zan Errera'ko Eusko Etxea'n eta artu zuten danak eskartu zuten benetan, berentzako izan dan oroitasuna.

**Izpar beltza**

Errera'ko Eusko Etxea'ko bazkide zan Salaberria'tar Joseba Mirena gizon ona, il zan azkeneko igandian.

Bere goguaren alde elizkizunak izan ziran astelenian 9'tan, jendia ugari izanez bertan.

Datorren igandian, 10'tan, izango da beste jaupa edo meza bat Errera'ko Eusko Etxea'k ateratzen diyona, asmo berakin.

[119]

*Argia*, 1933-10-29 - 656. zbka.

**[Erredakzioa]**

**Asteleneko ugoldeak, lengoak baño kalte aundiagoak egin ditu zenbait erritan**

Bere kalte aundiak egin da ura jetxi zanean asi zan jendea etxeetatik irten da al zuna, al zuna egiten. Baño ala ere Pasai-Antxo'n arrisku aundia gelditu zan.

Ugoldeak Molinao'n dagon petroleo-fabrica'ko petroleo-biltokiak erabilli ta petroleo asko ixuri zan. Bi milloi litro edo bai. Ta ori guztia errian eta portuko uretan zabaldua zebillen. Beraz naikoa zan poxpolo batekin tximini bateko txinpartakin edo petroleoak su artzea egundoko su ikaragarria sortzeko.

Orregatik astelen-gauean eta asteartean ere surik pixtutzen etzioten utzi iñori Portua bera ere itxia egon da ta ezin zuten irten ez sartu itxa-

sontziak. Motor bat bakarrik ere etzan ibilli. Azteazkenerako urak eraman zun ordea geyenata okerragorik gabe igaroa da arrisku aundia.

[120]

*El Día*, 1933-11-01

**Itani**

**Ugoldea**

Oraindik lau illabete gertatukoaren oroipen samingarria genula beste aren antzeko bat izan degu.

Orduko ondamendiak al zan eran osatzen ari zan denboran, oraingo onek lengokuagatik pixka bat buru altxatzen azitakoari, berriz lurperatzen ditu.

Egun abetakuak ordia, naiz emengo kaltiak aundiyak izan, aundiyaguak egin ditu Pasai eta Errenderi aldian, eta abetan ikusi dira lendabiziko egunetik Donosti ta inguruko emakume ta mendigoizale abertzaliak berak al zuten laguntza eskeñiyaz, berriz ere ain errukitzu geratu diranai.

Emakume ta mendigoizale aben nayak, eta egintzat ere, mesere egitia bakarrik izan dira, bañan alaz ere ez dira faltatu zeintzuk esan duten, alegiya, eleziyo besperetan gaudelako egin dutela ori, oyek noski ez dira oroitzen oraindala lau illabete ez zala olakorik. Eta, ori diyotenak ere, ez al dira abek bezela eleziyo besperetan? Ez dezagun bestiak on egindakoaren damurik izan, baizik gauz txiki oyek alde batera utziyaz zaya gaitezen berriz ere laguntzen al genezaken eran, ain biarrian arkitzen diranari.

**Araudi Estatutoa**

Gauden egunetan ezin gai onetzaz zerbait esan gabe gelditu.

Datorren igandian, Azarua'ren 5'an izango dira auteskundiak danok dakigu zertarako diran, eta bere garrantzitasun edo inportanziya ezagutua dagola euskotar gusiyen aldetik iduritzen zait.

Gure erri ontara ere iritxi dira adierazi nai diguten ingi paperak, eta abekin beterik ikusten dira emengo etxe ixkiñ eta leku guztiyak.

Batzun batzuk ekin diyote lanari eta ba dago zer egiña egunerik egunera geyago igande ori bitartean.

Danontzako dago lana; iñork ez dezala utzi bestiak egingo dutelakoan ezer, bakoitzak al deguna egiten saya gaitezen.

Ez da aski eusko zaletasuna ba degula esatiarekin, baizik erakutsi dezagun egintzakin. Danok zerbait egin genezake eta ez det uste iñork ukatuko duanik bere laguntza.

"Soy tan vasco como cualquiera de vosotros" esaten dutenak ere orain dute gai ederra azaltzeko egintzakin bere esanaren egitasuna.

Iñoiz baño biarragua da botaziyua ugariya izatia; ez dijoaz aurka edo kontra botuan "no" jartzen dutenak bakarrik, abetakuak gutxi edo alerik izango ez dalakuan nago.

Legiak gogorrago jotzen du, eta leku askotan ondo adierazten danez, beren botuak ematen ez dutenak ere kontra dijoaz.

Orregatik "nere botuan gora beratik berdin izango dek" esaten dutenari sartu buruan esan orren ezegokitasuna, eta sayatu eman dezan orrek ere. Ortarako Araudi Estatuto onen onurak erakutsi, eta onekin errex jarri litezke bertarako bidean.

Egun abetan beste gauz danak alde batera utzita saya gaitezen Estatuto onen alde. Ainbeste denboran Araudi baten nayian egon geranok ez dezagun utzi itzultzen orain ain gertu daukagun au.

Eta lana danontzat ba dago, barez ere emakumientzat. Zuek emakumiak lenengo aldiz izango dezute autarki-ematia, eta beragatik zuetakoen artian errexo gertatu leike len esandako "nere botuen gora bera berdin izango den".

Emakume abertzaliak, orain gutxi arte asko azaldu ez bazerate ere, badakit oraingo ontan gogoz ekin diyozutela lanari; eta zuek gogoz artu ezkero, ba dakigu zenbat lezakezuten, eta oraingo ontan ala artu dezutelakoan nago.

Gure aberri Euzkadi kate azpian dagoana pixka bat askatu genezake, eta alegindu gaitezen, ez botua emanaz bakarrik, baizik baita ere gure gogo eta laguntzarekin besteri eman aziaz.

Oraingo nagitasunak ez luke barkaziyorik izango; eta gero ez damutzeko, gure Euskalerri maite ontan bizi geran euskaldunak eta ez diranak, danak eman zazute botua Estatutoaren alde.

Utzi ditzagun alde batera alderdi arteko asarriak eta alkartu gaitezen danok. Estatuto au ez degu ez ezkertarrena eta ez eskubitarrena, edo ondo esateko ezkertar eta eskubitar guztiyena degu, eta batekoentzat eta bestekoentzat, euskotar danontzat.

Jakin nai dunak, non edo nola eman biar duten botua, eta beste edozer gauz, galde lezake Altza'ko edo Errera'ko Batzokitan, pozez eran-

tzuna izango da; eta iduritzen zait Centro Republicano'an ere baietz, ala biar beintzat.

Beraz, altzatar erreratar danak: Eman eta eman azi botua Estatutoaren alde.

[121]

*El Día*, 1933-11-16

**Itani**

**Antzeslariak**

Errera'ko Eusko Etxea'ko teatro egilleak azkeneko igandian izanak dira Lezo'n antzerki jai bat egiten. Bertan antzestu zuten, len emen egin zuten lau ataleko "Egiazko argia". Oso poztuak etorriyak dira lezotarrak egin ziyen onetorriyagatik.

Oraingo eleziyo denbora au igarotzean, jarraitzekotan daude lengo negualdiyan bezela, aurten ekin ziyotenez emengo Batzokiyan antzerki jayak egiten.

**Auteskundeak**

Berriz ere auteskunde aurretan gera.

Il onen 5'an, erreratar altzatar danak, edo geyenak beintzat, erakutsi zuten beren Araudi Estatuto zaletasuna, eta itxaropen aundiya degu, orain gertutzen ari zaizkigun abetan ere, jakingo dutela ordun bezela beren eginbearra betetzen.

Ikusi giñutzen egun ortan zeintzuk diran Euzkadiren eskubidearen maitaleak. Danen gogoan dago, eta ez da berialakuan astuko, beren autarki botua eman ez zutenak, eta aurkako "no" eman zutenak ere geyentxoak ezagunak dira.

Españazale eskubitar alfonsino edo karkak (berak jakingo dute zer diran, errege zaleak beintzat) beren agintari batzuk naiz Araudi Estatuto aldekoak izan, ez zizayen ondo iruditu berak ere ala izatia, bada dirudinez laiko antzekoa zan ta... Onei erantzun ederra Gotzai Obispoak eman ziyon.

Españazale eskertarrak berriz, beti azaldu dira guretzako maitienak diraden gauzaren areriyo kontrariyoak, eta oraingo ontakoak ez gaitu ainbeste arritu. Zertxobait bagenekigun beren arteko "disciplina" nolakoa zan; bañan igande ortan, batzuk batzuk kendu ezkero, gutxigi, garbi

erakutsi zuten zenbateraňoko kasua egiten diyen beren agintariyen aginduari, beren gustokoa ez bada; eta agindu ori ez izan.

Erakuspen aundiyak izan zitun egun orrek gu euskotarrentzat. Badakigu, len ere bai baño orain obeto, igande ortan eta beti zeintzuk sayatzen diran Euzkadi'ren onbidia lortzen.

Datorren iganderako lau edo bost alderdik edo partiduak izendatu dituzte beren gizonak, eta bakoitzaren aldezkoak ibilliko dira au ta bestia esanaz bañan danantzako zer erantzuna izango da. Alegiya, Estatuto aldekoak ezagutu giñutzela zeintzuk lan egin zuten eta zeintzuk prestuago emendik aurrerako lanak ere egiteko dauden.

Bada lengoan naiz bayeztu Araudi ori, ortan ez da bukatzen arazo au; Madrid'ko kortietan eginbear gogorrak sortuko ditu bera aldeztutziak, eta ortarako gizonak izendatu biar ditugu datorren igandian.

Orregatik, arazo ontako gauzak ematen duten lanerako egunero biltzen dira. Batzokitan, nola Altza'koan ala Errera'koan abertzale ugari, emakumezkoak eta gizasemezkoak.

Emakumeak, beren lenengo egintzan lan asko egin zuten, eta beragatik itxaro degu oraingo bigarren ontan ere berdin egingo dutela, edo geyago al izan ezkero.

Senagokoan, lan errexa zan, danak alde batekoak bai ziran, bañan oraingoan ez dira ordungo errextasunak izango, eta lana pixka bat zaillagoa izango ote duten nago. Bañan, asiera nolaz ain ondo eman zuten oraingokoako oituaguak daude, eta beren abertzaletasunak asko lezake.

Il onen 5'an erakutsi zan euskotarren Araudi zaletasuna eta oraingoan erakutsi biar da ez dala euskotarren biyotzik oztu, baizik piñ jarraitzen dutela asmo beretan.

Ortan gaude, edo obeto esateko, ortan gabiltz.

[122]

*Argia,* 1933-12-10 - 662. zbka.

**Zugaizpe**

ARGIA'ko zuzendari idazle ta irakurle guztiori agur. Emen nator lenengo aldiz baldin lekurik bada nere lerro trakets obentzat asteroko izparringi maite onetan. Orrenbeste abertzale dagon erri onetan badago ni baño yayuagorik ontarako, eta orrengatik dei egiten dizutet bada nor

edo nor azaltzen ote dan neri laguntzeko ¿Entzungor egingo ote diyozute nere dei oni?

Ekin gogor lanari. abertzaleak, ez da gauza aurdiya ARGIA'an idaztea, goratu dezagun gure izkuntza garbia erabiliaz beti gure ezpañetan, abertzaleak gerala esan ta ez dezagun gero erderaz itzegin. Euskera maite badezu euskeraz itz egin zazu.

Auteskundietan abertzaleak izan giñan garaille gure erri onetan naiz eta ainbeste alegin egin zarrontzale oyek baserriz-baserri beren orritxoak zabaltzen. ¡A gizarajoak! Etziran alpenik ibilli oñetakuak urratzen. Zer uste zuten oyek, gure baserritarrak lo zeudela orren errez atzipetutzeko? Orain daude urdalleko miñakin. ¡Gora gure aldun jatorrak ta oyen alde lan egin dezuten guztiok!

**Bederatziurrena**

Maria Sortzez garbiaren bederatziurrena egiten ari gera. Asko urbiltzen gera batez ere Mariaren alabak.

**Eriyotza**

Jaunaren besoetan il da erri onetako seme Casares'tar Iñaki jauna. Baita ere il da erri onetako seme Patxiku Laskiñenekua (emplasterua). Oyen illobiratze ta illetan oztetza aundiyak izan zituzten. G.B. Otoi, irakurle oyen gogo aldez.

**Jayotza**

Iruretagoyena'tar Pia'k semetxo bat izandu du. Zorionak gurasoai.

Agur guztioi.

Ongi etorri ta iñoren laguntza zai egon gabe ekin zuk beintzat lanari. T.

[123]

*Argia*, 1933-12-24 - 664. zbka.

**Urretxindorra**

Emen nator ni ere lenengo aldiz idaztera era berian "Zugaizpe"-ren deyari erantzunaz.

-Juan dan asteko ARGIA-n irakurri nuben Altza'ko berrietan dei bat eta dei oni erantzuteko asmoa artu nuben, bañan ni izanik buru gogorra ta mingain motela ¿nola atera nik lerro egokirik? Ez diyo ajolarik; ekingo diyot gogor lanari.

Egiya da Altza'n abertzale asko gaudela, bai, bañan iñork ez genun asmorik artzen ARGIA-n idazteko, eta orain poz-pozik idatzi eta zabalduko ditugu erri onetako berriak.

-Ama Sortzez Garbiaren eguna aundikiro ospatu genduan, goizeko Jaun artzean Mariaren alaba, Luistar, zar eta gaztetxu asko urbilduaz.

Arratsaldeko elizkizunian asko eta asko urbildu giñaden, eta arralsalde onetako elizkizunian itzaldi ederra, itzaldi guztiz gustagarria danentzako egin zuan Alberdi'tar Mateo Pasai Kepa Doneko apaiz jaunak.

Gogoz entzun genion guztiok, eta Ama Mariari abesti guztiz ederrak abestuaz amaitu genduan elizkizuna.

Pozik jarraituko det idazten.

Agur zuzendari, idazle eta irakurle ta ARGIA-ren maitale guztioi agur.

Ongi etorri ta jarrai asitako lanari.- T

[124]

*El Día*, 1934-01-05

**Noizik Bein**

Eee... up. Urte berri on, Jaungoikuak deizuela EL DIA'ko batez ere Euskal Orri'ko zuzendari, idazle eta irakurle danori.

Aspaldi ontan badaukat nere lagun begiko bat, galdezka noiz baño noiz idatzi biar detan EL DIA'ko Euskal Orri ontara, eta berari poz ematiagatik eta zerbait bera ere indar berritzeagatik, astera nijua zirri borro bat egiten.

Bai "Itani" maitia, bai; zuri poz ematiagatik eta zu eta zure lagunak indar berritzeagatik nator asi ziñaten bezela jarrai dezazuten aurrera ere Errera'ko berriak bialtzen, eta Euskal orri bikain au apaintzen. Nik ez dizut ukatuko al dezakedan laguntza, baño zuk geiegi eskatzen didazu. Nik ez dezaket amabostian beiñ idatzi orretarako, or badituzu ni baño yayoguak eta aisago lezatekenak eta ziur nago lagunduko dizutela, nik egia esan ezin nezake, batetik nere izenorde ez dualako agintzen, bestetik aste egunian ezin nezakelako eta gañera jaietan ere banaka izan ezkero astirik ez daukadalako biar aña; orain bada binaka izan ezkero; tira, or nunbait.

Milla bederatzireun da ogeita amairugarren urtea bukatu degu Jaungoikuari eskerrak. Urte goguangarria benetan 1933'garren urtea; amaika zoritxar izan degu, izan ditugu erreketak, ujaldiak, gaitzak, matxinaka, oporketak, gizon iltziak, asarreak eta... nik ez dakit zenbat gauz mingarri. Baño beste aldera begiratuta, zorioneka eta pozgarria benetan Eusko Abertzalien biotzentzat, izan degulako nor gera agertzeko zoria, eta izan degulako indarra zoritxar guztiari arpegi emateko eta zorioneko bidiari gogor eltzeko, bada juan dan urtian egin degu gure biotzak amets zuan guzia edo geigo, baño ez degu onekin arrotu eta alpertu biar aurrera, aurrera azkatasunaren azkeneko izpia lortu arte.

Gaurko naikua det eta agur nere anai arreba maitiok, berriz ere bi jai diranen batian baliteke agertzia J.l.

[125]

*El Día*, 1934-01-06

**Itani**

**Agurra**

Naiz berandu xamar (atzeratuta bizitziak egiten du) agur Euskal Orri ontako zuzendari dan "Luzear" jaunari eta irakurle guztioiri, urte berri on bat opa izanez.

**Antzerki jayak**

Askoren kezkak oraingo onekin amaituko dira. Alegiya aspaldiko ontan, iya iru illabete, ez dala Errera'ko Batzokiyan antzerkitik izan, eta ia zer asmuetan dauden bertako antzezlariyak edo zuzendariyak ziyoten erreratar-altzatarrak.

Ezagutzen dute lo ez daudela, bada beren jakiñen gañian da izanak dirala Pasai San Pedro'n eta Lezo'n, bañan beren errikuakin aztuta ote dauden edo...

Gañera, diyotenez, edo ederki egin omen zuten erri oyetan, eta pixka bat "arro xamar" daudela uste det bere "tournée" ori egin ondoren.

Itxaropena ba degu len oitu gaituzten bezela, oraingoan ere oso ederki egingo dutela.

Eta antzezlariyen au onela izanik, antzerkiyen gaiñ zerbait ezatia bidezkoa iduritzen zait.

Ez dute txantxetakoa egokitu: "Oleskari biyak". Abertzaletasuna du arazoa maitasuna tartean duela.

Abek ola zanik iduritzen zait datorren larunbatian Erregu eguna, gure Batzokiya bete-betia ikustia.

Antzerki jai onek aziera izango du arratsaldeko 8'tan eta sarrerak betiko tokiyan arkitu leizke.

[126]

*El Día*, 1934-01-14

**Itani**

**"Nozik bein" adizkideari**

Poz aundiyakin irakurri nuben juan dan ostiraleko EL DIA'ko Euskal orri ontan zetorren zure idatziya.

Bertan diyozu ori egin dezula ni poztutziagatik eta indarberritzeagatik. Egiya da ala egin naula, eta eskartzen zaitut zure borondate ona, bañan ez da orregatik bakarrik egin bear dezula lan ori.

Ori baño biarragokoa da zuk geroxeago diyozun Euskal-orri bikain au apaintzia, eta orretarako zuriak bezelako idazkiak maiz agertzia. Neriak, zuk dakizun bezela, apaindu bearrian beste zerbait egiten dute, eta jarraitzen ba-det zerbait bidaltzen ez da nik ezin egin nezakena egiteagatik, baizik Luzear jaunak ziyonez ez degulako lotsatu biar euskeraz ez ondo egiteagatik, eta bai euskeraz ez egiteagatik.

Diyozu ez dezula ukatuko al dezakezun laguntza, baña geyegi dala amabostian beingoa, eta beste batzuk egin lezatelakoan uzten dezu; bestiak ere ori esanda bukatuko luteke.

Orregatik, bestiak lezatekena alde batera utzita, bidezkoa iduritzen zait egitia zuk aldezuna. Eta aldezun au ez da zuk diyozun bezela, bada zuk daukazun errextasunakin euskeraz idazteko, egiten dezuna baño geyago eziñik ez dezulakoan nago.

Nik ez jakiñ eta borondatia det; zuk berriz jakin eta... borondate ori izan zazu.

Itxaro degu ba, nik eta nik bezela beste erreratar askok zure idatzi bikañak gustora irakurriko lutekenak, izen-orde orren eskusa alde batera utzita, maixiago zure lantxo oyek ikustia.

Agur adiskide, eta zai gaude.

**E.A.B.**

Igaz bezela, aurten ere emengo emakumeak egin zuten jostallu partiketa Eusko Etxea ta E.A.B.'ko bazkideen umetxoairi. Baita ere sosketatu edo errifatu zituzten zortzi atarka jakiyakin, eta sarituak izan ziranak, zer esanik ez dago oso pozturik geratuak dirala.

Jai polita izan zan, eta umetxo asko izandu ziran beren gurasuak lagunduta. Danak pozik ateriaz beren jostallu ta sariyak erakutsiz.

Bukaerako, Lezo'ko txistulari txikiyak ekitaldi bat egin zuten alaituaz Batzokiyan arkitzen ziranak, eta alaitasunaren artian, igaro zuten arratsalde on bat bertaratzeko zoriona izan zutenak.

**Antzerki jayak**

Juan dan larunbatian, Errege egunian, illuntzako 8'tan egin zuten bertako antzezlariyak jaitxo bat, eta oi duten bezela oso ederki.

Antzeztu zuten lenbizi oso polita ta mamitsua dan "Oleskari biyak" bi ataletan. Teatrogille danak oso ondo egon ziran, eta beragatik entzun zituzten txalo ugariak.

Urrena, "Motxa erriyan" bakarrizketa egin zuan Muguruza'tar Toma gazteak, eta au ere oso txalotua izan zan bere ateraldi parregillengatik.

Aspaldiko ontan geldi egon arren, ekin diyote lanari gure antzezlari trebeak eta orain jarraituko dutelakoan gera, berakin poztuaz Errera ta Altza'ko eusko teatro zaliai.

**Datorren iganderako**

Berriz datorren igandian, badute erreratarrak nun arratsalde on bat igaro. Antzerki jai bat eratua dago arratsaldeko 5'tako.

Ez dira bertakoak egilleak, baizik len emen izan ziranian ain ondo egin zuten sanpedrotarrak. Datorzkigu botatzera "Maitasun ta gorroto" ta "Negarrez igaro zan atsoa".

Ezagutuaz antzezlari oyen yayotasuna eta jakiñaz ondo "preparatuta" datozela, itxaro degu betia ikustia Batzokiya datorren igandian.

[127]

*Argia*, 1934-01-14 - 667. zbka.

**[Erredakzioa]**

**Altza'ko udala**

Aspaldidanik erriak aukeratutako udala baztartua zegon Altza'ko errian ere. Orain ordea beren jarlekuetara igotzekoak dira ta

beren tokietan zeuden agintedun izunak txokora joan bearrean dira. Ba zan ordu!

Lan ederrik egiñak izan bear dute sasi-agintari oiek Altza'ko errian.

Oien okerrak zuzentzen izandu date lan ederra orain berriro sartzen diranak.

[128]

*Argia*, 1934-01-14 - 667. zbka.

ARGIA'ko zuzendari, egille, idazle eta irakurle guztioi urte berri on, aberats eta osasuntsu bat opa dizuet.

Urte zarra joan zaigu ta ona emen urte berria. Iges egin dun ortan zigorkada gogorrak izan ditugu abertzaleak. Ongi etorriak zigorkada oyek. Euzko erria gero ta beroago ta sendoago bere azkatasun bidean jartzen da. Beste urte berri bat, urte bat gutxiago gure Euzkadi'k azkatasuna bereganatzeko.

Abertzaleak, urte ontan izan dedilla gure goiburu "Jaungoikoa ta Lagi Zarra" gero ta geyago maitatzea.

**Goyaz'ko "Arantza"ri**

Jakin ezazu "Arantza" eguerritako kapoyak gaitz egin digutela bai, ez baigenduan, eta egun oyetako turroi eta pastelak agiñeko miña... sudurrian egin digutela, eta gañera ez degula kukuarenik egin, baizik putriarena, egun abetan ateratzen duan eguzki. gozua artzen bai degu.

"Zugaizpe"ren lerrotxuaren zai neguan irakurtzeko ta gero idazteko.

¿Zergatik mintzatu zera orren aguro? ¿Zer ari zera ortik oneraño ote-arantza bezela zulatzen? Emakumia ote zeran nago. Berriketako gogo pizkat... Barkatu, "Arantza".

**Eriyotzak**

Jaunaren besoetan il zan erri onetako seme Alkiza'tar Joseba Andoni.

Bai ta ere Jaunaren besoetan il zan erri onetako seme Latasa'tar Estepan. Orien illetak eta illobiratzetan ostetza aundiak izandu zituzten. G.B. Otoi irakurle orien gogo aldez.

[129]

*Argia*, 1934-01-21 - 668. zbka.

**Zugaizpe**

**"Urrretxindorra" idazleari**

Eskerrik sutsuenak zuri asteroko onen bitartez nere deiari orren ondo erantzun diyozulako. Jarraitu aurrera ere euskera gure izkuntza garbiya indartu ta goratzen, azpertu gabe.

**Goyaz'ko idazle "Arantxa"ri**

Arrania, ez diguzu lo aldi aundirik egiten utziko zuk. Ikusten da zuk ez dezula opor aldirik egiten. Pozik irakurtzen ditugu zuen berriyak ta jarraitu aurrera ere idazten baño bildur naiz "Alponsinoren" batek arrapatuko ote zaituan. Zure atzetik e... ez al dago zuen erri orretan margaritarik? Kontuz ibilli.

**Udal aldaketa**

Jarri zaizkigu berriro eskubitar ziñegotziak erri onetan, egon biar etzutenak botiaz. Izango dute naiko lan ayek egindako trakeskeriak zuzentzen.

Agur danori.

[130]

*El Día*, 1934-01-23

**Itani**

**Euskel izena**

Egaña'tar Joseba Andoni'ren emaztiak izan duen aurtxoari ugutzatu batayatzeakoan euskel izena ezarri diote, eta beragatik gurasuak artu dute saskitxo bikaiñ bat Donostiko Emakume Abertzale Batza'koak emana.

Zorionak gurasoairi, eta jarrai bide ortan euskaldun aurtxoari dagokiyon bezela euskel izenak jartzen aurrera ere.

**Emakume Abertzale Batza**

Askeneko ostegunian, beren aretoan, izan zuten Errera'ko emakumiak urteroko batzarra.

Lengo Artezkari Batza (Junta Directiva)'ri orain arte egin duten lanagatik eskertu ondorian, berriya izendatzia zuten arazo bat, eta onelaz jarri dute:

Lendakari: Asurmeni'tar Josebe.
Lendakari ordezkoa: Sansinenea'tar Josebe
Idazkari: Fernández'tar Miren.
Idazkari ordezkoa: Maritxalar'tar Josebe.
Diruzai: Eneterreaga'tar Erramona.

Batzarkideak: Agirrezabalaga'tar Imanole, Egaña'tar Koldobike, Berra'tar Nikole, Alkiza'tar Nikole, Guruzeaga'tar Bingene eta Sarasola'tar Mikele.

Egitan, lenagokoa ona bazan ere, oraingo au ez dutela txantxetakoa aukeratu. Beren izenak jakitia aski da. Emakumiak asko lezakete eta abek egingo dutelakoan gare. Itxaropen osoa ba degu jarraituko dutela lan ugariyak egiten Jaungoikua eta Lege Zarra'ren alde, eta ortako izango dutela Errera-Altza'ko abertzale danen laguntza. Nik ere, nere txiroa eskeintzen diyet.

Aurrera emakumiak, Aberriya egiñez.

**Idiakez'en alde**

Askotan esan oi degu zure gaiñ baleoke getariar maite onen alde zerbait egitia oso pozik egingo gendukela.

Orain iritxi zaigu gai bat orretarako. Danen jakiñen gañian dagonez arazo onetzaz Madrid'ko "Tribunal de Garantías" jabetu dediñ diruba biar, eta orretarako Gipuzko Buru Batzarra'ren agindua betiaz, Errera'ko Eusko Etxean irikiya dago arpide bat. Arpide onetako emaitza bakarra bi errialekoa da danak eman dezaten, eta uste det ez dala abertzale bat, nola emakume ala gizaseme, geratuko emaitza bakar ori eman gabe.

Ezagutu gure anai euskotar bat, egon biar ez luken zigorleku batian, bere aberritik urrun dagoala, eta bera andik askatziarren bi errialeko bat emango ez dunik ezin leike izan.

Danon eginbiarra da ori, lortzeko Idiakez anai errugabia eta bide berez gure euskera maitia, berai dagokiyen mallan jartzia.

**Antzerki jayak**

Iragarrita zegon bezela, juan dan igandian zortzi Pasai sanpedrotarrak egin ziguten antzerki jai bat berak oi duten bezin ondo, asko gustatuaz ikusleari batez ere "Negarrez igaro zan atsoa" egin zuten bezela, eta azkeneko bakarrizketa "Joxe Ebaixto". Naiz danentzako txalo ugariyak izan, geyenak antzerki abekin irabazi zituzten, batez ere bakarrizketa parreragille ori ain ederki egin zuenak.

Eta berriz ere, datorren iganderako, Illbeltza'ren 28, antolatzen ari dira beste jaitxo bat emengo antzeslariyak. Alzaga'tar Toiribik egindako antzerki bat botako dute, eta zer ezanik ez dago jaun orrek egindako danak bezela oso polita dala. Izena du "Bost urtian" eta bi ekitaldekoa da.

Gañera "ensayo"tan ari diran bezela ikusiyaz, ezbairik gabe esan liteke bestietan oi duten bezin ondo edo obeto antzeztuko dutela.

Beragatik itxaro degu egun ortan Batzokiya betia izatia.

[131]

*Argia*, 1934-02-04 - 670. zbka.

**Urretxindorra**

**Eriotza**

Jaunaren besoetan il zan erri onetan Agote'tar Kepa apaiz jaunaren ama Sekundina andrea. Bere illobiratze ta illetan ostetza aundiya izandu zuan. G.B.

Otoi irakurle Sekundina zanaren gogo alde.

**"Zugaizpe"ri**

Eskarrikasko "Zugaizpe" ta berdin zuri ere izparringi maite onen bitartez eta jarrai idazten.

Zure idazkiaren beste zatia zenbaki onetan bertan eta agiriko leku batean ikusi zenezake.- T.

[132]

*Argia*, 1934-02-04 - 670. zbka.

**Euskeraz itz egin**

**Urretxindorra**

Gaurko egunean euskaldun asko ikusten dira erderaz izketan euskera baztertu ta.

Biar biarrekua degu askotan euskaldunak erderaz itz egitea, gaurko bizierak eta artu emanak alaxe eskatzen digutelako; bañan euskeraz itz egin ditekela, euskera utzi ta erderaz mintzatzia etzayo euskaldunari egoki. Euskera maite ez duan euskalduna edo euskerarengatik ajolarik etzayona, ori ez da egiazko euskalduna, gure euskera eta Euskalerriyaren alde euki ta izan biar dan maitetasunik ez dualako; egizko euskalduna da itzez eta egitez beti euskaldun izatea nai duana.

Garbiya, txukuna, egokiya, ederra ta aberatsa da gure euskera maitia.

Abertzalea, euskalduna, euskera ta Euzkadi maite dituzu? Euskeraz itz egin zazu, ba

[133]

*Argia*, 1934-02-11 - 671. zbka.

**Urretxindorra**

Beste errietako Batzokietan bezela emen ere izandu degu batzar nagusia ta batzar nagusi onetan gizon jatorrak aukeratu biar ziran; bai aukeratu ere. Ona zein: lendakari, Muxika'tar Joseba; lendakari ordekua, Arrieta'tar Koldobika; idazkari, Goikoetxea'tar Segundo; dirurai Otegi'tar Andoni. Zorionak lenago egondutakoai ta orain zaudetenai.

**Luistarrak**

Juan dan igandean izandu genduan Jaunartze zazpietako mezetan ta meza ondoren bildu giñan juntara urteko gora-berak ikusteko, ta batzuek beren karguak uzteko besteak artzeko. Lendakari aukeratu genduan Luistar jatorra dan Usobiaga'tar Tomas; lendakari ordeko Esnaola'tar Joseba Julen; idazkari, Goikoetxea'tar Segundo; diruzai, Otegi'tar Andoni. Luistarrak aurrera beti jarraituaz gure zaindnri degun Luis Gontzaga doneari, lengo suaren txinparta itzaldutzen utzi gabe.

**Jayotza**

Otegi'tar Joseba ta Orbegozo'tar Miren Koldobike'k semetxo eder bat izan dute, ta kristau egin dute Joseba euskal izen polita ezarriaz.

[134]

*Argia*, 1934-02-18 - 672. zbka.

**[Erredakzioa]**

**Eiztari gizarajoa!!**

Igande-goizean eizean omen zebiltzan Ulia-mendi'n Orbegozo'tar Bixente ta Aranburu'tar Juxto, altzatarrak. Alako batean Bixente'ri, bera lurrera erortzerakoan, izkilluak su egin zion eta tiro-erausia irten eta ain xuxen Juxto ipur-masallean jo. Atze-aldea ederra utzi omen zion noski tiroak...

San Ignacio gaxo-etxera eraman zuten zauritua ta egun batzutako egon bearra izango du noski.

**Beste zauritua**

Beste zauritua Guardia Civil'etako baten seme zortzi urteko Vicente Utiel da. Pasaitarra bera. Buenavista'n jostatzen omen zebillen eta Donosti'ko automovil batek jo ta bota omen zun.

Anjel Balzola zijoan automovilarekin. Mutikoa zankoa puskatuta gelditu zan eta Manteo'ko gaxo-etxera eraman zuten.

[135]

*Argia*, 1934-02-18 - 672. zbka.

**Zugaizpe**

**Nastuan**

Elizakuak artuta dago Alamoiko Fermin gizon ona.

Gaxorik arkitzen dira: Kastillun basetxeko Pia, bere senarra ta semetxoa ta Elizalde'tar Enkarnazion, Lardi txikiko gizon gaztea. Lenbailen sendatzea opa diegu. Gaxo aldiya igaro ondoren oso ondo arkitzen omen da Elizalde'tar Bibiano ta Goikoetxea'tar Nikolasa'ren alabatxoa. Asko poztutzen gera.

**Garizuma Santua**

Egunero izaten da agurtza deuna gure elizan. Al-dezuten guztiok urbildu zaitezte gaur ain biarrekua zaigun otoitza egitera. Egutegiaren txartela betetzeko zeukagu Pello. Buru au azkaturik asi gaitean bada. Ik irabazten badek ni soziyo, e?

[136]

*Argia*, 1934-03-04 - 674. zbka.

**Zugaizpe**

**Izpar naigabetsua**

Elizakuak ta Jaunaren onespena artuta ludi ontatik zeruratu zaigu erri ontako sendagille ona ta atsegiña zan Aizpurua'tar Lander jauna ogei ta amairu urte gure artean sendagille igarota. Gure gaxotasun guzietan alegin guztiak egin gabe ez giñuan uzten. Gañera abertzale bene-benetakoa genduan gure Lander jauna. Bere illeta ta obiratzetan oztetza izugarriya ikusi zan.

Oroitu gaitezen gure otoitzetan Lander jaunaren gogo aldez. (G.B.) Laguntzen diyegu atsekabe samin ortan bere seme-alaba Mikel ta Mirentxuri ta gañerako senide ta aide guztiyai.

Luistarrak

Joan dan igandian zuten beren illeroko jaun artzea. Asko urbildu ziran mai donera. Arratsaldeko elizkizunian ere asko ziran.

[137]

*Argia*, 1934-03-11 - 675. zbka.

**Urretxindorra**

**Jayotza**

Imaz'tar Gregorio ta Arrieta'tar Zezilia'k semetxo eder bat izan dute. Zorionak.

**Operazioa eginda**

Arkitzen da Orbegozo'tar Ramona. Lenbailen bizkortu ta osasun onian jartzia opa diogu.

**"Txantxangorria" idazleari**

Milla esker "Txantxangorria" ortik enbidoka asi zeralako ta poza aundiya artu nuen zure lerrotxo politak irakurrita, bada zu ortik ta gu emendik euskeraren alde lan egin dezagun gogotik.

[138]

*Argia*, 1934-03-25 - 677. zbka.

**[Erredakzioa]**

**Gizona il ta bestea zauritu**

Iru lagun ari omen ziran lanean Altza'ko Miracruz-aldean eta aietatik bik zoritxarra an billatu zuten.

Lur ateratzen ari omen ziran eta bertan lur-jausia sortu ta bat ilda utzi zun. Naparroa'n Allo-errikoa Makua'tar Gregorio bera.

Au lurrak azpian artu zun erabat eta bat-batetan illa izango zan noski. Zauritua Altza'ko Maritxalar'tar Nikolas da. Oni gorputz-erdia arrapatu zion lurrak azpian eta bizirik atera zan. Naiko zauri aundiak izan bear ditu ordea. Osaketa bat egin omen diote ta, oraindik zer-ikusi aundiagoko beste bat egiteko. Obetoxeago egon bear du ta aterako dan itxaropena ba omen da.

Irugarren langillea berriz orduntxe saskia lurrez bete ta ustutzera joana omen zan. Jaungoikoa'ri eskerrak zergatik eman ba du onek. Illak bi seme txiki ta alarguna uzten ditu. G.B.

[139]

*Argia*, 1934-04-08 - 679. zbka.

**Zugaizpe**

**Eriyotza**

Elizakuak ta Jaunaren onespena artuta il zan Etxebeste'tar Ines, Maria'ren alaba zintzo ta abertzale sutsua. Bere illeta ta obiratzean oztetza aundiya bildu zan, batez ere Mariaren alabak. G.B. Aitagure bat, irakurle, bere gogo alde.

-Elizakuak eginda dago Papingo Jose Anjel.

-Aste donean, erramu egunetik asi ta, mixio txiki bat izan gendun. Aita Karmeldar batek egin zizkigun itzaldiak. Egiya pranko azaldu zigun. Ostegun deun egunean ibildeuna ere egin zan pake ederrian. Egun oyetan egin diran elizkizun bikañetan notintza asko ibilli da.

**Berpizkunde eguna**

Aberri Eguna zala ta Gazteiz'tik oso pozik biurtuak dira emengo abertzaleak Araba'ko anayak besarkatu ondoren. Ezpata-dantzari talde bat ere bazan emendik.

**"Urretxindora" idazleari**

¿Zer gertatzen zaizu ARGIA'ra ez azaltzeko? Ea datorren astian azaltzen zeran.

[140]

*Argia*, 1934-04-22 - 681. zbka.

**Zugaizpe**

Gaur oldozkor naukazute. Bakarrik geratu bear ote det ARGIA'ra idazteko? Baño zer zabiltza "Urretxindorra" izparringi onetara azaldu gabe? Norbaiten esker txarrez ote? Utzi ditzatzu oyek guziak alde batera ta jarrai aurrera beiñere baño kementsuago.

**Jaupa bat**

Aurreko igandeko 7'tako jaupa E.A.B.'k aterazi zuan Etxebeste'tar Ines aberkide zintzoaren gogo aldez. G.B.

Barcelonara emendik ere joanak dira eusko abesbatzakuak ARGIA'ren zenbaki au gure eskuetara irixterako etorriyak izango dira, Barcelona guztia pozez utzirik beren abesti ederrekin.

**Bidani'ko "Intza"ri**

Kaxo aspaldiko "Intza"! Udaberriyakin batera emen zera berriz ere. Loratxuak biarrian bai zeuden ba! "Baso-lore" orain arte denboraldi batean bakarrik izan bada ere badu naiko laguna. Jarraitu idazten "Intza" zure idazkia oso atsegiñak izaten zaizkigu ta.

[141]

*Argia*, 1934-04-29 - 682. zbka.

**Urretxindorra**

**Ezkontza**

Marzial donearen eliz nagusiyan igaro dan aste orretan elkartu

ziran "Baso txiki" basetxeko Jon ta Galarraga'tar Adriana andereñoa. Zorionak ta ondo izatia opa diegu beren bizimodu berrian,

**Zeruratua**

Igaro dan aste orretan zeruratu zan "Tellei" basetxeko aingerutxo jaio berria.

**Luistarrak**

Juan dan igande onetan zuten Jaunartzea Luistarrak. Asko urbildu ziran goizian Jaunartzera ta arratsaldeko elizkizunera.

Ikaraturik arkitzen da nere laguna bakarrik geldituko ote dan. Larri ibillerazi naute orainguan, bai, ta orrenbestian utzi nautenian pozik nator.

Barkatu bada nere opor aldi.

[142]

*Argia*, 1934-05-06 - 683. zbka.

**Zugaizpe**

Oso pozik arkitzen naiz "Urretxindorra" berriro agertu zeralako ezta zer ¿beldurtu nitzala? Bai, bildurtu ere. Amerikaruntz iges egiña ziñala esan bai zidaten, Bakarrik geratuko balitz ¿zer egin idazle ez jakin onek? aurrera ea opor aldirik egin gabe jarraitzen degun.

**Ostiraletako bela**

Orain berriro jarria degu jalera au, Mariaren Biotzeko lagundiko Aita bat izan genduan Jesus Sakramentatuaren jaiera jartzen, itzaldi mamitsu bat egiñaz. Astian egun bat jarri digute bereziki bere lagundi edo "companiyan" egoteko, baño orretzaz gañera aldegun guztian beregana joan bear degu; ostirala aukeratu digute ortarako; goizeko 8'etatik illunabarreko 8'ak arte, ordu erditik ordu erdira binan-bina.

[143]

*Argia*, 1934-05-20 - 685. zbka.

**Zugaizpe**

Mariari opaldutako ill eder ontan egiten diran elizkizun bikañe-

tara asko urbiltzen gera. Tamalez joan litezkenak gelditzen dira juan gabe.

Nekazarien zaindari egunean Isidor deun egunean izan zuten jaupa nagusiya emengo nekazariak 10'tan Frantzisko deunaren ordenako Aita batek egin zuan itzaldiya. Oztetza aundiya batu zan.

**Ezkontza**

Aste ontan bein betiko uztartzen zaigu Bizenta "Arruas"ko neskatill ona, Donosti'ko gazte batekin. Zorion ugarik opa dizkizutet.

**Gaxorik**

Gaizki samar egon ondoren, ondo arkitzen omen da orain Kastillun basetxeko Manuela andre ona. Aurrera ere ala opa diyot. Baita ere ondo ezik oyeratua omen dago Arruti'tar Imanol luistar gaztea.

Luistarrak datorren igandean dute beren illeroko jaun artzea. Aldezuten guztiyok etorri zaitezte. Ea aulki guztiyak bete beterik ikusten ditugun.

[144]

